Donostiako hegazti habiagileen **Atlasa**

Atlas de aves nidificantes de San Sebastián



aranzadi
zientzia elkartea

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Osasun eta Ingurumena
Salud y Medio Ambiente



Donostiako hegazti habiagileen **Atlasa**

Atlas de aves nidificantes de San Sebastián

Juan Arizaga

Maite Laso

Javier Rodríguez-Pérez

Nere Zorrozua

Nerea Pagaldai

Luis M. Carrascal

aranzadi
zientzia elkartea

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Osasun eta Ingurumena
Salud y Medio Ambiente

2021ean Donostian inprimatua
Impreso en San Sebastián en 2021

© Donostiako Udaleko Osasun eta Ingurumen Saila
Departamento de Salud y Medio Ambiente del Ayuntamiento de San Sebastián
Aranzadi Zientzia Elkartea
Sociedad de Ciencias Aranzadi

Egileak / Autores: Juan Arizaga, Maite Laso, Javier Rodríguez-Pérez, Nere Zorrozua, Nerea Pagaldai, Luis M. Carrascal

Irudiak / Ilustrazioak: Raúl Domínguez

Itzulpenak / Traducciones: Ornitologia Saila, Aranzadi Zientzia Elkartea
Departamento de Ornitología, Sociedad de Ciencias Aranzadi

Diseinu eta maketazioa / Diseño y Maquetación: Javier Arbilla

Imprimaketa / Impresión: Navaprint Gráficas S.L.

L.G. / D.L. D 00344-2021
ISBN 978-84-17713-40-9

Liburu hau honela aipatu / Citar este libro:
Arizaga, J., Laso, M., Rodríguez-Pérez, J., Zorrozua, N., Pagaldai, N., Carrascal, Luis M., 2021. Atlas de aves nidificantes de San Sebastián / Donostiako hegazti habiagileen atlasa. Donostiako Udala, Osasun eta Ingurumen Saila; Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Laguntzaileak / Colaboran:

Aurkibidea

- Atlaseko zentsoetako parte-hartzaileak 5
- Hitzaurrea 6
- Esker onak 8
- Sarrera 11
- Metodologia 12
- Espezieen fitxak 51
- Espezieen fitxen interpretazioa 52
  - Bertako espezieak 54
  - Espezie exotikoak 232
  - Ugalketa zalantzazkoa duten espezieak 234
- Hegaztien aniztasunaren banaketa-ereduak eta kontserbaziorako lehentasunezko eremuak 235
- Bibliografia 243
- 1. eranskina. Ereduei buruzko informazioa 249
- 2. eranskina. Ugaritasunaren zenbatespenak 250
- 3. eranskina. Ilustrazioetan irudikatzen diren lekuen aurkibidea 252
- Espezieen aurkibidea 254

Índice

- Participantes en los censos del atlas 5
- Prólogo 7
- Agradecimientos 9
- Introducción 31
- Metodología 32
- Fichas de especies 51
- Interpretación de fichas de especies 52
  - Especies autóctonas 54
  - Especies exóticas 232
  - Especies de reproducción dudosa 234
- Patrones de la distribución de la diversidad de aves y zonas prioritarias para la conservación 239
- Bibliografía 243
- Anexo 1. Información sobre modelos 249
- Anexo 2. Estimas de abundancia 250
- Anexo 3. Índice de ilustraciones 252
- Índice de especies 254

Atlaseko zentsoetako parte-hartzaileak
Participantes en los censos del atlas

(A) Zentso kualitatiboak / Censos cualitativos

(B) Ugaritasun-zentsoak / Censos de abundancia

(C) Zentso espezifikoak (sorbeltzak, gautarrak, kaioak, etab.)
Muestreos específicos (vencejos, nocturnas, gaviotas, etc.)

(D) Datu osagarriak / Datos complementarios

Aiartza, Iñaki (A)
Amenabar, Joseba (A, C)
Aranjuelo, José M.† (A, C)
Arizaga, Juan (A, B, C, D)
Arnaiz, Arkaitz (C)
Arrese, Cristina (A)
Asencor, Susana (A)
Atienza, Ana (A)
Berrocal, Asier (A)
Blázquez, María (A)
Cabrita, José M. (A, C)
Caño, Lidia (A)
Castrillo, Alberto (A)
Dávila, Maribel (A)
Dávila, Pedro (A)
Delgado, Sergio (C)
Díaz, Ángel (A, C)
Diaz, Beñat (A, B, C)
Díaz, Pedro (A)
Egunez, Alexandra (C)
Eizaguirre, Maite (A, C)
Elkoro, Jesús M. (A, D)
Etxezarreta, Jon (A)
Fiaño, Montse (A)
Ganuza, Eduardo (A)
García, Ángel (C)
García, M. Luz (A, C)
Gómez, José M. (A)
Goya, Asier (A)
Herrero, Javier (A)
Herrero, José A. (A, D)
Iglesias, Pedro (D)
Iñurritegi, Antton (A, C)
Jauregi, Fernando (A, C)
Larrañaga, Mayte (A)
Lasa, Ander (C)
Laso, Maite (A, B, C)
Loperena, Alain (B)
Manso, Máximo (A)
Martínez, Laura (A, C)
Mendizabal, Itziar (A, C)
Miranda, Ana (D)
Múgica, Jon (D)
Olsen, Kirsten (A, D)
Orkolaga, Oihana (A)
Oyarzabal, Pello (A, C)
Pagaldai, Nerea (B, C)
Pérez, Mikel (A, D)
Rodríguez, Javier (A, B)
Rodríguez, Pilar (A)
Querejeta, Javier (C)
Sagarminaga, Yolanda (C)
Sancho, Pedro (A, C)
Santos, Pedro M. (A)
Saralegi, Xabier (A, D)
Torres, Rafael (A)
Valenzuela, Carmen (A)
Valiente, Alfredo (D)
Varona, Mikel (A)
Verdugo, Josema (A)
Vázquez, Elena (A)
Vázquez, Javier (D)
Yetano, José M. (A, C)
Zabala, Jone (A)
Zorrozua, Nere (A, B, C)

Hitzaurrea

Donostia hiri berdea eta urdina izatea publizitate-eslogan hobexeago edo txarxeago bat baino gehiago da. Donostiak natura aldetik duen aberastasuna erakusten du, donostiarrok daukagun eta gozatzen dugun natura galanta (itsasoa eta mendiak, hondartzak, berdeguneak...).

Eta orain, pandemia garai nahasi honetan, naturari beste begi batzuekin begiratu eta estimatzen ikasten ari gara; konturatzen natur guneei ondo kasu egitea eta behar bezala erabiltzea funtsezkoa dela hiri osasungarri, iraunkor eta kalitatezkoa izateko ez eze, baita klima-aldaketara eta biharetzi etor daitezkeen osasun eta ingurumen larrialdietara hobeto egokitzeko ere. Gure hiriaren osasuna, izan ere, gure geure osasuna baita.

Covid 19a irakaskizun asko uzten ari zaigu; adibidez, ondo kasu eginda eduki behar dela ingurumena, eta, hala edukiz gero, mesede handia dakarkigula pertsonei. Izan ere, naturarekiko harremana funtsezkoa dugu berriz ere; bizi-harreman bat dugu; ezinbestekoa pertsonaren garapenerako eta orekarako, aisialdirako gune osasungarria baino askoz ere gehiago.

Hala, bada, Donostiako natura eta ingurune berde txikiak eta handiak berraurkitze horretan buru-belarri sartuta dago Ekologia Departamentua, bai eta Donostiako Udal osoa ere. Proiektu eta jarduera-lerro asko ari gara egiten herritarrak eskura dituen elementu naturalei buruzko ezagutza zabaltzeko eta hobetzeko. Eta elementu horiek ez daude hiritik urrunen dauden berdeguneetan bakarrik (Oberanen edo Zubietan, esate baterako); hiri inguruko parke ugaritan (Ametzagaina, Ulia...), hiri inguruneetan (Cristina Enea, Aiete, Miramar...) eta hiri bilbean bertan ere badaude elementu horiek.

Hirian den natur ondarea gehiago eta hobeto ezagutzen lagundu nahi dugu; hiriko basoetan, parkeetan eta lorategietan hazi eta bizi den biodibertsitatea hobeto ezagutzen. Eta hegaztiak dira Donostiako herritarren eguneroko bizimoduan gehien ikusten diren, eta, batez ere, entzuten diren, animalia espezieetako bat. Zer plazer handia den etxeko leihoak edo balkoiak ireki eta txorien txorrotxioak entzutea, ezta? Edota kaleetan eta plazetan eguneroko joan-etorrietan gabiltzala, edo hondartzan, parkean edo inguruko mendietan, paseatzera joaten garenean. Une horietan guztietan, arreta jartzen badugu, oso litekeena da hegazti bat baino gehiago gurutzatzea gure bidean.

2017an, Donostiako Udalak, Aranzadi Zientzia Elkartearekin, SEO-Birdliferekin, Itsas Enararekin, Ugatzarekin Vasco de Camping Elkartearekin eta Cristina Enea Fundazioarekin batera jardun eta Donostiako hegazti habiagileen atlasa egiteko lanari ekin zion. Lan horren helburua zera zen: alde batetik, hegazti horien populazioaren egoera ezagutzea, eta, bestetik, azterlan horretan parte hartzeko aukera ematea donostiarrei. Hala, parte hartu nahi izan zuten pertsonak trebatu genituen aurrena, eta jende askoren arteko lankidetza-sare zabala eratu genuen datuak biltzeko. Sare haren laguntzarik gabe ez zen gida hau egiteko modurik izango.

Esperientzia oso ona izan da, eta kanpainaren 3 urteetan egindako lana, orain esku artean dugun atlas honetan islatzen da. Gure hegaztiak hobeto ezagutu eta aintzakotzat hartzeko balioko duelakoan nago; eta baita ingurumena eta biodibertsitatea babesteko eta klima aldaketaren aurka borroka egiteko konpromisoa izateko ere, nola gutako bakoitzak hala guk denok. Donostiako Udalak onartutako Donostia Klima 2050 Planean jasota dauden erronkak dira esan ditugun horiek, donostiar guztion ekarpena eskatzen dutenak.

MARISOL GARMENDIA

Ekologiako, Osasun Publikoko, Garapen Ekonomikoko eta Enpleguko zinegotzi ordezkaria

Prólogo

Que Donostia/San Sebastián es una ciudad en verde y azul es algo más que un eslogan publicitario más o menos acertado. Representa la riqueza del patrimonio natural del municipio, el mar y los montes, las playas y los espacios verdes que atesoramos y de los que disfrutamos la ciudadanía donostiarra.

Ahora, en estos tiempos convulsos de pandemia, estamos aprendiendo a apreciar y a mirar la naturaleza con otros ojos, a resdescubrir que la conservación y el uso adecuado de los espacios naturales son fundamentales para garantizar una ciudad saludable, sostenible y de calidad, pero también una mejor adaptación al cambio climático y a las crisis sanitario-ambientales que puedan venir en futuros cercanos. La salud de nuestra ciudad es nuestra propia salud individual.

El Covid 19 nos deja muchas enseñanzas y entre ellas, ha puesto en evidencia la necesidad de mantener un medio ambiente en buen estado y los beneficios que éste aporta a la ciudadanía. El contacto con la naturaleza vuelve a ser, entre nosotros y nosotras, una relación vital, esencial para el desarrollo y el equilibrio personal y emocional, que yo diría que trasciende al mero hecho de ser un espacio saludable para el ocio.

Y en ese redescubrir la naturaleza y los pequeños y grandes entornos verdes donostiarras estamos empeñados desde el departamento municipal de Ecología y el conjunto del Ayuntamiento donostiarra. Trabajamos con diferentes proyectos y líneas de actuación en la divulgación y la mejora del conocimiento sobre los elementos naturales que la ciudadanía tiene a su alcance. Elementos presentes no sólo en los espacios verdes más alejados de la ciudad, como pueden ser Oberán o Zubieta, sino también en los abundantes parques periurbanos (Ametzagaina, Ulía..) y los más urbanos (Cristina Enea, Aiete, Miramar...), así como en la propia trama urbana.

Queremos contribuir al mayor y mejor conocimiento del patrimonio natural de la ciudad, de la biodiversidad que crece y vive en sus bosques, en sus parques y jardines, también en sus calles. Y las aves son una de las especies animales más visibles y, sobre todo, audibles, que acompañan la vida cotidiana de la ciudadanía donostiarra. Es un placer abrir nuestras ventanas o balcones y escuchar los trinos de los pájaros; también en nuestras calles y plazas en los desplazamientos diarios, en la playa, cuando vamos al parque o al monte cercano a dar un paseo. En todos esos momentos, si prestamos atención, es muy probable que más de un ave se cruce en nuestro camino.

En 2017 el Ayuntamiento de San Sebastián, en colaboración con la Sociedad de Ciencias Aranzadi, SEO-Birdlife, Itsas Enara, Ugatza, Club Vasco de Camping y Fundación Cristina Enea comenzaron un trabajo para la elaboración de un atlas de aves nidificantes de San Sebastián. El objetivo de dicho trabajo era, por un lado, conocer el estado de dichas poblaciones, y por otro, brindar la oportunidad de participar en este estudio a la ciudadanía donostiarra. Se comenzó, pues, formando a las personas que lo solicitaron y se contó con una amplia red de colaboración ciudadana para la obtención de datos sin cuya participación no hubiera sido posible esta guía.

La experiencia ha resultado enormemente positiva y el trabajo logrado durante los 3 años de la campaña se traduce en este atlas que ahora tenemos en nuestras manos. Confío en que sirva para conocer y valorar mejor nuestras aves y al mismo tiempo, contribuya al compromiso individual y colectivo de proteger el medio ambiente, la biodiversidad y luchar contra el cambio climático, retos recogidos en el Plan SS Klima 2050 aprobado por el Ayuntamiento de San Sebastián a los que todas y todos los donostiarras debemos contribuir.

MARISOL GARMENDIA

Concejala Delegada de Impulso Económico y Empleo Ecología y Salud Pública

Esker onak

Ezinezkoa izango zen lan hau egitea jende askoren parte hartzea eta hainbat erakunderen lankidetzarik gabe. Horregatik, guztien laguntza eskertzea beharrezkoa da.

Lehenik eta behin, Donostiako Udaleko Osasun eta Ingurumen Sailak emandako laguntza teknikoa zein politikoa aipatu behar da. J. Benaito, A. Juaristi eta A. Yarzabalek proiektuan sinetsi zuten eta behar-beharrezkoak izan ziren lan honen sustapenean, atlasa burutzeko erabilitako lau urteetan zehar gauza asko erraztu baitzituzten. 2015-2019 aldian sail honetako zinegotzia izandako A. Gurpegik, eta honen ondorengoak, M. Garmendiak, proiektua gauzatu eta argitaratu ahal izateko finantziazio nahikoa izatea ahalbidetu zuten.

Atlasa egiteko, berebiziko garrantzia izan zuen aplikatutako metodologiak eta lan teknikoaren diseinuak. Jatorrian, proiektu hau Bartzelonako hegazti habiagileen atlasean oinarritu zenez, "Institut Català d'Ornitología" (ICO) erakundearekin ezagutzen hartu-eman bizi-bizia egon zen. Oso eztabaida emankorra egon zen erakunde honekin, Donostiako atlasean aplikatutako metodologiaren zati handi bat ezartzeko balio izan zuena. Eskertzekoa da ICOk eta, bereziki, M. Franch eta S. Herrandok, eskainitako laguntza eta lanerako gogo guztia.

Eskertzekoa da, halaber, zentso-garaian boluntarioak mobilizatzen lagundu duten erakundeen inplikazioa. Hegaztien zentsoak dira monografia honen oinarri dokumentala. Hurrengo ataletan zehazten den bezala, lan honetarako erabili diren datuak hainbat iturritatik datoz, eta boluntarioek zein profesionalek bildu zituzten. Horrelako atlas bat ez litzateke posible izango pertsona guzti hauen inplikaziorik gabe.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu R. Domingezi, atlaseko ilustrazioak egiterako orduan erakutsitako inplikazioagatik. Nabarmentzekoa da fitxetan agertzen diren espezieen bertsio errealistenak lortzeko egin duen ahalegina, bai eta horiek udalerriko hainbat txoko irudikatzen dituzten atzealdeekin osatzeko egindako lana ere. Lan honekiko azaldu duen profesionaltasuna eta gogo handia funtsezkoak izan dira ilustrazio hauek lortzeko. Marrazki hauek atlasa aberastu eta sekulako balio erantsia eman diote.

Azkenik, J. Arbillaren lan ona eskertu nahi dugu, monografia honen maketatzailea, baita C. Moranena eta B. Diazena, gaztelaniazko testuak euskarara itzultzeagatik. O. Aizpurua mapa modelizatuak egiteko oso lagungarria izan zen.

Agradecimientos

Esta obra, el atlas de aves nidificantes de San Sebastián, sólo ha sido posible gracias a la implicación de un gran número de participantes y la colaboración de varias entidades. Es pues necesario agradecer el apoyo de todas ellas.

Primeramente, cabe mencionar el apoyo del Departamento de Salud y Medio Ambiente del Ayuntamiento de San Sebastián, tanto a nivel técnico como político. J. Benaito, A. Juaristi y A. Yarzabal creyeron en el proyecto y ejercieron un papel clave en el impulso de esta obra, haciendo que todo fuera más fácil durante el periodo de cuatro años que han sido necesarios para culminar el atlas. A. Gurpegi, concejal de este Departamento durante el periodo 2015-2019 y M. Garmendia, que sucedió al primero, posibilitaron que el proyecto se dotara de la financiación suficiente para su ejecución y publicación.

Un elemento clave en la elaboración del atlas fue todo lo relacionado con el diseño del trabajo técnico y las metodologías que fueron aplicadas. En su origen, el proyecto se inspiró en el atlas de aves nidificantes de Barcelona, motivo por el que hubo un intercambio de conocimiento muy fluido con el Institut Català d'Ornitología (ICO), con quien se llevó a cabo una discusión muy productiva que sirvió para establecer buena parte de la metodología aplicada al atlas de S. Sebastián. Corresponde agradecer al ICO, y en especial a M. Franch y S. Herrando, su disponibilidad y colaboración.

También es de agradecer la implicación de las entidades que han colaborado en la fase de censos, movilizando voluntarios. Los censos de aves conforman la base documental de esta monografía. Tal y como se detalla en los capítulos que vienen a continuación, los datos que se han empleado para este trabajo proceden de diversas fuentes y fueron recolectados tanto por voluntarios como profesionales. Sin la implicación de unos y otros un atlas como el presente no hubiera sido posible.

Debemos agradecer, también, la implicación de R. Domínguez en la elaboración de los dibujos del atlas. Su interés por obtener las versiones más realistas de las especies que aparecen en las fichas así como su dedicación a la hora de integrarlas en los fondos que representan tantos rincones del municipio son dignas de mención. Su profesionalidad y entusiasmo por esta obra han sido claves para llegar a las ilustraciones que enriquecen el atlas y lo dotan de un valor añadido excepcional.

Finalmente, agradecemos la buena labor de J. Arbilla, maquetador de esta monografía, así como de C. Morán y B. Diaz, que colaboraron en la traducción de textos de castellano a euskera. Para terminar, O. Aizpurua fue de gran ayuda para hacer los mapas modelizados.

Sarrera

Donostiako hegazti habiagileen atlasa lankidetzan egindako proiektu bat da, udalerrian ugaltzen diren hegazti-espezieen kopurua ezagutzea helburu duena, baita hauen banaketa- eta ugaritasun-ereduak ere. Hau da, espezie bakoitza non dagoen eta zein den bere populazioaren tamaina. Aldi berean, proiektuarekin hegaztientzako gunerik garrantzitsuenak identifikatu nahi dira udalerrian, hauen ezagutza hobetu eta, horrela, kontserbazioa sustatzeko asmoz. Hegaztiek oso banaketa zabala dute eta talderik anitzenetakoa da ornodunen baitan. Gainera, azkar erantzuten dute habitaten edo bestelako aldaketen aurrean. Aterki-espezieak direnez gero, eta zentsoen bitartez haien banaketa- eta ugaritasun-ereduak erraz kuantifika daitezkeenez, beste fauna- eta flora-espezie batzuen biodibertsitatearen adierazleak dira. Testuinguru honetan, hegaztiak eta haien habitata babestea gainerako organismoentzat ere onuragarria da. Ondorioz, hegazti-faunaren kontserbazioaren bidez, biodibertsitate osoaren babesa sustatzen da. Halaber, proiektuaren beste helburu bat herritarrak hegaztien identifikazioan trebatzea da. Sarritan, hegaztiena talde egokia da biodibertsitatearen ezagutzan murgiltzeko eta hau sustatzeko.

Bartzelonako hegazti habiagileen atlasarekin batera[1], orain esku artean dugun lana aitzindaria da Estatuan, udalerri mailan hegaztien aniztasuna ezagutzeko tresna gisa. Diseinua, datuen analisia eta aurkezpena planteatzerakoan, banaketa modelizatua eta ugaritasunaren kalkuluak egiteko metodologia egokienak erabiltzeko saiakera egin da.

Atlas hau Aranzadi Zientzia Elkartearen ekimen gisa sortu zen, baina hasieratik pentsatu zen ornitologian eta ingurumen-hezkuntzan ardurak eta ezagutzak zituzten udalerriko pertsonei eta erakundeei ireki behar zitzaiela. Testuinguru honetan, proiektua kudeatzeko taldea 2017an sortu zen, Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak sinatutako hitzarmen baten bitartez. Gainera, Ugatza Ornitologia Elkartea (UOE), Espainiako Ornitologia Elkartea bere udalerriko taldearen bitartez, SEO-Donostia (SEO), Itsas Enara Ornitologia Elkartea (IEOE), Club Vasco de Camping Elkarteko ornitologia saila (CVC) eta Cristina Enea Fundazioa (CEF) ere sartu ziren. UOE, IEOE, CVC eta SEOk, batez ere, zentsoen garapenean eta hainbat ikastarotan parte hartu zuten. Ikastaro hauek proiektu honen garapen-aldian zehar antolatu ziren, herritarrek udalerriko hegaztiak identifikatzeko gaitasuna izan zezaten.

Aipatutako ikastaroak hainbat udal-instalaziotan (Intxaurrondo, Okendo, Lugaritz, Altza eta Casares kultur etxeetan eta Cristina Enea Jauregian, besteak beste) eta elkarteren egoitzetan (Aranzadi eta CVC) eman ziren. 2017 eta 2019 artean, 400 pertsona baino gehiagok eman zuten izena. Ikastaro hauek utzitako ondarea Hirilife proiektuan (www.hirilife.eus; Aranzadi Zientzia Elkartearen proiektua hiri-biodibertsitatearen kontserbazioa eta ikerketa sustatzeko) eta proiektu honen webgunean (www.atlass.eus) islatzen da.

Aurretik adierazi den moduan, proiektuarentzako oso elementu positiboa izan zen herritarrek zentsoetan parte hartzea eta udalerriko espezie habiagileei buruzko ekarpenak egitea. Goian aipatutako elkarteetako bazkideez gain, ordura arte ezezagunak ziren pertsonen parte-hartzea sustatu nahi izan zuen proiektuak. Pertsona horiek, ezagutza-maila egokia izanik, zentsoak egiten lagundu zezaketen. Guztira, 60 pertsona baino gehiagok parte hartu dute udalerri osoko hegaztien aipamenak biltzen eta zentsoak egiten.

Lankidetza publiko-pribatu hau izan da atlas hau sortzea ahalbidetu duena. Modu honetan, guztion artean lortu dugu orain arte Donostian biodibertsitatearen arloan sortu den proiekturik handienetako bat gauzatzea. Kalitatezko lan bat egitearen asmoa marrazkietan ere islatu nahi izan da, eta espezieen ilustrazioak lan honetarako berariaz eginak izan dira. Espezie bakoitza, gainera, udalerriko leku baten 'atzealde' adierazgarri batekin marraztu da; hau, espezieak hiriarekin eta hiri-inguruko eremuekin are gehiago lotzeko asmoarekin egin zen.

Azkenik, atlas honen bidez hegaztien ezagutza eta kontserbazioa sustatzea espero dugu, baita hauek bizi diren habitatena ere. Horrez gain, hiri-biodibertsitateari buruzko kultura berri bati bultzada eman nahi zaio, herritarrek hurbilen dugun ondare naturala babestera bultzatuz.

Metodologia

Proiektu hau biodibertsitatearen inbentarioa eta haren ugaritasuna eta banaketa espazialaren ereduak egitean oinarritzen da. Hortaz, lan honetan aurkezten diren emaitzen oinarri nagusia zentsoen kantitatea eta kalitatea dira. Ondoren, datuak estatistika-tekniken bidez bildu, berrikusi eta aztertu behar dira, monografian zehar ikusiko dituzun balioespenak eta mapak sortu ahal izateko. Hurrengo ataletan, proiektuan erabilitako metodologiaren xehetasunak deskribatzen dira.

Ikerketa-eremua

Lan honek hartzen duen eremu geografikoa Donostiako udalerria da. Hegaztien zentsoa egiteko lauki-sare bat ezarri zen, laukien tamaina 500×500 m-koa izanik eta, beraz, 329 lauki sortu ziren guztira (1. irudia). Bereizmen hau aukeratzeko arrazoiak hurrengoak dira: lehenik, udalerri-eskalan banaketa-ereduak aztertu ahal izateko fintasun-maila nahikoa duen lauki-sare bat izatea; bigarrenik, zehaztasun-maila hau zentsoen bideragarritasunarekin bateragarria izatea, laginketa-ahaleginari dagokionez. Lauki-sarea WSG84 proiekziora egokitu zen, erabiltako laukiak zegokien UTM 10×10 km laukiaren zatiketak izango zirelarik. Lauki batzuek ia ez zuten zentsa zitekeen azalerarik, itsasoarekin muga egiten zutelako eta azaleraren zatirik handiena ura zelako, edo inguruko udalerriekin egiten zutelako muga. Kasu gutxi batzuetan, ezinezkoa izan zen laukietara sartzea, sarbiderik gabeko eremu pribatuetan kokatzen zirelako. Tamaina handiko espezie askoren kasuan, 500×500 m-ko laukiak (hau da, 0,25 km^2) 1×1 km-ko laukietan multzokatu ziren; izan ere, espezie hauen erabilera-eremuak 0,25 km^2-tik gorakoak izan ohi dira.

Ikerketa-garaia

Lan honetan 2016 eta 2020 bitartean (5 urte) bildutako datuak hartzen dira kontuan, nahiz eta landa-lanaren zatirik handiena 2017 eta 2018an egin zen. Urte bakoitzean, datuak umatze-garaian jaso ziren, espezie gehienen ugalketarekin bat datorren bi hilabeteko epean batez ere (apirilaren 15etik ekainaren 15era). Hainbat espezie edo espezie-talderentzako, tarte hori beste hilabete batzuetara luzatu zen (goian aipatutako aldiaren aurretik zein ondoren). Helburua landa-lana espezie bakoitzaren detektagarritasuna altuena den garaietara egokitzea zen. Beste hilabete batzuetan ugaltzen diren espezieen kasuan ere, landa-lana garai horietara moldatu zen.



1. irudia. Donostiako hegazti habiagileen atlasean erabilitako 500×500 m-ko lauki-sarea.

Zentsoak

Monografia honetan argitaratzen diren fitxak egiteko hainbat datu-iturri hartu ziren kontuan, zentso estandarizatuetan (1. eta 2. puntuak) eta aipamen osagarrietan (3. puntua) oinarritutakoak:

(1) Zentso kualitatiboak (presentzia zehazteko):

- Hegazti arrunten zentsoak.
- Hegazti gautarren zentsoak.

(2) Zentso kuantitatiboak (ugaritasuna zehazteko):

- Hegazti arruntentzako zentsoak entzumen-puntuetan.
- Sorbeltzen zentsoak.
- Hegazti urtarren zentsoak (txilinportak, anatidoak eta ralidoak).
- Zentso espezifikoak: ubarroi mottoduna, kaio iluna eta kaio hankahoria, lertxun hauskara, belatz handia, enara azpizuria.

(3) Ustekabeko aipamenak (presentziei buruzko informazioa osatzeko).

- Ornitho Euskadi atarian argitaratutako aipamenak (www.ornitho.eus) eta partikularrek Aranzadi Zientzia Elkarteari egindako jakinarazpenak.

Atlas honetarako bildu diren aipamen guztiak www.atlass.eus webgunean eta Ornitho Euskadi atarian kontsultatu daitezke.

Hegazti arrunten zentsoak

Zentso hauen helburua laginketa-unitate bakoitzean (500×500 m-ko laukiak) zegoen espezie-kopurua hautematea izan zen. Oro har, 16 lauki zentsatu gabe geratu ziren, udalerriaren azalera oso txikia zutelako (adibidez, itsasertzean kokatutako lauki batzuk, oso lur-azalera txikia zutenak) edo, kasu gutxi batzuetan gertatu zen bezala, eremura sartzea posible izan ez zelako (lursail pribatu jakin batzuen kasuan). Horrela, zentsatu zitezkeen laukien %95ean egin zen hegazti arrunten laginketa. Boluntarioek egin zituzten zentsoen kasuan, nabarmendu behar da, gainera, beharrezkotzat jo zenean adituen aholkularitza eta laguntza izan zutela.

Lauki bakoitza birritan lagindu zen: lehenengo zentsoa apirilaren 15etik maiatzaren 15era bitartean eta bigarrena maiatzaren 16etik ekainaren 15era bitartean. Zentso bakoitzean, behatzailea 15 minutuz ibili zen laukian zehar, hautemandako espezie guztien zerrenda eginez (ikusiak zein entzunak). Hau da, 30 min. lauki bakoitzeko, eta guztira 9.840 min. (164 h) lagindu ziren udalerri osoan. Lauki bakoitzera egindako bisita egun bakarrean burutu zen eta bi zentsoak urte berean osatu ziren.

Eremu bakoitzeko paisaiaren arabera, behatzaile bakoitzak zentsoa egiteko modua aukeratu zuen: trantsektuen bidez edo zentsatzeko hainbat puntu finko erabiliz. Trantsektuen kasuan, gutxi gorabehera 30 min/km-ko abiadura eta ibilbide zuzenak egitea gomendatu zen. Zentsoa egin baino lehen eremua begiratzeko eskatu zen, laginketa egunean ibilbidearen diseinuak sortu zitzakeen arazoak saihesteko. Basoaren eta guztiz hiritarra zen habitaten kasuan trantsektua aukeratzea gomendatu zen, eta leku irekietan, berriz, zentsatzeko puntu finkoak. Kasu bietan, zentsoa goizean goiz (egunsentitik lehenengo 4 orduetan) edo arratsaldearen amaieran (ilunabarra baino 2 ordu lehenago) egin zen. Egun euritsuak eta/edo haize zakarrak saihestu ziren, baita oso egun beroak ere. Eremu oso hiritarretan, jaiegun eta igande goizetan joateko ahalegina egin zen, zaratak saihesteko asmoz, horiek espezieen detektagarritasuna nabarmen zailtzen baitute.

Hautemandako espezie bakoitzerako 'atlas' kodea idatzi zen; hau da, hegaztiek zuten portaera-mota ugalketari dagokionez ('ugalketa-ebidentzia' gisa hartzen dira; xehetasun gehiagorako, ikusi 1. taula).

Hegazti gautarren zentsoak

Portaera gautarraren ondorioz, zatak edo gaueko harrapariak bezalako espezieak nekez hautematen dira eguneko hegazti arruntentzat ezartzen diren zentsoen bitartez. Muga hori gainditzeko, 2017an eta 2018an mota horretako espezieak detektatzeko zentsoak egin ziren.

2017an, urubiaren proiektu espezifiko baten testuinguruan, otsailean eta martxoko egun batzuetan, 500x500 m-ko lauki bakoitzean gutxienez zentso bat egin zen. Lauki bakoitzean laginketa-puntu finko bat aukeratu zen, ia beti honen erdian kokatzen zena. Laginketa, gaueko lehen orduetan egiten zen. 5 minutuz ale ar eta emeen kantuekin egindako apeu bat (grabazioa) aktibatzen zen eta, ondoren, 5 minutuko entzutea egiten zen. Azkenik, beste 5 minutu apeuarekin, guztira 15 minutuko zentsoa burutuz. Denbora horretan, hautemandako aleen gutxieneko kopurua eta presentzia idatzi ziren. Guztira, 240 lauki zentsatu ziren, hau da, udalerriko laukien %73 (329 lauki dira guztira). Zentsatu ez ziren lauki asko sarbide zaila zutelako baztertu ziren. Urubi-bikote baten lurraldeak 0,25 km^2-ko laginketa-unitatea soberan gainditzen duenez[2], egin ziren zentsoek ez dute populazioaren tamaina kalkulatzeko balio; bai, ordea, hauen presentzia zehazteko eta modelizatzeko.

Kodea	Azalpena
A1	Espeziea hautematea umatzeko habitat eta garai egokian.
A2	Arra kantari umatze-garaian.
B3	Bikotea hautematea umatzeko habitat eta garai egokian.
B4	Jokaera lurraldekoia, leku berean egun ezberdinetan behatua.
B5	Eztei-geldialdia, gorteiatzea.
B6	Umatzeko erabili daitekeen leku bat bisitatzen.
B7	Portaera aztoratua, habia bat dagoela iradokitzen duena.
B8	Emea/arra inkubatze-plakarekin.
B9	Habia eraikitzen.
C10	Harrapariak nahasteko jokabidea.
C11	Habia, aurten erabili dela erakusten duten aztarnekin.
C12	Txitak, oraindik ondo hegan egiten ez dakitenak.
C13	Habian hegaztia inkubatzen edo okupatuta baina ez da barrukoa ikusten.
C14	Janaria edo zirin-zakuak daramatzan heldua.
C15	Habia arrautzekin.
C16	Habia txitekin (ikusitakoak edo entzundakoak).

1. taula. Lauki bakoitzean espezieen ugalketaren ebidentzia-maila zehazteko erabilitako kodeak.

2018an, urtarriletik ekainera bitartean, gainerako hegazti gautarrak zentsatu ziren. Kasu honetan, 1×1 km-ko laukietan oinarritu zen laginketaren diseinua eta laukiak udalerriko habitat adierazgarrienak (hiria, basoa eta landazabala) ondo estaltzeko moduan aukeratu ziren. Horretarako, guztira 1×1 km-ko 48 lauki aukeratu ziren eta irizpide gisa hartu zen 5×5 km-ko UTM lauki guztietan lagintzea (2. irudia).

Lauki bakoitzean zentso-puntu bakarra aukeratu zen eta hilean behin bisitatu zen. Bisita bakoitzean, zentsoak 5 minutuko hiru zatitan banatu ziren, zentso bakoitzeko guztira 15 minutu izanik: hasteko 5 minutu isilik egon, ondoren apeu (grabazio) bat aktibatu zen 5 minutuz, eta azkenik beste 5 minutu isiltasunean. Zentsoak gauaren lehen orduetan egin ziren, eta hautemandako espezieak eta behatutako/entzundako indibiduoen gutxieneko kopurua jaso zen. Hilabetearekin batera bisita bakoitzean erabilitako apeua aldatu egin zen, kasu bakoitzerako erantzuteko probabilitatea handituz (2. taula).

Zentso kuantitatiboak entzumen-puntuetatik

Informazio kualitatiboa biltzearekin batera, atlas honek populazioen tamainak kalkulatzeko helburua ere bazuen. Hegazti arruntei dagokienez, entzumen-puntuen metodoa aukeratu zen.

Ikerketa batzuk heldu ugaltzaile bikoteetan zenbatesten dute ugaritasuna[1,3]; beste batzuk, ordea, banakoen kopurua kontuan hartuz egiten dute[4]. Ez zen erraza izan bi aukeren artean hautatzea, baina azkenean bigarrena aukeratzea erabaki zen. Bi izan ziren, batez ere, erabaki hori hartzeko arrazoiak. Lehenik eta behin, bikote-kopurua kalkulatu



2. irudia. Hegazti gautarrak zentsatzeko erabilitako 1x1 km-ko laukiak, urdinez markatuak.

Hilabeteak	Apeu-Espeziea
Urtarrila	Hontz handia
Martxoa	Hontz ertaina
Apirila	Hontz zuria
Maiatza	Apo-hontza
Ekaina	Mozoloa

2. taula. Gaueko harrapariak hautemateko erabilitako apeuen zerrenda (kantuen eta deien grabazioak).

ahal izateko, normalean, eremu jakin bateko (adibidez, 0,25 km^2-ko laukia) lurralde kopurua zenbatetsi behar da. Lurralde bat zehaztea ez da batere erraza, bereziki jarraitu beharreko aleek ez badute haiek identifikatzeko markarik (adibidez, eraztunak). Kasu gehienetan, behatzaileak ezin du guztiz ziurtatu zentso batean ikusitako alea (adib., ar bat pausaleku batean abesten) aurreko edo ondorengo laginketaren batean ikusitako bera dela. Oso litekeena da hala izatea, bai, baina ez dira beste aukera batzuk baztertu behar, hala nola (1) ale 'mugikorrak' egotea, hau da, bertan dauden helduak, baina lurralde bat ezartzera iristen ez direnak eta lurralde batetik bestera mugitzen egoten direnak[5,6] edo

(2) hutsik zegoen edo libre geratu den lurralde bat hartu dezaketen ale berriak (adib., aurretik zegoena harrapatu badute). Beraz, ugaritasuna neurtzeko unitatetzat lurraldea hartzen dugunean, inpli-zituki onartzen dugu hegazti habiagileen populazioa, gehienbat, lurraldea duten bikoteek osatzen dutela. Dena den, ale mugikor horiek osatzen duten proportzioa oso garrantzitsua izan daiteke (>%20)[5,7] eta, gainera, urte, eskualde edo espezieen artean aldatu daiteke[8]. Hegazti mugikor horiek eginkizun garrantzitsua bete dezakete ikuspuntu demografikotik; izan ere, ugalketan ere parte har dezakete bikotetik kanpoko aitatasun izeneko fenomeno baten bidez[9,10]. Hori alde batera utzita, lurralde-mapa gune batera behin eta berriz egindako bisitetan oinarritzen da. Bisita horien helburua hegaztien kokapen zehatza ezartzea da eta, ondoren, datu horiek erabiliz haien lurraldea kalkulatzea. Hau markatu gabeko hegaztiekin egitea zaila da, eta are zailagoa laginketa-kopurua txikia denean, sarritan ale jakin baten kokaleku asko behar izaten baitira (batzuetan 30 baino gehiago) bere lurraldea zehaztu ahal izateko[11,12]. Honi guztiari langile-kopuru mugatua eta lurraldeen laginketa egiteko epe laburra gehitu behar zaizkio. Horregatik, ugaritasunaren kalkulua ale helduen kopurutik abiatuta egitea erabaki zen, uste genuelako atlas honetarako aukerarik hoberena zela.

Guztira, 500×500 m-ko 37 laukitan (3. irudia) 214 entzumen-puntu ezarri ziren ausaz. Puntu horietatik, 25, 50 eta 75 m-ko erradioetan hautemandako espezie bakoitzaren ale



3. irudia. Entzumen-puntuen bidez hegazti arrunten ugaritasuna zenbatesteko erabilitako 500×500 m-ko laukiak, urdinez markatuak.

kopurua zenbatu zen (4. irudia). Erradio horiek GIS (Geografia-Informaziorako Sistema) erabiliz ezarri ziren. Ugaritasuna kalkulatzerako orduan, erradioak garrantzitsuak izan ziren, behatzailearenganako distantziaren arabera espezie bakoitza hautemateko proba-



4. irudia. Zentsatzeko puntu finkoen adibidea, 500×500 m-ko laukien barruan ezarriak, udalerriko lau habitat adierazgarritan: A) guztiz hiritarra, Erdialdean; B) hiritarra lorategiekin, Aieten.

bilitatea kontutan hartzeko. Entzumen-puntu bakoitzeko zentsoak 10 minutu iraun zuen. 500×500 m-ko laukien aukeraketa udalerriko habitaten irudikapen on bat izateko helburuarekin egin zen. Zentso kuantitatibo hauek Aranzadiko langileek egin zituzten.



4. irudia. C) basoa, Ulian; D) landazabala, Igeldon.

Sorbeltzen zentsoak

Sorbeltzen ugaritasuna zenbatesteko, haren biologian eta hazkuntza kolonialean oinarritutako metodo espezifiko bat jarraitu zen. Zehazki, www.commonswift.org webgunean deskribatutako metodoa aplikatu zen, Bartzelonako atlaseko zentsoetan ere erabili zena[1]. 500×500 m-ko lauki guztiak zentsatzea ezinezkoa zenez, horietako 45 zoriz aukeratu ziren, ondoren zentsoen emaitzak udalerri osora estrapolatzeko (5. irudia). Hala ere, ahalegina egin zen aukeratutako laukiek udalerriko habitatak ondo ordezkatu zitzaten. Lauki bakoitza 250×250 m-ko lau laukitan zatitu zen, eta lauki bakoitzaren erdian zentso-puntu bat ezarri zen, zentso-puntuen artean gutxienez 200 m-ko tartea gordetzen saiatuz. 2018ko ugalketa-garaian, maiatzaren 15etik ekainaren 15era bitartean, zentso-puntu bakoitza behin bakarrik bisitatu zen, 10 minutuz. Bertatik sorbeltzen kopurua zenbatu zen 3 aldiz, 5 minutuko tartea utziz zenbaketen artean (zenbaketa – tartea – zenbaketa – tartea – zenbaketa; guztira, 10 min.). Lauki bakoitzean egiten diren lau zentsoen baturak bertako populazioaren tamaina zenbatesteko balio du. Zentsoak goizean goiz (08:00etatik 10:00etara) edo arratsaldeko azken orduan (19:00-21:00) egin behar ziren. Ugalketa-portaera zuten sorbeltzak bakarrik zenbatu ziren (hegaldiak altuera baxuan, eraikinen inguruan elkarren atzetik zebiltzan taldeak eta erreklamoak igortzen zituztenak, etab.).

Hegazti urtarren zentsoak

2019ko apirila eta ekaina bitartean, honako protokolo hau erabili zen hegazti urtarrak zentsatzeko: (1) ibai-ibilguetan (Urumea, Munoko Erreka, Añorga Erreka eta Orian), trantsektu motako ibilaldiak egin ziren, ibaiertz osoan zehar hautemandako hegazti guztiak zenbatzeko; (2) sistema lentikoetan (putzuak, urmaelak, etab.), ur-gune osoa begiratu zen,



5. irudia. Sorbeltzak zentsatzeko erabilitako 500×500 m-ko laukiak, urdinez markatutak.

normalean zentso-puntu bakar batetik. Bi kasuetan, laginketa-unitate bakoitzeko gutxienez bi bisita egiten saiatu zen (bat eguneko), baina hau ez zen beti posible izan. Ibai-ibilguen kasuan, ibilbide bateko bidea behin bakarrik egin zen bisita bakoitzean, ibilguan zehar mugi zitezkeen hegaztiak behin eta berriz ez zenbatzeko.

Zentso espezifikoak

Goian azalduriko zentsoez gain, ugalketa koloniala duten espezieen (ubarroiak, kaioak eta lertxunak) eta belatz handiaren ugaritasuna zehazteko, hainbat erakundek egindako zentsoetako datu guztiak bildu ziren.

Iturriak:

- Ubarroi mottoduna. Itsas Enara Ornitologia Elkartea.
- Lertxun hauskara. Itsas Enara Ornitologia Elkartea eta SEO/BirdLife.
- Kaioak. Aranzadi Zientzia Elkartea. Kaio beltzaren kasuan, Santa Klara uharteko bikotearen jarraipena Itsas Enara Ornitologia Elkarteak egin zuen.
- Belatz handia. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Ornitho Euskadi atariaren bidez argitaratutako aipamenak eta beste aipamen batzuk

Ornitho Euskadi ataria (www.ornitho.eus) EAEn fauna-aipamenak jasotzeko erreferentziazko interneteko plataforma da. Gipuzkoan bakarrik, 60.000 aipamen baino gehiago erregistratzen dira urtero, eta horietako asko Donostian izaten dira. Aldi berean, proiektuko zentsoak garatu ziren bitartean, zenbait pertsona Aranzadirekin harremanetan jarri ziren, espezieen zerrendak edo udalerrian zoriz behaturiko espezie habiagileen informazioa emateko. Aipamen hauek datu gordinak erakusten dituen mapa (behaketen mapa) osatzeko erabili ziren. Kasu honetan, 2016 eta 2020 artean bildutako aipamenak hartu ziren kontuan.

Datuen bilketa eta baliozkotzea

Atlasa egiteko bildu diren datu guztiak Aranzadi Zientzia Elkarteak gorde, kudeatu eta zaindu ditu. Informazio guztia datu-base bakar batean bildu da, eta egon zitezkeen akatsak edo funtsik ez zuten behaketak ezabatzeko (adibidez, migratzen ari diren espezieak ez sartzeko), aipamen guztiak berrikusi ziren. Balioztatze hau adituen irizpideen arabera egin zen, udalerrian eta Gipuzkoan ugaltzen diren espezieen aurretiko ezagutza kontuan hartuta.

Mapak, ereduak eta ugaritasun-kalkuluak

Atlas honetan espezie bakoitzerako bi mapa-mota erakusten dira:

- Behaketen banaketa-mapa.
- Agerpen-probabilitate mapa.

Horrez gain, datu nahiko bildu ziren espezieen kasuan, hauen ugaritasuna zenbatetsi zen. Espezie ugarienetan gainera, habitat-motaren arabera hegaztien dentsitatea kalkulatu zen.

Behaketen banaketa-mapa

Mapa-mota hau atlaseko espezie guztietarako aurkeztu da eta espezie bat eremu horretan ugaldu izanaren seinaleekin antzeman den laukien kopurua erakusten du. Lehen mapa hau, beraz, oinarrizkoena da; lan hau egiteko erabilitako datu-iturri guztiak kontuan hartuz (2017tik 2020ra), soilik espeziea lauki bakoitzean aipatu den ala ez adierazten du.

Espezie askoren kasuan zaila da ugalketa ziurra izan den zehaztea (hau da, okupatutako habiak edo txitak bezalako ugalketa-seinaleak aurkitzea), eta horrek zaildu egiten du udalerrian ugaltzaile/ez-ugaltzaile gisa sailkatzea. Hau, bereziki, espezie batzuekin gertatzen da, gure inguruan ugaltzen diren aleak ('bertakoak') eta iparralderago beren umatze-eremuetara migrazio-bidean daudenak nahasten direnean. Hori dela eta, espezie bakoitzarentzat data bat ezarri zen eta data horretatik aurrera bere presentzia lurraldean ugaltzearekin bat etor zitekeen, ugalketa-fenologia dela eta. Hala ere, ale bat mapako lauki batean egoteak ez du esan nahi hegazti hori leku horretan ugaltzen denik. Hau sarritan gertatzen da; gehiago, gainera, lan honetan erabiltzen ditugun laukien tamaina kontuan hartzen badugu (hainbat espezietan, laukiak euren lurraldeak baino txikiagoak dira). Horrela, gerta daiteke A laukian behatzen den hegaztiak habia B laukian izatea. Erlazio positiboa dago espezie baten tamainaren eta haren erabilera-eremuaren artean; beraz, espezie bat 500×500 m-ko lauki batean behatzean, bere tamaina zenbat eta handiagoa izan, habia hor ez egoteko hainbat eta probabilitate handiagoa dagoela onartzen dugu. Ugalketa gertatu zen laukiak eta espeziea ugalketa-garaian hautemandako (baina ugalketa ziurtatu gabe) laukiak bereizteko, 'atlas kodea' izeneko datuak erabiltzen ditugu (1. taula). Atlas honetan kontuan hartutako gutxieneko ugalketa-ebidentziak Bartzelonako atlaserako ezarri ziren irizpideetan oinarritzen dira[1] (irizpide horiek 3. taulan adierazi dira). Ebidentzia horiek bi irizpide osagarritan oinarritzen dira: (1) espezie bakoitzean ugalketa-seinale argiak (portaerak) behatzeko probabilitatea, eta (2) seinale horiek lauki horretan habia egotearekin lotu ahal izateko probabilitatea.

Laukiaren tamainari dagokionez, 1x1 km-ko laukiak ezarri ziren irizpide estandar gisa, 500x500 m-ko laukiak espezie batzuetan negatibo faltsuak erakusteko arriskua baitu; hau da, espeziea bertan dago baino ez da antzematen. Arazo hau 1x1 km-ko laukiak erabiliz konpontzen da. 500x500 m-ko laginketa-eskala ereduetarako erabiltzen da.

Ondorioz, behaketen banaketa-mapan, atlasaren zentsoak garatu ziren aldian lortutako aipamen guztiak biltzen dira. Horregatik, hegazti arrunten zentso estandarizatuetatik lorturiko datuak ez ezik, beste iturri batzuetatik datozen gainerako aipamenak ere sartzen dira (xehetasun gehiagorako ikusi goian). Ondorioz, behaketen mapak Donostiako hegazti habiagileen banaketari buruz gaur egun dugun ezagutza guztia biltzen du. Dena den, kontuan hartu behar da laginketa-ahalegina aldatu egiten dela laukien artean; beraz, horien arteko aldeak ez dira nahitaez espezieen banaketan dauden benetako desberdintasunen ondorio: espezieak hautematea (batez ere arraroak) laginketa-ahaleginarekin hertsiki lotuta dago[13,14]. Hala ere, lauki bakoitzeko informazio ornitologikoa eskuratzen emandako denbora nahikoa izan dela deritzogu espezie gehienen presentzia probabilitate handiz ezartzeko, kontuan hartuta haien ugaritasunaren, erabilera-eremuen eta laukien azaleraren arteko elkarrekintza.

3. taula. Ugalketa probabletzat edo segurutzat hartzeko gutxieneko kodea (erreferentzia, 1. taula). Gutxieneko kode horretatik beherako balioek espeziearen ugalketa posiblea adieraziko lukete laukian. Lauki batean ugalketa probablearen edo seguruaren ebidentziarik aurkitu ez izanak, ez du esan nahi espeziea bertan ugaldu ez denik; aitzitik, adierazten du atlasaren landa-lanean zehar ez zirela ugalketa-zeinu horiek aurkitu.

Izena	Gutxieneko kodea
Basahatea (*Anas platyrhynchos*)	Habia eraikitzen (B9)
Txilinporta txikia (*Tachybaptus ruficollis*)	Habia eraikitzen (B9)
Lertxun hauskara (*Ardea cinerea)*	Habia eraikitzen (B9)
Ubarroi mottoduna (*Phalacrocorax aristotelis*)	Habia eraikitzen (B9)
Zapelatz liztorjalea (*Pernis apivorus*)	Eztei-geldialdia, gorteiatzea (B5)
Arrano txikia (*Hieraaetus pennatus*)	Eztei-geldialdia, gorteiatzea (B5)
Gabirai arrunta (*Accipiter nisus*)	Eztei-geldialdia, gorteiatzea (B5)
Aztore arrunta (*Accipiter gentilis*)	Eztei-geldialdia, gorteiatzea (B5)
Miru gorria (*Milvus milvus*)	Eztei-geldialdia, gorteiatzea (B5)
Miru beltza (*Milvus migrans*)	Eztei-geldialdia, gorteiatzea (B5)
Zapelatz arrunta (*Buteo buteo*)	Eztei-geldialdia, gorteiatzea (B5)
Uroiloa (*Gallinula chloropus*)	Habia eraikitzen (B9)
Kopetazuri arrunta (*Fulica atra*)	Habia eraikitzen (B9)
Txirritxo txikia (*Charadrius dubius*)	Lurralde iraunkorra (B4)
Kaio beltza (*Larus marinus*)	Habia eraikitzen (B9)
Kaio hankahoria (*Larus michahellis*)	Habia eraikitzen (B9)
Kaio iluna (*Larus fuscus*)	Habia eraikitzen (B9)
Etxe-usoa (*Columba livia f. domestica*)	Umatzeko garai eta habitat egokian (A1)
Pagausoa (*Columba palumbus*)	Umatzeko garai eta habitat egokian (A1)
Usapala (*Streptopelia turtur*)	Lurralde iraunkorra (B4)
Usapal turkiarra (*Streptopelia decaocto*)	Umatzeko garai eta habitat egokian (A1)
Kukua (*Cuculus canorus)*	Arra kantari (A2)
Hontz zuria (*Tyto alba*)	Arra kantari (A2)
Apo-hontza (*Otus scops*)	Arra kantari (A2)
Hontz handia (*Bubo bubo*)	Arra kantari (A2)
Urubia (*Strix aluco*)	Arra kantari (A2)
Mozoloa (*Athene noctua*)	Arra kantari (A2)
Hontz ertaina (*Asio otus*)	Arra kantari (A2)
Zata arrunta (*Caprimulgus europaeus*)	Arra kantari (A2)
Sorbeltz arrunta (*Apus apus*)	Umatzeko erabili daitekeen leku batera sartzen (B6)
Lepitzulia (*Jynx torquilla*)	Lurralde iraunkorra (B4)
Okil handia (*Dendrocopos major*)	Arra kantari (A2)
Okil txikia (*Dryobates minor*)	Arra kantari (A2)
Okil beltza (*Dryocopus martius*)	Arra kantari (A2)
Okil berdea (*Picus sharpei*)	Arra kantari (A2)
Belatz gorria (*Falco tinnunculus*)	Eztei-geldialdia, gorteiatzea (B5)
Zuhaitz-belatza (*Falco subbuteo*)	Eztei-geldialdia, gorteiatzea (B5)

Izena	Gutxieneko kodea
Belatz handia (*Falco peregrinus*)	Eztei-geldialdia, gorteiatzea (B5)
Antzandobi arrunta (*Lanius collurio*)	Lurralde iraunkorra (B4)
Eskinosoa (*Garrulus glandarius*)	Umatzeko garai eta habitat egokian (A1)
Mika (*Pica pica*)	Umatzeko garai eta habitat egokian (A1)
Belabeltza (*Corvus corone*)	Habia eraikitzen (B9)
Erroia (*Corvus corax*)	Habia eraikitzen (B9)
Pinu-kaskabeltza (*Periparus ater*)	Umatzeko garai eta habitat egokian (A1)
Amilotx mottoduna (*Lophophanes cristatus*)	Umatzeko garai eta habitat egokian (A1)
Kaskabeltz txikia (*Poecile palustris*)	Umatzeko garai eta habitat egokian (A1)
Amilotx urdina (*Cyanistes caeruleus*)	Umatzeko garai eta habitat egokian (A1)
Kaskabeltz handia (*Parus major*)	Umatzeko garai eta habitat egokian (A1)
Uhalde-enara (*Riparia riparia*)	Habia eraikitzen (B9)
Enara arrunta (*Hirundo rustica*)	Habia eraikitzen (B9)
Enara azpizuria (*Delichon urbicum*)	Habia eraikitzen (B9)
Errekatxindorra (*Cettia cetti*)	Arra kantari (A2)
Buztanluzea (*Aegithalos caudatus*)	Umatzeko garai eta habitat egokian (A1)
Txio arrunta/iberiarra (*Phylloscopus collybita/ibericus*)	Arra kantari (A2)
Lezkari arrunta (*Acrocephalus scirpaceus*)	Lurralde iraunkorra (B4)
Sasi-txori arrunta (*Hippolais polyglotta*)	Arra kantari (A2)
Benarriz nabarra (*Locustella naevia*)	Lurralde iraunkorra (B4)
Ihi-txoria (*Cisticola juncidis*)	Arra kantari (A2)
Txinbo kaskabeltza (*Sylvia atricapilla*)	Arra kantari (A2)
Baso-txinboa (*Sylvia borin*)	Lurralde iraunkorra (B4)
Etze-txinboa (*Sylvia undata*)	Arra kantari (A2)
Txinbo burubeltza (*Sylvia melanocephala*)	Arra kantari (A2)
Erregetxo bekainzuria (*Regulus ignicapilla*)	Arra kantari (A2)
Txepetxa (*Troglodytes troglodytes*)	Arra kantari (A2)
Garrapoa (*Sitta europea*)	Arra kantari (A2)
Gerri-txori arrunta (*Certhia brachydactyla*)	Arra kantari (A2)
Arabazozo pikarta (*Sturnus vulgaris*)	Arra kantari (A2)
Zozo arrunta (*Turdus merula*)	Arra kantari (A2)
Birigarro arrunta (*Turdus philomelos*)	Arra kantari (A2)
Euli-txori grisa (*Muscicapa striata*)	Lurralde iraunkorra (B4)
Txantxangorria (*Erithacus rubecula*)	Arra kantari (A2)
Buztangorri iluna (*Phoenicurus ochruros*)	Arra kantari (A2)
Pitxartxar burubeltza (*Saxicola rubicola*)	Arra kantari (A2)
Ur-zozoa (*Cinclus cinclus*)	Arra kantari (A2)
Etxe-txolarrea (*Passer domesticus*)	Umatzeko garai eta habitat egokian (A1)
Landa-txolarrea (*Passer montanus*)	Umatzeko garai eta habitat egokian (A1)

Izena	Gutxieneko kodea
Tuntun arrunta (*Prunella modularis*)	Arra kantari (A2)
Buztanikara horia (*Motacilla cinerea*)	Arra kantari (A2)
Buztanikara zuria (*Motacilla alba*)	Arra kantari (A2)
Uda-txirta (*Anthus trivialis*)	Lurralde iraunkorra (B4)
Txonta arrunta (*Fringilla coelebs*)	Arra kantari (A2)
Gailupa (*Pyrrhula pyrrhula*)	Arra kantari (A2)
Txorru arrunta (*Chloris chloris*)	Arra kantari (A2)
Txoka arrunta (*Linaria cannabina*)	Arra kantari (A2)
Karnaba (*Carduelis carduelis*)	Arra kantari (A2)
Txirriskil arrunta (*Serinus serinus*)	Arra kantari (A2)
Berdantza horia (*Emberiza citrinella*)	Arra kantari (A2)
Mendi-berdantza (*Emberiza cia*)	Arra kantari (A2)
Hesi-berdantza (*Emberiza cirlus*)	Arra kantari (A2)
Japoniako urretxindorra (*Leiothrix lutea*)	Lurralde iraunkorra (B4)

Gutxieneko ebidentziaren justifikazioa.

(1) **Umatzeko garai eta habitat egokian hautemandako espeziea**. Espezie sedentarioei ezarritako irizpidea.

(2) **Arra kantari.** Sedentarioak edo udakoak diren espezie arruntei ezarritako irizpidea. Espezie hauen kasuan, umatzeko garai eta habitat egokian hautematea ez da irizpide nahikoa espezie hori inguru horretan ugaltzen dela esateko, baina arra kantari egoteak bai adierazten duela probabilitate oso handiarekin bertan lurralde bat dagoela. Irizpide hau gaueko harrapariei ere ezartzen zaie.

(3) **Lurralde iraunkorra.** Bertan ugaltzen direla onartu ahal izateko, portaera lurraldekoia hautematea komeni den espezieei ezarritako irizpidea. Batez ere, paseriformeak ez diren hainbat espezieri eta paseriforme transahararrei ezartzen zaie; espezie hauetan gainezarpen bat egoten da dagoeneko ugalketa-gunean kokatu diren hegaztien eta Europa iparralderantz migrazioan daudenen artean. Espezie hauetan, ez da harritzekoa arrek kantatzea oraindik migrazioan daudenean; beraz, kantatzen ari den ale bat ez da irizpide nahikoa inguru horretan ugalketa segurua edo oso probablea dela esateko.

La tendencia de la población en Europa es fluctuante[24]. En Euskadi está catalogada como 'Rara'. Población poco conocida para el conjunto del territorio que, en el caso de Bizkaia, aumentó durante ca. 20 años (década de 1980 a 2000)[34]. Posteriormente, su tendencia no ha sido inferida. Entre los factores que amenazan a esta especie está la destrucción del hábitat así como la caza ilegal y la colisión con tendidos eléctricos. La preservación de árboles grandes en bosquetes así como del paisaje de campiña son dos medidas que pueden promover la conservación de esta águila en S. Sebastián.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Gabirai arrunta / Gavilán común

Accipiter nisus

Ekologia eta banaketa

Basoko harraparia. Lauki gutxi batzuetan aipatzen da, guztiak ere basokoak: Ametzagaina parkea, Igeldo, Oberan eta Landarbaso (1. mapa). Bere banaketa-eremua lan honetarako bildutakoa baino zabalagoa da ziurrenik, izan ere, detektagarritasun txikia duen espeziea da. Hala, behar besteko tamaina duten basomasak dauden eremu guztietan umatu ahalko litzateke, hostoerorkorreko basoak zein pinu-landaketak izan[32]. Horrek Igeldo-Ibaeta-Añorga korridorea, Ulia, Landarbaso edo Zubieta bezalako eremuak hartuko lituzke.

Populazioa

Baso-inguruneei lotutako beste harrapari batzuekin gertatzen den bezala, espezie hau ez da ondo ezagutzen, ez baita zentso espezifikorik garatu hau antzemateko. Gainera, oso nabarmena ez den harraparia da, batez ere umatze-garaian. Atlas honen ikerketa-garaian zehar ez zen habia edo txita hegalaririk ikusi, eta, beraz, Donostian habia egitea litekeena da baina ez dago baieztatuta. Elkarrengandik oso urrun dauden lau laukitan agertzeak gutxienez 4 lurralde daudela pentsatzea ahalbidetuko luke.

Kontserbazioa

Europan gainbeheran dagoen espeziea da[24]. Euskadin joera ezezaguna da; Bizkaian gorakada handia izan zen 20 urte inguruko denboraldian (1980tik 2000ra bitarteko hamarkadetan)[34]. Ondoren, haren joera ez da aztertu. Gaur egun, itxuraz, espezie honek ez du kontserbaziorako mehatxu larririk. Donostian, espeziearen babesa bermatzeko garrantzitsua da basomasaren kontserbazioa, bai hiritik kanpo zein udalerriko parke handietan. Ezkutuko ehiza ere arazo bat da probintzia mailan[27].

Ecología y distribución

Rapaz forestal. Se cita en un escaso número de celdas, todas ellas boscosas: parque de Ametzagaina, Igeldo, Oberan y Landarbaso (Mapa 1). Su área de distribución es, probablemente, más extensa que lo recopilado para esta obra, dada su baja detectabilidad. Así, podría criar en todas aquellas zonas donde existan masas forestales de suficiente tamaño, sean bosques de caducifolios o plantaciones de pino[32]. Esto englobaría zonas tales como el corredor Igeldo-Ibaeta-Añorga, Ulia, Landarbaso o Zubieta.

Población

Al igual que con otras rapaces ligadas a medios forestales, es una especie mal conocida, ya que no se han desarrollado censos específicos para su detección. Además, es una rapaz que pasa muy desapercibida, particularmente en época de cría. Durante el periodo de estudio de este atlas no se llegó a observar ningún nido o pollos volantones, por lo que su nidificación en S. Sebastián es probable, pero no está confirmada. Su presencia en cuatro celdas muy alejadas entre sí permitiría considerar la existencia de un mínimo de 4 territorios.

Conservación

Especie en declive en Europa[24]. Tendencia desconocida para Euskadi; en Bizkaia se registró un aumento fuerte durante un periodo de ca. 20 años (década de 1980 a 2000)[34]. Posteriormente, su tendencia no ha sido inferida. En la actualidad se trata de una especie que, aparentemente, no presenta amenazas graves para su conservación. En S. Sebastián, la conservación de la masa forestal, tanto en zonas no urbanas como en los grandes parques del municipio, es importante para garantizar la preservación de la especie. El furtivismo es, asimismo, un problema a escala provincial[27].

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Aztore arrunta / Azor común

Accipiter gentilis

Ekologia eta banaketa

Basoko harraparia. Bere banaketa Donostian gutxi ezagutzen da, gertuko senidea den gabiraiaren kasuan bezala. Bi laukitan baino ez da aipatzen, Amara/Aieten eta Urumea ibaiaren korridorean, Martutene parean (1. mapa). Behaketak biak 2020ko apirilekoak dira; ale bat Martutene auzoaren gainetik hegan egin ondoren Ametzagainara joan zen; beste ale bat Puio gainetik ibili zen hegan. Donostiako banaketa-eremua lan honetarako bildutakoa baino zabalagoa da ziurrenik, detektagarritasun txikia duen espeziea baita. Oso litekeena da tamaina jakin bateko baso-masak dauden hainbat eremutan egotea[32], hala nola Ulia, Igeldo, Oberan, Landarbaso edo Zubietan.

Populazioa

Baso-inguruneei lotutako beste harrapari batzuekin gertatzen den bezala, espezie hau ez da ondo ezagutzen. Atlas honen ikerketa-garaian zehar ez zen habia edo txita hegalaririk ikusi, ezta gorteatzerik edo ugalketa probablearen zantzurik ere; beraz, Donostian habia egitea posible litzateke eta, gutxienez, lurralde bat dagoela iradokitzen da.

Kontserbazioa

Europan gainbeheran dagoen harraparia[24]. Euskadin 'Bakan' gisa katalogatuta dago. Lurralde osoko populazioa gutxi ezagutzen da, Bizkaian 20 urte inguruko tartean hazi egin zelarik (1980tik 2000ra bitarteko hamarkadetan)[34]. Geroago, haren joera ez da aztertu. Donostian litekeena da behatutakoa baino ugariagoa izatea. Udalerri mailan izan ditzakeen mehatxuen artean daude legez kanpoko ehiza[27], habitataren galera, linea elektrikoekin talka egitea, gaixotasunen transmisioa (etxe-usoez elikatzen diren indibiduoen kasuan) eta nekazaritza- eta basozaintza-inguruneetan harrapakinak murriztea.

Ecología y distribución

Rapaz forestal, cuya distribución es, como en su pariente cercano el gavilán, poco conocida en S. Sebastián. Se cita en tan solo dos celdas, en Amara/Aiete y el corredor del río Urumea a la altura de Martutene (Mapa 1). Ambas citas de abril de 2020; un ejemplar sobrevuela el barrio de Martutene y se dirige, posteriormente, a Ametzagaina; otro ejemplar vuela sobre Puio. Su área de distribución en S. Sebastián es, probablemente, más extensa que lo recopilado para esta obra dada su baja detectabilidad. Es muy posible que esté presente en varias zonas donde existan masas forestales de cierto tamaño[32], como Ulia, Igeldo, Oberan, Landarbaso o Zubieta.

Población

Al igual que con otras rapaces ligadas a medios forestales, es una especie mal conocida. Durante el periodo de estudio de este atlas no se llegó a observar ningún nido o pollos volantones, tampoco cortejo o indicios de reproducción probable, por lo que su nidificación en S. Sebastián es posible y se sugiere la existencia de, como mínimo, un territorio.

Conservación

Rapaz en declive en Europa[24]. En Euskadi está catalogada como 'Rara'. Población poco conocida para el conjunto del territorio que sí aumentó durante un periodo de ca. 20 años en Bizkaia (década de 1980 a 2000)[34]. Posteriormente, su tendencia no ha sido inferida. En S. Sebastián es muy posible que sea más abundante que lo observado. Entre las amenazas que puede tener a nivel local están la caza ilegal[27], pérdida de hábitat, colisión con tendidos eléctricos, transmisión de enfermedades (en el caso de los individuos que se alimentan de paloma doméstica) y reducción de presas en medios agro-forestales.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Miru gorria / Milano real

Milvus milvus

Ekologia eta banaketa

Eremu irekietako zuhaiztietan umatzen den harraparia da eta elikagaia ere bertan bilatzen du[32,36]. Donostian landazabaleko paisaiarekin lotzen da, udalerriaren ekialdeko aldeetan, batez ere Altza eta Martutene auzoetan, Errenteria edo Astigarragarekin muga egiten duten puntuetan, baita Oberan inguruko lauki batean ere (1. mapa).

Populazioa

Atlasaren zentso-garaian habia bat erregistratu zen (2017) Errenterian, Donostiako udalerriaren alboko eremu batean. Bikote horrek Altza auzoko landazabalak erabiltzen zituen. Gainera, azken urteetan espeziea Txoritokietan ere aipatu izan da; oso litekeena da habia Astigarragan egotea, edo agian aurretik aipatutako bikotea izatea (ez da bere erabilera-eremua ezagutzen). Horrela, gutxienez bikote seguru bat egongo litzateke Martutenetik Altzara doazen landazabaletan, eta beste bikote posible bat Oberanen.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera beheranzkoa da[24]. 'Galzorian' kategorian katalogatua dago, bai estatu mailan[31] zein Euskadin. Gipuzkoako populazioaren kontserbazio-egoera hobea dela dirudi, baina, nolanahi ere, oso hegazti urria da ugaltzaile gisa[37]. Mehatxatzen duten arazoen artean daude jaki pozoituak eta errodentizidak irenstea, habitataren galera, linea elektrikoekin talka egitea eta elektrokuzioa, baserrietako eta landa-inguruneko kudeaketa-ereduaren aldaketak eta ezkutuko ehiza[38,39]. Gipuzkoan, intsinis pinuaren landaketen hondatzeak umatze-eremuen galera dakar[40]. Udalerri mailan, hiri-inguruko landazabala kontserbatzea funtsezkoa da espezie honentzat.

Ecología y distribución

Rapaz que cría en zonas arboladas junto a espacios abiertos, donde busca alimento[32,36]. En S. Sebastián se asocia al paisaje de campiña, en sectores del este del municipio, fundamentalmente en el barrio de Alza y Martutene, en puntos limítrofes a Errenteria o Astigarraga, así como una de las celdas de la zona de Oberan (Mapa 1).

Población

Durante el periodo de censo del atlas se registró un nido (2017) en Errenteria, en un área colindante al municipio de S. Sebastián. Esa pareja campeaba en las campiñas del barrio de Alza. Además, durante los últimos años la especie también se cita en Txoritokieta; es muy probable que el nido se localice en Astigarraga, o que tal vez sea la pareja anteriormente citada (no se conoce su área de campeo). Así, como mínimo habría una pareja segura en las campiñas que se extienden desde Martutene hacia Alza, además de otra en Oberan (posible).

Conservación

La tendencia de la población en Europa es a la baja[24]. Catalogada 'En Peligro', tanto a nivel estatal[31] como en Euskadi. Su población en Gipuzkoa parece estar en mejor estado de conservación si bien es, en todo caso, un ave muy escasa como reproductora[37]. Entre los problemas que la amenazan están la ingestión de cebos envenenados y rodenticidas, pérdida de hábitat, colisión con tendidos y electrocución, los cambios del modelo de gestión en granjas y el medio rural y el furtivismo[38,39]. En Gipuzkoa, el deterioro de plantaciones de pino de Monterrey acarrea la pérdida de zonas de cría[40]. A nivel local, la conservación de la campiña del entorno periurbano es clave para esta especie.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Miru beltza / Milano negro

Milvus migrans

Ekologia eta banaketa

Baso-ingurune irekiei lotutako espeziea[32]. Donostiaren kasuan, hiri-inguruko landazabaletan ikusten den harraparia da. Udalerriko ekialdeko hainbat laukitan aipatzen da, batez ere Martutene eta Altza auzoen artean, baita mendebaldeko zenbaitetan ere (Igeldo inguruko mendiak) (1. mapa).

Populazioa

Gutxi ezagutzen den espeziea da, ez baita zentso espezifikorik egin hau hautemateko. Atlas honen ikerketa-garaian zehar ez zen habia edo txita hegalaririk ikusi, eta, beraz, ez da baieztatu Donostian habia egiten duenik. Hala ere, umatzeko egokiak diren eremuetan aleak behin eta berriz agertu izanak ugalketa probablea iradokitzen du; udalerrian gutxienez 2 bikote egongo lirateke.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera zalantzazkoa da[24]; Euskadin goranzkoa (1998-2019 aldian)[25]. Hala ere, urria da udalerri mailan. Habia egiteko zuhaiztiak behar ditu. Landazabaleko eremuetan eta ibaiertzeko basoetan zuhaitz handi eta helduen eremuak kontserbatzea funtsezkoa da espezie honentzat.

Ecología y distribución

Especie asociada a medios forestales abiertos[32]. En el caso de S. Sebastián es una rapaz que se observa en las campiñas del cinturón periurbano. Se cita en varias celdas del este del municipio, principalmente desde Martutene hacia el barrio de Alza, así como del oeste (estribaciones de Igeldo) (Mapa 1).

Población

Especie poco conocida, puesto que no se han desarrollado censos específicos para su detección. Durante el periodo de estudio de este atlas no se llegó a observar ningún nido o pollos volantones, por lo que su nidificación en S. Sebastián no está confirmada. No obstante, la presencia reiterada de ejemplares en zonas aptas para la cría apunta a su reproducción probable; al menos habría un mínimo de 2 pp. en el municipio.

Conservación

La tendencia de la población en Europa es incierta[24]; en aumento en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. Escasa, no obstante, a nivel local. Para reproducirse, necesita zonas arboladas donde instalar su nido. La conservación de parches de arbolado grande y maduro en áreas de campiña y bosques de ribera es clave para esta especie.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Zapelatz arrunta / Busardo ratonero

Buteo buteo

Ekologia eta banaketa

Donostiako harraparirik ohikoena da. Habia egiteko basoak behar ditu, baina eremu irekietan ehizatzen du[32]. Ohikoa da zelai eta errepideen gaineko zutoin eta kableetan ikustea karraskarien edo bestelako harrapakinen bila. Lauki askotan aipatzen den espezia da (1. mapa). Lauki batzuetan behaketarik ez egotea hein batean laginketa desegoki baten ondorio izan daiteke. Litekeena da espeziea lauki batzuetan bakarrik ugaltzea, baina bere erabilera-eremuak lauki askoz gehiago hartuko lituzke.

Populazioa

Banaketa zabala duen arren, gutxi ezagutzen den espeziea da. Udalerriko erabilera-eremua ez ezagutzeak zaildu egiten du populazioaren tamaina kalkulatzea. Penintsula mailan, batez besteko dentsitatea 0,2 eta 4,5 bikote /10 km^2-koa da[33]; Bizkaian, aldiz, 4,5 bikote/10 km^2-koa[41]. Balio hau espeziea aipatu den laukietara estrapolatuz, udalerri osoan 26 bikote egongo liratekeela kalkulatzen da. Penintsulako batezbestekoa onartuz gero (0,8 bikote/10 km^2)[33], zenbatetsitako balioa 5 bikote ingurukoa litzateke. Azken kalkulu hau baztertu egin daiteke, oso txikia delako; beraz, pentsatu daiteke zapelatz arruntaren populazioa gutxienez 10-30 bikotekoa dela.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera egonkorra da[24]; Euskadin gainbeheran (aldia: 1998-2019)[25].Oso bestelakoa da Bizkairako lortutako datua; bertan goranzko joera erregistratu zen 1980 eta 2000ko hamarkaden artean[34]. Donostian oso harrapari ugaria da, itxuraz kontserbazio-arazo larririk gabekoa. Gipuzkoan ezkutuko ehizaren ondorioz gehien hiltzen den espezieetako bat da[27]. Beste kontserbazio-arazo batzuk hauek izan daitezke: kotxeekin zein linea elektrikoekin talka egitea, habitataren suntsipena, errodentiziden erabilera eta umatze-garaian eragozpenak sortzea.

Ecología y distribución

Es la rapaz más común de S. Sebastián. Necesita de masas forestales donde ubicar el nido, si bien caza en espacios abiertos[32]. Es habitual verlo buscando roedores u otro tipo de presas posado en postes y cables sobre prados y carreteras. La especie se observa en un gran número de celdas (Mapa 1). Es muy probable que la ausencia de citas en varias celdas se deba, parcialmente, a un muestreo deficiente. Aunque la especie solo criaría en algunas celdas, utilizaría muchas otras como área de campeo.

Población

Aunque bien distribuida, es una especie mal conocida. El desconocimiento sobre las áreas de campeo en el término municipal dificulta estimar el tamaño de su población. A escala peninsular, la densidad media oscila entre 0,2 y 4,5 pp./10 km^2[33]. En Bizkaia, la media se sitúa en 4,5 pp./10 km^2[41]; extrapolando dicho valor a las celdas en las que la especie se ha citado, se estimarían 26 pp. en todo el municipio. Si asumimos la media a nivel peninsular (0,8 pp./10 km^2)[33], el valor estimado sería de unas 5 pp. Esta última estima es descartable, por ser muy baja, por lo que cabe considerar que la población de busardo ratonero estaría como mínimo en un rango de 10 a 30 pp.

Conservación

Poblaciones estables en Europa[24]; en declive en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25], lo que contrasta con la tendencia al alza registrada para Bizkaia de la década de 1980 a la de 2000[34]. En S. Sebastián es una rapaz muy abundante sin, aparentemente, problemas de conservación graves. Entre las amenazas que puede haber a nivel local cabría citar el furtivismo, pues la especie es una de las más abatidas por caza ilegal en Gipuzkoa[27]. Otros problemas de conservación pueden ser los atropellos, colisión con tendidos, destrucción de hábitat, empleo de rodenticidas, así como las molestias durante el periodo de cría.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Uroiloa / Gallineta común

Gallinula chloropus

Ekologia eta banaketa

Ia era guztietako ur-masetan umatzen da, baita kontserbazio-egoera txarrean daudenetan ere[32]. Ur ertzean zingira-landaredia behar du, bertan kokatzen baitu ur gaineko habia. Donostian, Urumea ibaiarekin bat egiten duten lauki gehienetan aipatzen da (Riberatik Martuteneraino), baita Ibaeta (Igara), Altza (Molinao), Basozabalgo Golfeko putzuak, Oria behealdea (Zubieta) eta Arriuzturra hezegunean (Landarbaso) ere (1. mapa).

Populazioa

Udalerrian espeziearen populazioa gutxienez 20 bikotekoa dela kalkulatzen da, eta horietatik gehienak Urumea ibaiaren arroan daude. Laginketa-ahalegina nahiko txikia izan denez, baliteke beste eremu batzuetako ugaritasuna gutxietsi izana.

Kontserbazioa

Populazioa egonkorra da Europan[24]. Euskadiko populazioaren joera ezezaguna da. Udalerri mailan, ibaien eta erreken bideratzea eta habitataren aldaketa dira espeziearen kontserbaziorako mehatxu nagusiak. Testuinguru honetan, ibai eta erreken ibaiertzeko landaredia, ahal den neurrian, errespetatzea edo berreskuratzea gomendatzen da. Ur-putzuen kasuan, ertzetan zingira-landaredia (lezkadia, zintabelarra) landatzea gomendatzen da. Era berean, txakurren sarrera ekiditea garrantzitsua da, umatze-garaian arrautzak, txitak edota helduak harrapatuz gero arazo iturri bihurtu daitezke eta; baita helduek habia bertan behera uzterainoko enbarazu eginez ere.

Ecología y distribución

Cría en prácticamente todo tipo de masas de agua, incluso en un estado de conservación desfavorable[32]. Necesita vegetación palustre en la orilla, donde ubica su nido flotante. En S. Sebastián se cita en la mayoría de las celdas que coinciden con el río Urumea (desde Riberas hasta Martutene), así como en Ibaeta (Igara), Alza (Molinao), las balsas del Golf de Basozabal, el bajo Oria (Zubieta) y el humedal de Arriuzturra (Landarbaso) (Mapa 1).

Población

La población de la especie en el municipio se estima en un mínimo de 20 pp., de las que la mayor parte se localiza en la cuenca del río Urumea, aunque es muy posible que su abundancia en otras zonas haya sido subestimada debido a un esfuerzo de muestreo relativamente bajo.

Conservación

Poblaciones estables en Europa[24]. La tendencia de la población en Euskadi es desconocida. A nivel local, el encauzamiento de ríos y regatas y la alteración del hábitat son la principal amenaza para su conservación. En este contexto, se recomienda respetar y restaurar la vegetación ribereña de ríos y regatas en la medida de lo posible. En el caso de balsas de agua, cabe recomendar la plantación de vegetación palustre (carrizal, espadaña…) en las orillas. Asimismo, es importante evitar el acceso a perros, que pueden ser un problema durante el periodo de nidificación si depredan sobre huevos o pollos o incluso adultos o crean molestias hasta el punto de provocar el abandono de la puesta.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Kopetazuri arrunta / Focha común

Fulica atra

Ekologia eta banaketa
Hegazti urtarra, baldintza ezberdinetara erraz moldatzen dena. Ur bareko guneetan umatzen da, hala nola aintziretan, urtegietan, urmaeletan edo paduretan[32]. Ur-ertzeko landaretza zingiratsua behar du, habia ezkutatzeko erabiltzen duena. Donostiako kasuan, Basozabalgo "Real Nuevo Club de Golf"-eko urmaeletan bakarrik egiten du habia (1. mapa).

Populazioa
Kopetazuri arruntaren populazioa Donostian 4 bikotek osatzen dute bakarrik. Gipuzkoan, 2005-2017 aldian, populazioa batez beste 45 bikotekoa zela zenbatetsi zen; beraz, Donostian ugaltzen diren bikoteak probintziako populazioaren %10 baino gutxiago dira.

Kontserbazioa
Europan gainbeheran dagoen espeziea da[24]; Euskadin ez da espezie honen joera aztertu. Gipuzkoan gora egin du, batez ere Txingudin eta beste hezegune batzuetan berreskuratu egin delako[42]. Urria da eta, beraz, oso kaltebera udalerri mailan. Basozabalgo "Real Nuevo Club"-eko urmaeletan dagoen lasaitasuna izan da, ziur asko, udalerrian egoteko baldintza erabakigarria. Testuinguru honetan, ez da kontserbazio-neurri gehigarririk hartzea gomendatzen, urmaelak orain dauden bezala mantendu eta ertzeko zingira-landaredia errespetatu edo bultzatzeaz gain. Beste eremu batzuetan urmael berriak sortzeak hauen kolonizazioa ekar dezake, horrela udalerrian espeziearen ugalketa finkatuz.

Ecología y distribución
Ave acuática, poco exigente, cría en cuerpos de agua remansada, tales como lagos, embalses, balsas, marismas, etc.[32] Necesita vegetación palustre en la orilla, la cual usa para esconder su nido. En el caso de S. Sebastián nidifica, exclusivamente, en las balsas del Real Nuevo Club de Golf de Basozabal (Mapa 1).

Población
La población de focha común en S. Sebastián es de apenas 4 pp. En Gipuzkoa, la población se estima en unas 45 pp. en promedio para el periodo 2005-2017, por lo que el núcleo reproductor de S. Sebastián no alcanza el 10% de la población de la provincia.

Conservación
Especie en declive en Europa[24]; su tendencia en Euskadi no ha sido inferida. En Gipuzkoa, al alza, debido principalmente a su recuperación en Txingudi y algunas otras zonas húmedas[42]. Escasa y por tanto muy vulnerable a nivel local. La tranquilidad con que cuentan en las balsas del Real Nuevo Club de Basozabal es, probablemente, un factor decisivo para su presencia en el municipio. En este contexto, no se recomienda llevar a cabo ninguna medida adicional de conservación, más allá de mantener las balsas tal cual están ahora y respetar o impulsar, en todo caso, la orla de vegetación palustre. La creación de nuevas balsas en otras zonas puede fomentar, en caso de colonización, la consolidación de la reproducción de la especie en el municipio.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Txirritxo txikia / Chorlitejo chico

Charadrius dubius

Ekologia eta banaketa

Lur soiletan umatzen den espeziea da, lurzoru harritsuak edo hartxintxar eta hondarrez nahasitakoak nahiago dituelarik[43]. Donostiaren kasuan, eremu soiletan, legar-hobi eta hondakin eta harriak biltegiratzen diren guneetan edota urbanizazio berriak eraikitzeko obretan ugaltzen da, hau da, udalerrian zehar sakabanatuta dauden hainbat puntutan (1. mapa). Ugalketa-eremu horiek alde batera utzita, Urumea eta Oria ibaien ibilguetan ere ikus daiteke elikagai bila.

Populazioa

Populazioa gutxi ezagutzen da, izan ere, zaila da bere tamaina zenbatestea zentso espezifikoak egin ezean. Udalerrian duen banaketa-eremua ikusita, gutxienez 5 bikote daudela esan genezake, baina litekeena da balio hori benetako tamainaren azpitik egotea. Habitat ezegonkorrak erabiltzen dituztenez, udalerriko populazioaren tamaina gorabeheratsua izango da ziurrenik.

Kontserbazioa

Europan gainbeheran dago populazioa[24]. Euskadin 'Kaltebera' gisa katalogatuta dago eta bere joera ezezaguna da. Udalerri mailan ere kaltebera da, habia egiteko erabiltzen dituen habitaten ezegonkortasuna dela eta. Horrela, atlas hau burutu zen garaian, besteak beste, Txomin auzoko (Loiola) obretan sortu ziren eremu soiletan ikusi zen; gaur egun eremu horietan eraikin berriak daude dagoeneko. Beste mehatxu batzuk txakurrek, katuek edo arratoiek eragindako eragozpen eta harrapakaritza izan daitezke[44,45]. Ibilgu garrantzitsuenen inguruan edo uretatik gertu dauden lur soiletan eremu irekiak kontserbatzea lagungarria izan daiteke udalerri mailan limikola hau kontserbatzeko.

Ecología y distribución

Es una especie que cría en suelos desnudos, preferiblemente pedregosos o mixtos de gravas y arenas[43]. En el caso de S. Sebastián, cría en descampados, graveras y puntos de almacenamiento de escombro y piedra o en las obras que resultan de la construcción de nuevas urbanizaciones, en puntos dispersos en distintos lugares del término municipal (Mapa 1). Al margen de estas zonas de nidificación, se observa también en los cauces del Urumea y Oria, donde busca alimento.

Población

Población poco conocida, cuyo tamaño es difícil de estimar si no se llevan a cabo censos específicos. A la vista de su área de distribución en el municipio, cabría considerar un mínimo de 5 pp., si bien es muy probable que esta estima esté por debajo del tamaño real. Al utilizar hábitats inestables, el tamaño de la población en el municipio es, probablemente, fluctuante.

Conservación

Población en declive en Europa[24]. En Euskadi está catalogada como 'Vulnerable' y su tendencia es desconocida. A nivel local es, también, vulnerable, por la inestabilidad de los hábitats donde nidifica. Así, durante el periodo de desarrollo de este atlas fue vista, entre otras zonas, en los descampados que se crearon durante las obras del barrio de Txomin (Loiola), que a día de hoy ya han sido ocupados por las nuevas edificaciones. Otras amenazas pueden ser las molestias y depredación debida a perros, gatos o ratas[44,45]. La preservación de espacios abiertos de suelos desnudos en la proximidad de los cauces más importantes o en zonas cerca del agua podría contribuir a la conservación de esta limícola a nivel local.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Kaio beltza / Gavión atlántico

Larus marinus

Ekologia eta banaketa

Nahiz eta ugalketa-garaitik kanpo hondartzetan eta Urumean (erlatiboki) ohikoa den, umatze-garaian bikote 1 baino ez genuen zenbatu, Santa Klara uhartean. Mapan (1. mapa) habia egiteko eremua baino ez da adierazten. Honek ez du esan nahi banaketa-eremua leku horretara mugatuta dagoenik, eta Donostian bertan eta udalerritik haratago ere beste eremu batzuk hartuko lituzke.

Populazioa

Donostian 2019an umatu zen bikote bat lehen aldiz, eta Gipuzkoarako ere lehen ugalketa-kasua izan zen[46]. Hala ere, bikote horrek ez zuen arrakastarik izan ugalketan, izan ere, Santa Klaran sarbide errazeko leku batean kokatu zen eta ondorioz etengabeko eragozpenak izan zituen. Hurrengo urtean (2020an) bikote hau berriz umatu zen eta bi txita jaiotzea lortu zuen. Txita horietako bat haitzetako arrail batera erori zen ibiltarien joan-etorrien ondorioz eta haustura batekin heldu zen Aldundiaren oneratze-zentrora.

Kontserbazioa

Europan gainbeheran dagoen espeziea da[24]. Kantauri itsasoan kaio beltza urria da ugaltzaile gisa[47], nahiz eta azken urteotan orain arte umatu ez den eremu berri askotan kokatzen ari den[48,49]. Kolonizazio-prozesu natural hau positiboa da, Donostian hauen ugalketa finkatzeko funtsezkoa izan baitaiteke. Hala ere, ugalketa-garaian Santa Klara uhartean sortzen diren eragozpenak oso larriak dira udalerri mailan (ugalketan arrakastarik ez izatea eragiten dute) eta, horregatik, espezie hau habiagile moduan arriskuan dago oraindik[47].

Ecología y distribución

Aunque durante el periodo no reproductor es (relativamente) habitual en playas y en el Urumea, en periodo de cría sólo contabilizamos 1 pp. en la isla de Santa Clara. En el mapa (Mapa 1) solo se indica la zona de nidificación, lo cual no descarta un rango de distribución más amplio que incluiría otras zonas tanto en S. Sebastián como más allá del municipio.

Población

Tan solo una pareja crió por primera vez en S. Sebastián en 2019, a la vez que fue el primer caso de nidificación en Gipuzkoa[46]. Esta pareja, no obstante, fracasó en su intento de reproducción, ya que se estableció en un lugar de fácil acceso en Santa Clara y sufrió, en consecuencia, molestias continuas. En 2020, esta pareja volvió a criar, logrando que nacieran 2 pollos, uno de los cuales cayó a una grieta por el tránsito de paseantes en la zona e ingresó con una fractura en el centro de recuperación de la Diputación.

Conservación

Especie en declive en Europa[24]. El gavión es escaso como reproductor en el Cantábrico[47], si bien durante los últimos años está instalándose en zonas donde hasta hace poco no criaba[48,49]. Este proceso natural de colonización es positivo, en la medida en que puede ser clave para consolidar su reproducción en S. Sebastián. No obstante, las molestias que se generan durante el periodo de cría en la isla Santa Clara son muy graves a nivel local (producen fracasos reproductores) y, en este contexto, su nidificación está aún comprometida[46]

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Kaio hankahoria / Gaviota patiamarilla

Larus michahellis

Ekologia eta banaketa

Itsasoko hegaztia da eta, oro har, urari lotutako habitat ugari ustiatzen ditu, bai kostaldean bai barnealdean. Hala ere, ohikoa da zabortegietan, zelaietan eta janari-hondarrak aurkitzeko aukera dagoen hiriguneetan ere agertzea[50-52]. Ondo banatuta dago udalerri osoan. Mapan, habia egin duela egiaztatu den laukiak baino ez dira azaltzen, Ulia, Santa Klara eta Igeldoko itsaslabarretan (1. mapa). Bikote gutxi batzuk Donostiako Alde Zaharrean ere habia egiten dute. Bestalde, Urumea eta Oria erabiltzen dituzte lumaia garbitzeko eta txukuntzeko. Ia edozein lekutan ikus daitezke elikagai bila dabiltzan aleak, zuhaiztietan eta zuhaixka-habitatetan izan ezik.

Populazioa

Udalerriko itsas hegaztirik ugariena da. Bere populazioa 770 bikote ingurukoa dela zenbatetsi da, hurrengo banaketarekin: Ulia (660 bikote), Santa Klara (100 bikote), Igeldo (5 bikote), Alde Zaharra (5 bikote). Uliako koloniari beste 165 bikote gehitu beharko litzaizkioke, Platako itsasargiaren azpian dauden itsaslabarretan kokatzen direnak eta zati batean Pasaiako udalerriaren baitan daudenak. Oro har, Donostiako kaio hankahorien populazioa egonkortua dago; beharbada beheranzko joera txikia du Uliaren kasuan[53].

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera positiboa da[24]. Euskadin, mendebaldeko koloniek gainbehera nabarmena erakusten dute[54], ekialdekoetan beheranzko joerarik ez dagoen bitartean edo, egotekotan, txikia da[53]. Kolonietan eragozpenak sortzeak nahi ez diren prozesuak eragin ditzake, hala nola aleak hiri-eremuetara mugitzea.

Ecología y distribución

Ave marina que explota una gran variedad de hábitats en general ligados al agua, tanto en la costa como en el interior, aunque es habitual, también, en vertederos, prados y zonas urbanas donde exista posibilidad de encontrar restos de comida[50-52]. Está bien distribuida en todo el municipio. En el mapa solo se muestran aquellas celdas en las que se ha constatado la nidificación, en acantilados de Ulia, Santa Clara e Igeldo (Mapa 1). Un reducido número de parejas cría también en el Casco Viejo donostiarra. Por otro lado, utilizan el Urumea y el Oria para acicalarse y limpiar su plumaje. Se pueden observar individuos buscando alimento en prácticamente cualquier lugar salvo en zonas arboladas y hábitats arbustivos.

Población

Es el ave marina más abundante del municipio. Su población se estima en unas 770 pp., repartidas en: Ulia (660 pp.), Santa Clara (100 pp.), Igeldo (5 pp.), Casco Viejo (5 pp.). A la colonia de Ulia habría que añadir 165 pp. más que se ubican en los acantilados que hay bajo el faro de la Plata, perteneciente, parcialmente, al municipio de Pasaia. En su conjunto, la población de gaviotas patiamarillas en S. Sebastián está estabilizada o incluso, posiblemente, en ligero descenso en el caso de Ulia[53].

Conservación

La tendencia de la población en Europa es positiva[24]. En Euskadi, las colonias más occidentales muestran un declive acusado[54], mientras que en las más orientales el declive es todavía inexistente o, como mínimo, pequeño[53]. La generación de molestias en las colonias puede resultar en procesos no deseados, como el movimiento de ejemplares hacia zonas urbanizadas.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Kaio iluna / Gaviota sombría

Larus fuscus

Ekologia eta banaketa

Espezie arraroa udalerrian. Ulian bakarrik umatzen da, kaio hankahoriaren kolonia barruan (1. mapa). Ez da ezer ezagutzen bere ekologia espazialari buruz, eta, beraz, bere ugalketa-eremutik kanpo ez dakigu zein habitat erabiltzen dituen, ezta urte osoan zehar udalerrian geratzen den ala ez (kaio ilun batzuek migratu egiten dute edo sakabanatze handi samarrak egiten dituzte ugalketa-garaitik kanpo)[55].

Populazioa

Bikote bakar baten ugalketa egiaztatu da. Dena den, espezie hau urria da Kantauri osoan ere. Eskualde honetan 200 bat bikote zenbatu ziren 2006-2007 aldian, eta horietatik 5 bakarrik zeuden euskal kostaldean[56]. Ale gutxi daudenez, ezin da udalerriko populazioaren joera aztertu.

Kontserbazioa

Europan populazioa egonkorra da[24]. Euskadin urria da[56] eta, ale gutxi daudenez, zaila da joera aztertzea, baina segur aski egonkorra da. Udalerri mailan ez da haren kontserbazioa arriskuan jar dezakeen mehatxurik identifikatu. Printzipioz, umatze-kolonietan esku ez hartzeaz gain, ez litzateke beharrezkoa izango kontserbazio-neurririk hartzea.

Ecología y distribución

Especie rara en el municipio. Tan solo cría en Ulia, dentro de la colonia de gaviota patiamarilla (Mapa 1). No se conoce nada sobre su ecología espacial, por lo que, fuera de su lugar de cría, no se sabe qué hábitats usa o si quiera si permanece en el municipio todo el ciclo anual (algunas gaviotas sombrías migran o realizan dispersiones de cierta magnitud fuera de la época de reproducción)[55].

Población

Se ha constatado la reproducción de tan solo una pareja. En todo caso, la especie es, también, escasa en todo el Cantábrico. En esta región se censaron unas 200 pp durante el periodo 2006-2007, de las que tan solo 5 pp. se ubicaban en la costa vasca[56]. Dado el escaso número de ejemplares, no cabe evaluar la tendencia de la población en el municipio.

Conservación

Población europea estable[24]. Escasa en Euskadi[56]; tendencia difícil de estimar dado el escaso número de ejemplares, probablemente estable. A nivel local, no se identifican amenazas que pudieran comprometer su conservación. En principio, no cabría contemplar medida de conservación alguna, más que no intervenir en las colonias de cría.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Etxe-usoa / Paloma cimarrona

Columba livia f. domestica

Ekologia eta banaketa

Etxekotutako espeziea, jatorrizko espeziea haitz-usoa izanik. Eraikinetan, azpiegituretan eta, batzuetan, harkaitzetan umatzen da. Hegazti koloniala eta lurraldekoia da (erabilera-eremua 5 ha baino txikiagokoa du)[57]. Bere dentsitatea eraikin zaharrei (non habia egiten duen) eta biztanle-dentsitateari (elikagaiez hornitzen diete) lotuta dago[58]. Donostian batez ere eremu hiritartuenetan agertzen da (1. mapa). Ondorioz, agerpen-probabilitatea nabarmen jaisten da hiri-eremuetatik aldentzen goazen heinean (2. mapa).

Populazioa

Aldian behin deskaste prozesuak jasaten dituen espeziea da, eta horrek nabarmen alda dezake populazioa urte batzuetatik besteetara. Donostian azken urteetan harrapatutako uso-kopurua urteko mila hegazti ingurukoa da. Populazioa 3.600 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 2.300-5.400), eta batez besteko dentsitatea 60,0 hegazti/ km^2-koa da (balio-tartea: 38,0-89,0). Dentsitaterik altuena eremu hiritartuenetan aurkezten du, 200 hegazti/ km^2-tik gorakoa izanik (Taula).

Kontserbazioa

Euskadiko populazioak goranzko joera du[25]. Europa osoan, haitz-uso 'basatia' desagertu egin da jatorrizko banaketa-eremuaren zati handi batean, etxe-jatorriko populazioekin hibridazioa gertatu delako. Ziurrenik, Donostian ugaltzen diren hegazti guztiek dituzte etxeko barietateen geneak. Bestalde, gune kutsatuenetan bizi diren usoetan gaixotasunak agertzen dira, eta honek arazoak sor ditzake, bai haientzako[59] zein gaixotasunen transmisioan bektore gisa duten jardunagatik[60].

Ecología y distribución

Especie domesticada, cuyo origen es la paloma bravía. Cría en edificios, infraestructuras y, ocasionalmente, en roquedos. Ave colonial y territorial (área de campeo inferior a 5 ha)[57] cuya densidad se asocia a edificaciones viejas (donde anida) y a la densidad de habitantes, que les proporcionan alimento[58]. En S. Sebastián se concentra, mayoritariamente, en las zonas más urbanizadas (Mapa 1). La probabilidad de presencia, en consecuencia, baja drásticamente a lo largo de un gradiente urbano-suburbano (Mapa 2).

Población

Especie sometida periódicamente a procesos de descaste, lo cual puede hacer variar sustancialmente su población de unos años a otros. El número de palomas capturadas durante los últimos años en S. Sebastián se sitúa en torno al millar de aves por año. La población se estima en 3.600 aves (rango: 2.300-5.400), con una densidad promedio de 60,0 aves/km^2 (rango: 38,0-89,0). Su densidad es máxima en las zonas más urbanas, con más de 200 aves/km^2 (Tabla).

Conservación

Tendencia poblacional al alza en Euskadi[25]. En toda Europa, la paloma bravía 'salvaje' ha desaparecido en buena parte de su área de distribución original, debido a la hibridación con poblaciones de origen doméstico. Probablemente, todas las aves que crían en S. Sebastián llevan genes de variedades domésticas. Por otro lado, las enfermedades que aparecen en las palomas que viven en las zonas más contaminadas pueden resultar problemáticas, tanto para ellas[59] como por su rol como vector de transmisión de enfermedades[60].

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	22,0	(0,0-70,0)
Basoa / Forestal	0,0	(0,0-0,0)
Hiriko parkea / Parque urbano	120,5	(17,0-283,5)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	225,5	(121,5-365,5)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	47,5	(23,5-79,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Pagausoa / Paloma torcaz

Columba palumbus

Ekologia eta banaketa

Basoko espeziea, hiri-eremura ondo egokitu da eta bertan lorategi eta parkeetan egoten da[2]. Eremu hiritartuenak kolonizatzeko prozesu bat dago, Gipuzkoan ere ematen ari dena, eta Europako beste eremu batzuetan duela hamarkada batzuk gertatu zena (Europaren erdialdean zenbait hiri kolonizatu zituen XIX. mendeaz geroztik)[61]. Pagausoa ondo banatuta dago Donostiaren hiri-inguru osoan eta hiriko parke handietan ere agertzen da (1. mapa). Oraindik ez ditu kolonizatu parkerik txikienak, lorategiak eta plaza txikietako zuhaiztiak[1,16,62,63]. Baso-masaren azalerak ez du eragin nabarmenik agerpen-probabilitatean, baina badirudi baso-landaketa itxiak dituzten eremuak saihesteko joera duela (2. mapa). Batez ere landazabaletan (Martutene) edo lorategi-azalera handia duten barrutietan (Aiete edo Ibaeta, adibidez) agertzen da (2. mapa).

Populazioa

Populazioa 730 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 260-1.770), eta batez besteko dentsitatea 12,0 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 4,5-29,0). Habitatei dagokienez, baliorik altuenak baso-inguruneetan agertzen dira eta hiri-eremuetan baxuenak (Taula).

Kontserbazioa

Populazioak goranzko joera du, Europa[24] zein Euskadi mailan (aldia: 1998-2019)[25]. Udalerri mailan ez da identifikatu haren kontserbazioa arriskuan jar dezakeen mehatxurik. Hala ere, aipatu beharra dago debekualdi erdian nahiz kontrapasan ehizatzea faktore negatiboa izan daitekeela umatze-aldiaren zati batekin gainjartzen bada. Bestalde, hiri-eremuan espazio berriak kolonizatzeak (aurreikusten dena) haien populazioa handitzen lagunduko du.

Ecología y distribución

Especie forestal, bien adaptada al ámbito urbano, donde ocupa jardines y parques[2]. Existe un proceso de colonización de las zonas más urbanizadas, común al resto de Gipuzkoa, y que en otras zonas de Europa ya sucedió hace décadas (en el centro de Europa ya colonizó algunas ciudades desde el siglo XIX)[61]. La paloma torcaz está bien distribuida en todo el anillo periférico de S. Sebastián y aparece, también, en grandes parques urbanos (Mapa 1). Todavía no ha colonizado los parques más pequeños, jardines y arbolado de pequeñas plazas[1,16,62,63]. No existe un efecto evidente de la superficie de masa forestal en la probabilidad de ocurrencia, pero sí parece que tiende a evitar las zonas con plantaciones forestales densas (Mapa 2). Ocupa preferentemente campiñas (Martutene) o distritos con una superficie importante de jardines (como Aiete o Ibaeta) (Mapa 2).

Población

La población se estima en 730 aves (rango: 260-1.770), con una densidad promedio de 12,0 aves/km^2 (rango: 4,5-29,0). Por hábitats, ésta es máxima en medios forestales y mínima en el ámbito urbano (Tabla).

Conservación

Tendencia poblacional al alza, tanto a nivel de Europa[24] como en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. A nivel local no se identifican amenazas que pudieran comprometer su conservación. Cabe mencionar, no obstante, que la caza tanto en media veda como en contrapasa podría llegar a ser un factor negativo si existe solapamiento con parte del periodo de cría. En contraposición, la (previsible) colonización de nuevos espacios en el ámbito urbano contribuirá a incrementar su población.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	7,5	(0,5-21,0)
Basoa / Forestal	41,0	(5,5-124,5)
Hiriko parkea / Parque urbano	12,5	(3,0-32,5)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	1,0	(0,0-4,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	1,5	(0,0-4,5)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Usapala / Tórtola europea

Streptopelia turtur

Ekologia eta banaketa
Belardi, labore eta zuhaizti mosaikoak dituzten landa-eremuetako landazabaletara lotutako espeziea da[2,64]. Udalerriko lauki oso zehatzetan aipatzen da ugaltzaile probable gisa; Martutenen, Loiolan eta Igeldon.

Populazioa
Aleak edo bikoteak ugalketarako leku eta data egokietan etengabe behatzeak adierazten du agian Donostian bikote ugaltzaileren bat egon daitekeela oraindik. Hala ere, ezin da baztertu hegazti ez-ugaltzaileak izatea (pasean dauden edo denboraldi luze batean sedimentatuta egon diren aleak). Testuinguru honetan, ezinbestekoa izango da espeziea udalerrian desagertutzat jo daitekeen egiaztatzea edo landazabala duten mosaikoetan, ondo kontserbatutako habitatetan, ugalketa-punturen bat geratzen den begiratzea.

Kontserbazioa
Mundu mailan 'Kaltebera' gisa katalogatuta dago. Populazioaren joera beheranzkoa da, bai Europan[24] zein Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Bere kontserbazio-egoera larria da eskualde mailan: Noval-ek ohiko espezie habiagile bezala aipatzen zuen, Gipuzkoan 'ondo banatua' zegoena[49], baina jada 2000ko hamarkadan gainbehera berretsi zen, Gipuzkoako kostaldeko zenbait gunetan ugaltzaile probabletzat (baina ez segurutzat) katalogatu baitzen[65]. Gaur egun, espeziea desagertu egin da Gipuzkoan ugaltzaile seguru gisa, eta hala baieztatu da Donostiaren kasuan ere. Testuinguru honetan, nahiz eta posible den agian bikoteren bat mantentzea, baliteke udalerri mailan desagertu egin den espezieetako bat izatea.

Ecología y distribución
Especie asociada a entornos de carácter rural en zonas de campiña con mosaico de prados, cultivos y arbolado[2,64]. Citada en celdas muy concretas del municipio, como reproductor probable, en Martutene, Loiola e Igeldo.

Población
La observación continuada de ejemplares o parejas en lugares y fechas adecuadas para la cría indica que, quizás, podría quedar todavía alguna pareja reproductora en S. Sebastián. No obstante, no debe descartarse la posibilidad de que se tratara de aves no reproductoras (ejemplares en paso sedimentados durante un periodo largo). Será imprescindible, en este contexto, verificar si la especie puede darse como extinta en el término municipal o bien si queda algún punto de cría en hábitats bien conservados en mosaicos con campiñas.

Conservación
Declarada 'Vulnerable' a escala global. La tendencia de la población es a la baja, tanto a nivel de Europa[24], como en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. Su estado de conservación es crítico a escala regional: Noval la citaba como especie nidificante regular, 'bien distribuida' en Gipuzkoa[49], pero ya en la década de 2000 el declive se confirmaba, al catalogarse como reproductor probable (pero no seguro) en determinadas zonas de la costa guipuzcoana[65]. En la actualidad, la especie ha desaparecido como reproductora segura de Gipuzkoa, lo cual se confirma para S. Sebastián. En este contexto, es una de las especies que, aun pudiendo mantener, quizás, alguna pareja, tal vez se haya extinguido ya a nivel local.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Usapal turkiarra / Tórtola turca

Streptopelia decaocto

Ekologia eta banaketa

Jatorria Asian duen usapala, XX. mendean zehar Europa modu naturalean kolonizatu zuena[66]. Nahiz eta batez ere landa-eremuei lotuta egon, Europan askotan hirigune, parke eta lorategiei lotuta agertzen da[2,67]. Haitz-usoak ez bezala, berdeguneak behar ditu, zuhaitzetan umatzen baita. Donostian, banaketa-eremu zabala duen espeziea da (1. mapa). Lorategi-eremuetan ikusi daiteke, Pio XII.aren inguruko parkeetan adibidez, baita zuhaitz asko dituzten auzoetan ere, hala nola Martutenen edo Aieten, edo Lauhaizeta eta Zubieta bezalako landa-eremuetan. Ez da agertzen baso itxiko eremuetan. Modelizatutako mapa bat dator behaketen maparekin (2. mapa). Basoa eta sastrakak egoteak eragin negatiboa du haien presentzian, lorategi eta eraikinak dituzten laukietan, berriz, espeziea egoteko probabilitatea handiagoa den bitartean. Horregatik, haitz-usoa baino espezie 'berdeagoa' da, baina ez da pagausoa bezain basokoa.

Populazioa

Populazioa 750 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 410-1.300) eta batez besteko dentsitatea 12,5 hegazti/km^2-koa (balio-tartea: 7,0-21,0). Baso-inguruneetan desagertu egiten da eta lorategiz hornitutako hiri-eremuetan ditu dentsitaterik altuenak.

Kontserbazioa

Populazioak gora egin du, bai Europan[24], bai Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Bere jatorrizko banaketa-eremua Ekialde Hurbilera eta Asiara mugatzen zen, baina 1930eko hamarkadatik aurrera Europa osoa kolonizatu zuen, Magreb eta Kanarietara ere iritsiz. Gaur egun oraindik hedatze-prozesuan dago[4].

Ecología y distribución

Tórtola de origen asiático que colonizó Europa de un modo natural durante todo el siglo XX[66]. Aunque primariamente está ligada al medio rural, en Europa a menudo se asocia a núcleos urbanos, parques y jardines[2,67]. A diferencia de la paloma bravía, requiere de espacios verdes, pues cría en árboles. En S. Sebastián es una especie con un área de distribución amplia (Mapa 1). Se la encuentra en zonas ajardinadas tales como los parques del entorno de Pío XII, también en barrios con gran cantidad de arbolado, como Martutene o Aiete, o núcleos más rurales como el entorno de Lauaizeta o Zubieta. Desaparece en las zonas más forestales. El mapa modelizado coincide muy bien con el de observaciones (Mapa 2). La existencia de bosque y matorral incide de manera negativa en su presencia, mientras que celdas con superficie de jardines y edificaciones aumentan su probabilidad de ocurrencia. Es por ello una especie más 'verde' que la paloma bravía, pero de carácter menos forestal que la paloma torcaz.

Población

La población se estima en 750 aves (rango: 410-1.300), con una densidad promedio de 12,5 aves/km^2 (rango: 7,0-21,0). Desaparece en medios forestales y alcanza densidades máximas en el urbano ajardinado.

Conservación

Poblaciones al alza, tanto a nivel de Europa[24] como en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. Su área de distribución original se restringía a Oriente Próximo y Asia, pero a partir de la década de 1930 colonizó toda Europa, llegando al Magreb y Canarias. En la actualidad está todavía en proceso de expansión[4].

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	10,5	(1,5-24,5)
Basoa / Forestal	0,0	(0,0-0,0)
Hiriko parkea / Parque urbano	19,5	(4,0-44,0)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	1,5	(0,0-4,5)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	43,5	(21,0-78,5)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Kuku arrunta / Cuco común

Cuculus canorus

Ekologia eta banaketa

Mota guztietako baso eta landaketetan egiten du habia. Umatze parasitarioa egiten du, beste hegazti batzuen habietan jartzen ditu arrautzak, batez ere paseriforme txikien habietan[2]. Donostian bi gunetan baino ez da aipatzen (Ametzagaina parkea eta Aiete), bertan zuhaitz-masa nabarmenak daudelarik (1. mapa). Lan honen zentso-aldian zehar, espeziea ez da ikusi baso gehien duten udalerriko eremuetan, baina litekeena da horietako batzuetan behintzat ugaltzea, izan ere, probintzia mailan oso ondo banatutako espeziea da[65]. Testuinguru honetan, behaketen aipamenen mapa ez litzateke oso fidagarria izango (kukuak udalerrian duen benetako banaketa gutxietsiko luke).

Populazioa

Ezezaguna udalerriarentzat. Espainian, baso-habitatetan kukuen batez besteko dentsitatea 10,8 hegazti/km^2-koa da[4]. Donostian, basoak 18 km^2-ko azalera hartzen du gutxi gorabehera eta, honen arabera, 200 ale inguru kalkulatu genitzake.

Kontserbazioa

Populazio egonkorrak Europan[24] eta Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Udalerri mailan basoen suntsipenak eragin diezaioke. Intsektizidek ere ondorio kaltegarriak eragin ditzakete kukuaren kontserbaziorako, harrapakinen eskaintza murriztean. Hori da pinu-beldarrari aurre egiteko erabiltzen diren plagiziden kasua, izan ere, beldar hau espeziearentzat garrantzi handiko baliabide trofikoa da. Habitaten eraldaketa eta Afrikako lehorteak ere mehatxua izan daitezke espezie honen kontserbaziorako[68].

Ecología y distribución

Nidifica en bosques de todo tipo y plantaciones. Cría parasitaria, hace la puesta en nidos de otras aves, principalmente pequeños paseriformes[2]. En S. Sebastián se cita en tan solo dos zonas (Parque de Ametzagaina y Aiete) donde existen masas notables de arbolado (Mapa 1). Aunque durante el periodo de censos para esta obra la especie no se observó en las zonas más forestales del municipio, es muy probable que críe al menos en algunas de ellas, pues es una especie muy bien distribuida a escala provincial[65]. El mapa de citas observadas sería, en este contexto, poco fiable (subestimaría la distribución real del cuco en el municipio).

Población

Desconocida para el municipio. En España, la densidad media de cucos en hábitats forestales se estima en 10,8 aves/km^2[4]. La superficie forestal en S. Sebastián ocupa unos 18 km^2, lo que daría una estima de unos 200 ejemplares.

Conservación

Poblaciones estables en Europa[24] y Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. A nivel local puede verse afectada por la destrucción de bosques. Los insecticidas, al reducir la oferta de presas, pueden acarrear efectos negativos para la conservación del cuco. Es el caso de los plaguicidas que se usan para combatir la procesionaria del pino que constituye un recurso trófico de gran importancia para la especie. La alteración del hábitat así como las sequías en África pueden, también, suponer una amenaza para su conservación[68].

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Hontz zuria / Lechuza común

Tyto alba

Ekologia eta banaketa

Eremu irekiei lotutako gaueko harraparia; baso-masa itxiak saihesten ditu[2,69]. Harkaitz, harrobi, eraikin edo zuhaitzetako zuloetan umatzen da. Hamar lauki baino gehiagotan aipatzen da, batez ere hiri-inguruko eremuan (Igeldo, Añorga, Landarbaso, Altza), baina hirian ere sartzen da, batik bat parke handien inguruan (Intxaurrondo, Egia, Amara-Aiete) (1. mapa). Hala, 2016an, ale bat aurkitu zen Aranzadi Zientzia Elkarteak Urgullen jarritako habia-kutxa batean (aipamen hau lan honetan kontuan hartutako zentso-garaitik kanpo lortu zen).

Populazioa

Donostian dauden hegaztiek erabiltzen dituzten eremuak ezagutzen ez direnez, ezin da populazioaren kalkulu fidagarririk egin. Dentsitatea asko alda daiteke eskualde eta habitaten artean. Espeziea hauteman zen laukien kopurua kontutan hartuta, esan genezake hontz zuriaren populazioa gutxienez 10 bikotekoa dela.

Kontserbazioa

Populazio gorabeheratsuak Europan[24]. Euskadiko populazioaren joera egonkorra da, baina aldatu egiten da eskualdeen artean; Araban, esaterako, gainbehera nabarmena jasaten ari da[70]. Garai batean, gure geografiako harrapari ohikoenetako bat izan zen[65]. Azken urteetan, gainbeheran dago banaketa-eremuaren zati handi batean landa-eremuan gertatutako aldaketen ondorioz, pestiziden erabilera, lursailen kontzentrazioa edo umatzeko lekuen galerak eraginda[69]. Gainera, hilkortasun handia du ibilgailuen harrapatzeen ondorioz[71,72]. Donostiaren kasuan, harrapatzeak eta landa-ingurunean gerta daitezkeen aldaketak (urbanizazio-prozesuak eta bioziden gehiegizko erabilera) espeziearentzat egiaztatu diren bi mehatxu dira.

Ecología y distribución

Rapaz nocturna asociada a espacios abiertos; evita las masas forestales densas[2,69]. Cría en oquedades de árboles, edificios, canteras o roquedos. Se cita en más de una decena de celdas, principalmente en el área periurbana (Igeldo, Añorga, Landarbaso, Alza), si bien también se adentra en la ciudad, sobre todo junto a grandes parques (Intxaurrondo, Egia, Amara-Aiete) (Mapa 1). Así, en 2016 se detectó un ejemplar en uno de los nidales para cárabos que la Sociedad de Ciencias Aranzadi colocó en Urgüll (cita obtenida fuera de la época de censos considerada en esta obra).

Población

El desconocimiento de las áreas que usan las aves que hay en S. Sebastián impide llevar a cabo una estima fiable de la población. La densidad puede variar mucho entre regiones y hábitats. A partir del número de celdas en las que se detecta la especie, la población de lechuza común estaría en un mínimo de 10 pp.

Conservación

Poblaciones fluctuantes en Europa[24]. La tendencia de la población en Euskadi es estable, si bien varía entre regiones, habiendo un marcado declive en Álava[70]. Antaño una de las rapaces más comunes de nuestra geografía[65], durante los últimos años ha entrado en declive en buena parte de su área de distribución[69], debido a los cambios del medio rural como consecuencia del uso de pesticidas, la concentración de parcelas o la pérdida de zonas donde criar[69]. Además, presenta alta mortalidad por atropellos[71,72]. En el caso de S. Sebastián, los cambios que se puedan producir en el medio rural (procesos de urbanización y el posible uso abusivo de biocidas) y los atropellos son dos amenazas reales y comprobadas para la especie.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Apo-hontza / Autillo europeo

Otus scops

Ekologia eta banaketa
Baso-eremu irekietara egokitutako espeziea da, eta, beraz, ugariagoa da baso-ertzetan, fruta-arboletan edo landazabaletan. Hiriko parkeak ere maiz erabiltzen ditu, non oso ugaria izatera irits daitekeen[2]. Donostiaren kasuan, ordea, oso espezie urria da, eta landa-eremu jakin batzuetan soilik aipatu da, hala nola Altza, Landarbaso eta Zubieta auzoetako landazabaletan (1. mapa).

Populazioa
Espezie urria. Atlas honetako zentso-aldian bildu diren behaketen banaketa dela eta, gutxienez 3 bikote daudela esan daiteke. Guztiak ugaltzaile probableak lirateke, ugalketa baieztatu ez delarik.

Kontserbazioa
Populazioaren joera zalantzazkoa da Europan[24]. Euskadin[70], goranzkoa da lurralde osorako, baina eskualdeen artean alda daiteke. Gipuzkoan hegazti 'nahiko' arrunta zen[49], baina 1990eko hamarkadaren amaieran dagoeneko kostaldean bakarrik aipatzen zen[65]. Apo-hontza ohiko nekazaritza-paisaiari lotutako beste espezie horietako bat da, eta populazio asko gutxitzen ari dira erabileran emandako aldaketengatik; besteak beste, plagiziden erabilera orokortua edo zuhaitz zaharrak eta/edo heskaiak suntsitzea. Donostian, gaur egun, hontz txiki hau kontserbatzeko mehatxuen artean daude hirigunearen hedapena, landa-ingurunearen desagertzea eta baserrien birmoldaketa[73].

Ecología y distribución
Especie adaptada a espacios forestales abiertos, por tanto más abundante en bordes de bosque, cultivos de frutales o campiñas. Frecuenta también parques urbanos, donde localmente puede llegar a ser muy abundante[2]. En el caso de S. Sebastián, no obstante, es una especie muy escasa que se ha citado, exclusivamente, en determinadas zonas rurales tales como las campiñas del barrio de Alza, Landarbaso y Zubieta (Mapa 1).

Población
Especie escasa. Dada la distribución de las citas que se han recopilado durante el periodo de censos de este atlas cabe asumir la existencia de un mínimo de 3 pp., todas ellas de reproducción probable, pero no confirmada.

Conservación
La tendencia de la población es incierta en Europa[24],. En Euskadi[70], positiva para el conjunto del territorio que, no obstante, puede variar entre regiones. En Gipuzkoa era un ave 'bastante' común[49],, pero a finales de la década de 1990 ya solo se citaba en la costa[65],. El autillo es otra de esas especies ligadas al paisaje agrícola tradicional, muchas de cuyas poblaciones están disminuyendo por los cambios en el manejo, entre los que están el empleo generalizado de plaguicidas o la destrucción de arbolado viejo y/o setos. En S. Sebastián, la expansión de la trama urbana junto a la desaparición del mundo rural así como la remodelación de caseríos pueden ser factores que, actualmente, suponen una amenaza para la conservación de este pequeño búho[73].

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Hontz handia / Buho real

Bubo bubo

Ekologia eta banaketa

Tamaina handiko hontza, ubikista, habitat mota guztietan umatzen da. Oro har, labarrak nahiago ditu umatzeko, harrobiak barne, baina beste hegazti harrapari batzuen habietan edo lurrean ere uma daiteke[2]. Donostian lurralde bat dagoela egiaztatu da (ar baten kantua behin eta berriz eremu berean) (1. mapa), baina ezin izan da ugalketa baieztatu. Hontz handiaren erabilera-eremua 10 eta 20 km^2 artekoa izan daiteke[74,75], eta are handiagoa toki batzuetan[76]. Ondorioz, espeziea detektatu zen laukia, hontz honek udalerrian duen erabilera-eremuaren zati oso txiki bat baino ez litzateke izango.

Populazioa

Donostian, lurralde bat aipatu beharko litzateke gutxienez, baieztatu gabeko ugalketarekin.

Kontserbazioa

Europan gorantza doan espeziea[24]. Euskadin ere gorantza doa, nahiz eta 'Bakan' gisa katalogatuta dagoen[70]. Igoera hau Gipuzkoan ere gertatu da[77,78]. Garai batean jazarpen handia jasan zuen, ustez, ehizari eragiten zizkion kalteengatik (gaur egun, jakina da ez dela horrela). Mehatxurik nabarmenenak linea elektrikoekin edo hesiekin talka egitea, harrapatzeak eta landa-ingurunearen kudeaketan izandako aldaketak dira[79]. Legez kanpoko ehiza ere arazo bat da eremu batzuetan[79].

Ecología y distribución

Búho de gran tamaño, ubiquista, cría en todo tipo de hábitats. Generalmente prefiere cortados para criar, lo cual incluye también canteras, pero puede criar en nidos de otras aves (rapaces) o en el suelo[2]. En S. Sebastián se ha constatado la existencia de un territorio (canto de un macho en la misma zona y en repetidas ocasiones) (Mapa 1), aunque no se ha podido confirmar su reproducción. El área de campeo del búho real puede variar entre 10 y 20 km^2[74,75] incluso en algunas zonas, más[76]. En consecuencia, la celda donde se detectó la especie debe suponer una fracción muy pequeña del área de campeo de la especie en el municipio.

Población

Al menos cabría citar la presencia de un territorio en S. Sebastián, de reproducción no confirmada.

Conservación

Especie en aumento en Europa[24]. Catalogada como 'Rara' en Euskadi, donde, no obstante, también aumenta[70]. Este incremento se registra, igualmente, en Gipuzkoa[77,78]. En otro tiempo fue muy perseguida por los daños que, supuestamente, generaba en la caza (hoy en día se sabe que no es así). Las amenazas más destacables son la colisión con tendidos eléctricos o vallados, atropellos y los cambios en la gestión del medio rural[79]. La caza ilegal es también un problema en algunas zonas[79].

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Urubia / Cárabo común

Strix aluco

Ekologia eta banaketa

Edonon agertzen den espeziea (1. mapa). Donostian oso hontz ugaria da, eta hiriguneetatik urrun dauden baso-eremuetan (adibidez, Landarbason) nahiz hiriaren erdian dauden parke eta zuhaitz-multzoetan umatzen da, Cristina Enea edo Polloeko hilerrian, esaterako. Habiak zuloetan egiten ditu, gehienbat zuhaitzetan[2]. Hori dela eta, ugaltzeko gutxieneko zuhaiztia behar du, nahiz eta eraikinetan ere umatu daitekeen (adibidez, Uliako eraikin batean umatzea egiaztatu da).

Populazioa

Tamaina handiko espezie gehienekin gertatzen den bezala, lurraldeen tamaina zein den ez dakigunez, populazioaren tamaina estrapolatu behar da beste ikerketa batzuetako datuak erabiliz. Bizkaian, landazabaleko guneetan urubien erabilera-eremua 50 ha inguru-kua dela kalkulatu da[80]. Balio hori hartuta espeziea hauteman deneko 1×1 km-ko lauki guztietarako, gutxienez 130 lurraldeko populazio-tamaina kalkulatzen da.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera zalantzazkoa da[24]; Euskadin, ziurrenik, egonkorra da[70]. Itxuraz, espeziearen kontserbazio-egoera ona da udalerrian. Hala ere, habia egiten dituen eremuak errespetatzea komeni da, inkubazio-garaian eragozpenak izateko oso espezie sentikorra baita.

Ecología y distribución

Especie ubicua (Mapa 1). En S. Sebastián es un búho muy abundante que cría tanto en zonas boscosas alejadas de núcleos urbanos (p.e., en Landarbaso) como en parques y manchas de arbolado en mitad de la ciudad, como es el caso de Cristina Enea o el cementerio de Polloe. Nidifica en huecos, mayoritariamente de árboles[2]. En consecuencia, requiere un mínimo de arbolado para reproducirse, aunque puede llegar a criar en edificios (p.e., constatado en un edificio en Ulia).

Población

Como ocurre con la mayoría de las especies de gran tamaño, al desconocer el tamaño de los territorios hay que extrapolar el tamaño poblacional usando datos de otros estudios. En Bizkaia, el área de campeo de cárabos en zonas de campiña se estimó en unas 50 ha[80]. Asumiendo este valor para el conjunto de celdas de 1×1 km en las que se detectó su presencia, se estima un tamaño poblacional mínimo de 130 territorios.

Conservación

La tendencia de la población en Europa es incierta[24]; en Euskadi es, probablemente, estable[70]. Aparentemente, el estado de conservación de la especie en el término municipal es favorable. Conviene respetar, no obstante, las zonas donde nidifica, ya que es una especie muy sensible a molestias durante el periodo de incubación.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Mozoloa / Mochuelo común

Athene noctua

Ekologia eta banaketa
Hontz txikia, espazio erdi-irekiak edo irekiak nahiago dituena, zuhaizti, baserri edo bordak dituztenak, bertan umatzeko, nahiz eta hiriko parkeetan eta satrakadietan ere agertzen den[2]. Nolanahi ere, basoak saihesten ditu. Donostiaren kasuan, oso espezie urria da, eta lurralde bakarra erregistratu da Igeldon (1. mapa), landazabaleko paisaia duen eremu batean.

Populazioa
Gutxienez lurralde bat aipa daiteke, ugalketa probablearekin, baina baieztatu gabea.

Kontserbazioa
Populazio egonkorrak kontinente mailan[24]. Iraganean[49], baita 1990eko hamarkadaren amaierara arte ere[65], Gipuzkoan hegazti arrunta zen landazabala zuten landa-eremuetan, nahiz eta azken atlas horretan jada desagertuta zegoen probintziaren barnealdeko eskualde askotan. Gaur egun, litekeena da Euskadiko espezie mehatxatuenetako bat izatea, bere gainbehera nabarmena dela eta[70,81]. Beheranzko joera hau Europa eta Espainiako beste eskualde batzuetan ere ikusi da[82,85] Landazabaleko beste hegazti batzuekin gertatzen den bezala, plagiziden erabilerak eta lurraldearen erabileraren aldaketek eragin kaltegarria dute bere kontserbaziorako; izan ere, bere elikadura batez ere ornogabeetan (matxinsaltoak, kakalardoak, kilkerrak, zizareak…) eta karraskari txikietan oinarritzen da[2]. Donostian proiektu bat egin beharko litzateke gera daitezkeen lurraldeak hautemateko eta, hala badagokio, berariazko kudeaketa- eta kontserbazio-neurriak sustatzen saiatzeko.

Ecología y distribución
Pequeño búho que prefiere espacios semiabiertos o abiertos, con algo de arbolado o caseríos o bordas donde criar, si bien también aparece en parques urbanos y sotos[2]. Evita, en todo caso, bosques. En el caso de S. Sebastián es una especie muy escasa, para la cual solo se ha registrado un territorio en Igeldo (Mapa 1), en una zona con paisaje de campiña.

Población
Cabría citar al menos un territorio, para el cual la reproducción es probable, pero no confirmada.

Conservación
Poblaciones estables a escala continental[24]. En el pasado[49], incluso hasta finales de la década de 1990[65], era un ave común en zonas rurales con campiña en Gipuzkoa, si bien en este último atlas ya había desaparecido en muchas comarcas del interior de la provincia. Actualmente, es posiblemente una de las especies más amenazadas de Euskadi, dado su marcado declive[70,81], tendencia común a otras regiones de Europa y España[82,85]. Al igual que con otras aves de campiña, el uso de plaguicidas y los cambios del uso del territorio influyen negativamente en su conservación, ya que su alimentación se basa, fundamentalmente, en invertebrados (saltamontes, escarabajos, grillos, lombrices…) y pequeños roedores[2]. En S. Sebastián convendría llevar a cabo un proyecto para detectar los territorios que puedan quedar y, en su caso, tratar de promover medidas de gestión y conservación específicas.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Hontz ertaina / Buho chico

Asio otus

Ekologia eta banaketa

Basoko hontza; hala ere, nahiago ditu baso irekiak, zuhaitz sakabanatuak, baso-ertzak, etab. Pinudietan ezartzeko joera du, landaketak izanda ere[2]. Donostian behaketa bakarra dugu Igeldon (1. mapa), landazabal eremuan, hostoerorkorren basoak eta belardiak nagusi diren lekuan. Hautemateko zailtasuna dela eta, litekeena da banaketa-eremua lan honetan erregistratutakoa baino zabalagoa izatea.

Populazioa

Gutxienez lurralde bat aipa daiteke, ugalketa probablearekin, baina baieztatu gabea.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera zalantzazkoa da[24]. Euskadin, zalantzazkoa eta, beharbada, gorabeheratsua da[70]. Badirudi udalerri mailan urria dela, baina kontuan hartu behar da hautemateko oso zaila den espeziea izanik, litekeena dela orain arte aipatutako lurralde bakar hori baino gehiago egotea. Udalerriaren inguruan hirigintza-presio handiaren ondoriozko habitat galera eta landa-ingurunean pestizidak erabiltzea dira, besteak beste, espeziearentzat udalerrian nolabaiteko eragina izan dezaketen faktoreak.

Ecología y distribución

Búho de carácter forestal que, no obstante, prefiere bosques abiertos, arbolado disperso, bordes de bosque, etc. Tiende a establecerse en pinares, incluso plantaciones[2]. En S. Sebastián disponemos de una sola cita en Igeldo (Mapa 1), en zona de campiña donde dominan parches de bosque de caducifolios y prados. Debido a la dificultad para su detección, no obstante, es muy probable que su área de distribución sea bastante más amplia que la registrada en esta obra.

Población

Cabría citar al menos un territorio, para el cual la reproducción es probable, pero no confirmada.

Conservación

La tendencia de la población en Europa es incierta[24]. En Euskadi, incierta y, posiblemente, fluctuante[70]. Parece ser que a nivel local es escasa, si bien hay que considerar que es una especie muy complicada de detectar y es probable que haya más territorios que el único detectado hasta la fecha. La pérdida de hábitat como consecuencia de una elevada presión urbanística en la periferia del municipio así como el empleo de plaguicidas en el medio rural son algunos factores que pueden tener cierto impacto para la especie a nivel local.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Zata arrunta / Chotacabras europeo

Caprimulgus europaeus

Ekologia eta banaketa

Habia zuzenean lurrean egiten du, normalean basoko soilgune edo ertzetan eta zuhaizti sakabanatuak dituzten eremu irekietan[2]. Gutxienez Igeldon, Ulian, Landarbason eta Ametzagaina bezalako parke handietan aipatzen da (1. mapa), intsinis pinu-masak, landaketa berriak edo baso gazteen inguruan agertzen diren sastrakadun habitatetan. Bere detektagarritasuna oso txikia da, izan ere, askotan oharkabean pasatzen den gaueko hegazti bat da (nahiz eta agertzen denean bere kantua nabaria izan[86,87]). Horregatik, mapak, espezie honek udalerri osoan hartuko duen eremuaren zati bat baino ez du adierazten.

Populazioa

Ez dago datu onik espezieak udalerrian duen populazioaren balioespena egin ahal izateko. Ugalketa-garaiko erabilera-eremua 1,76 km^2 baino gehiagokoa izan daiteke[88]. Balio hori espeziea ikusi den laukikopurura estrapolatuz gero, 5 bikoteko tamaina lortzen da, nahiz eta oso litekeena den populazioaren benetako tamaina askoz handiagoa izatea.

Kontserbazioa

Europan gainbeheran dagoen espeziea[24]. Egonkorra Euskadin[70]. Paisaia erdi-irekiak kontserbatzea (Igeldo edo Uliako kostaldeko txilardiak eta zuhaitz bakan batzuk dituzten sastrakadiak, esate baterako) eta udalerriko ingurabide osoan plagiziden erabilera mugatzea, espezie honen kontserbazio-egoera hobetzen lagun dezaketen neurriak dira.

Ecología y distribución

Nidifica directamente sobre el suelo, en general en claros o bordes de bosque y en espacios abiertos con arbolado disperso[2]. Se cita al menos en Igeldo, Ulia, Landarbaso y grandes parques como el de Ametzagaina (Mapa 1), en hábitats matorralizados junto a masas de pino de Monterrey, plantaciones recientes o bosques jóvenes. Su detectabilidad es muy baja por tratarse de un ave nocturna que, a menudo, pasa desapercibida (aunque su canto es obvio y conspicuo cuando está[86,87]). El mapa, en consecuencia, representa solo una parte del área que esta especie debe ocupar en todo el municipio.

Población

No se dispone de buenos datos con los que hacer una estima del tamaño de la población de la especie en el municipio. El dominio vital en época de cría puede llegar a superar las 1,76 km^2[88]. Extrapolado dicho valor al número de celdas donde se ha visto la especie se obtiene un tamaño de 5 pp., si bien es muy probable que el tamaño real de la población sea muy superior.

Conservación

Especie en declive en Europa[24]. Estable en Euskadi[70]. La conservación de paisajes semiabiertos, como ocurre con los brezales costeros y espacios matorralizados con arbolado disperso en Igeldo o Ulia, así como la limitación en el uso de plaguicidas en todo el cinturón periurbano del municipio son medidas que pueden ayudar a mejorar su estado de conservación.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Sorbeltz arrunta / Vencejo común

Apus apus

Ekologia eta banaketa
Izaera artifizialeko egituretako hutsuneetan bakarrik umatzen da, batez ere eraikinetan, harri-horma altuetan, etab.[2] Donostian oso ondo banatutako espeziea da, eta ia udalerri osoan aipatzen da (1. mapa). Mapa modelizatuak eraikin-dentsitate handia duten laukietan egoteko probabilitate handia adierazten du (2. mapa). Gainera, erlazio negatiboa dago altitudearen eta agerpen-probabilitatearen artean, habitat naturalen azalera handiagoa baita udalerriko eremurik altuenetan. Horrelako lekuetan, eraikinik ez dagoenez, espeziea urritu edo desagertu egiten da.

Populazioa
3.000 aletako populazioa zenbatesten da (balio-tartea: 2.200-4.000 ale). Sorbeltz aktiboen dentsitaterik altuenak lorategiz hornitutako hiri-eremuetan lortzen dira (52,5 hegazti/km^2; balio-tartea: 26,0-90,0 hegazti/km^2) eta baxuenak urbanizatuen dauden eremuetan (13,0 hegazti/km^2; balio-tartea: 3,0-27,5 hegazti/km^2).

Kontserbazioa
Europan gainbeheran dagoen populazioa[24]. Euskadin, egonkorra (aldia: 1998-2019)[25]. Kontserbaziorako arazo gisa aipa daitezkeen faktoreen artean dago, besteak beste, umatzeko lekuen galera, adib. eraberritze eta zaharberritzeengatik edo eraikuntza berriek dituzten ezaugarriengatik. Testuinguru honetan, habiakutxak jartzea oso neurri praktikoa izan daiteke zuloen gabezia hori arintzeko. Era berean, kutsadurak eta bioziden erabilerak elikagaien eskuragarritasuna murriztu dezakete intsektu-kontsumitzaile honentzat.

Ecología y distribución
Cría exclusivamente en huecos de estructuras de naturaleza artificial, principalmente en edificios, muros altos de mampostería, etc.[2] En S. Sebastián es una especie muy bien distribuida que se cita en casi todo el municipio (Mapa 1). El mapa modelizado indica alta probabilidad de presencia en las celdas con una alta densidad de edificaciones (Mapa 2). Existe, además, una relación negativa de la altitud en la probabilidad de presencia, explicada por el hecho de que las zonas más elevadas del municipio presentan más superficie de hábitat natural. Allí, ante la ausencia de edificios, la especie se rarifica o desaparece.

Población
Se estima en 3.000 individuos (rango: 2.200-4.000 individuos). La densidad de vencejos activos alcanza máximos en zonas de urbano ajardinado (52,5 aves/km^2; rango: 26,0-90,0 aves/km^2) y menor en las zonas más densamente urbanizadas (13,0 aves/km^2; rango: 3,0-27,5 aves/km^2).

Conservación
Población en declive en Europa[24]. En Euskadi, estable (periodo: 1998-2019)[25]. Entre los factores que pueden mencionarse como posibles problemas para su conservación estarían la pérdida de lugares de cría, e.g. debido a reformas y restauraciones o por las características de nuevas construcciones. La colocación de cajas-nido puede ser, en este contexto, una medida muy práctica para paliar este déficit de oquedades. Asimismo, la contaminación y el uso de biocidas pueden mermar la disponibilidad de alimento para este gran consumidor de insectos.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia





Lepitzulia / Torcecuello euroasiático

Jynx torquilla

Ekologia eta banaketa

Gainerako pizidoak bezala, zuhaiztien menpe dago, hain zorrotza ez den arren[2]. Fruta-arbolak eta lorategietako zuhaitz gazteak ere ondo onartzen ditu. Landazabaleko paisaiako zuhaiztietan ere arrunta da[89]. Donostian banaketa zabala du, baina sakabanatua (1. mapa). Zubietako eta hiri-inguruaren hegoaldeko landazabalekin lotzen da gehienbat. Ametzagaina edo Aiete bezalako parke handietan ere agertzen da.

Populazioa

Espezie urria denez, ezin izan da ugaritasuna eredu estatistikoen bidez kalkulatu. Kantauriar eskualdeko landazabaletan, hegaztien dentsitatea 2 hegazti/km^2[89] eta >20 hegazti/km^2[90] artean alda daiteke. Espeziea behatzen den lauki guztietarako, beraz, 15-140 ale inguru kalkulatuko lirateke.

Kontserbazioa

Europan populazioak hazten ari dira[24], Euskadin joera zalantzazkoa da (aldia: 1998-2019)[25]. Espezie honentzako mehatxu larrienetako bat bioziden eraginez gertatutako intsektuen galera da, baita nekazaritzakudeaketan ematen diren aldaketak ere (intentsifikazioa). Donostiako udalerrian ez da mehatxu nabarmenik identifikatu, baina komenigarria litzateke landazabal-paisaia kontserbatzea eta erabilera tradizionalak sustatzea. Hiriko parke garrantzitsuenetan zuhaitz handiak kontserbatzea ere neurri lagungarria izan daiteke pizido honen kontserbaziorako.

Ecología y distribución

Como el resto de pícidos, depende de la existencia de arbolado, si bien es mucho menos exigente[2] Tolera bien incluso árboles jóvenes, en cultivos de frutales y jardines. También en bosquetes en paisaje de campiña, donde es común[89]. Su distribución en S. Sebastián es amplia, pero dispersa (Mapa 1). Se asocia, mayoritariamente, a las campiñas del sur del cinturón periurbano y Zubieta. Aparece, también, en grandes parques como el de Ametzagaina o Aiete.

Población

Al tratarse de una especie más bien escasa, su abundancia no se ha podido estimar mediante modelos estadísticos. Para campiñas de la región cantábrica, la densidad de aves puede variar entre 2 aves/km^2[89] a >20 aves/km^2[90] Para el conjunto de celdas en las que la especie se observa se estimarían, en consecuencia, de unos 15 a 140 ejemplares.

Conservación

Poblaciones en aumento en Europa[24]. Tendencia incierta en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. Una de las amenazas más acuciantes para la especie es la desaparición de insectos como consecuencia del uso de biocidas, así como los cambios en la gestión agrícola (intensificación). En el municipio de S. Sebastián no se identifica ninguna amenaza evidente, pero convendría promover la conservación y usos tradicionales en el paisaje de campiña. La preservación de grandes árboles en los parques urbanos más importantes es, también, una medida que podría contribuir a la conservación de este pícido.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Okil handia / Pico picapinos

Dendrocopos major

Ekologia eta banaketa

Behar bezain helduak diren zuhaitz-mota guztietan umatzen da. Koniferoen basoak nahiago ditu, mota guztietako basoetan egon daitekeen arren, estai alpinotik itsas mailara arte[2]. Donostian, gutxieneko zuhaitz-kopurua duen ia edozein eremutan aurki dezakegu (1. mapa), lorategi eta parke handien sarea barne (Cristina Enea, Aiete edo Ametzagaina esaterako). Ereduaren arabera, agerpen-probabilitatea handiagoa da baso gehien duten laukietan. Era berean, gunerik urbanizatuenak saihesten ditu (2. mapa).

Populazioa

Populazioa 800 hegaztikoa dela kalkulatzen da, baina ziurgabetasun-maila handiarekin (balio-tartea: 170-5.900). Batez besteko dentsitatea 13,0 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 3,0-97,0); baliorik altuenak baso-inguruneetan lortzen ditu eta nulua da hiri-ingurunean (guztiz hiritarra den habitatean zein hiritarra lorategiekin). Nahiz eta azken habitat honetan pizido honen presentzia posible izan (ikusi mapak), bere dentsitatea hain da baxua, non zerora hurbiltzen den.

Kontserbazioa

Populazioak hazten ari dira Europan[24] eta Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Udalerri mailan, zuhaitz-mozketa da segur aski mehatxu-faktorerik nagusiena, batez ere alerik zaharrenena.

Ecología y distribución

Cría en todo tipo de arbolado suficientemente maduro. Prefiere bosques de coníferas, aunque puede hallarse en todo tipo de masas forestales desde el piso alpino hasta el nivel del mar[2]. En S. Sebastián lo encontramos en casi cualquier zona con una mínima cantidad de arbolado (Mapa 1), incluida la red de grandes parques y jardines, como Cristina Enea, Aiete o Ametzagaina. El modelo indica una probabilidad más alta de presencia en las celdas más boscosas. Evita, asimismo, las zonas más densamente urbanizadas (Mapa 2).

Población

La población se estima en 800 aves, aunque con un alto grado de incertidumbre (rango: 170-5.900). La densidad promedio es de 13,0 aves/km^2 (rango: 3,0-97,0); alcanza valores máximos en medios forestales y es nula en el medio urbano tanto si éste es duro como ajardinado. Aunque la presencia de este pícido en este último hábitat es posible (ver los Mapas), su densidad es tan baja que se aproxima a cero.

Conservación

Poblaciones en aumento en Europa[24] y Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. A escala de municipio, la tala de arbolado, especialmente de los pies más viejos, es posiblemente el principal factor de amenaza.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	13,5	(2,0-102,0)
Basoa / Forestal	36,5	(4,0-297,0)
Hiriko parkea / Parque urbano	11,0	(1,0-85,5)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	0,0	(0,0-0,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	0,0	(0,0-0,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Okil txikia / Pico menor

Dryobates minor

Ekologia eta banaketa

Nagusiki baso hostogalkorren habitatetan bizi da[2]. Donostiaren kasuan, udalerriaren ekialdeko eta hegoaldeko landazabal-eremuetan aipatzen da batez ere, baita Landarbaso, Oberan edo Zubietan ere (1. mapa). Parke handietan ere hauteman da, Cristina Enea, Ametzagaina eta Miramonen, besteak beste. Deigarria da Ulia eta Igeldon aipamenik ez egotea, baina ziurrenik espeziearen detektagarritasun-arazo batengatik izango da, benetako gabezia baino.

Populazioa

Espeziea detektatzen den lauki-kopurua txikia denez, ezin da haren ugaritasunari buruzko eredurik egin. Lauki bakoitzeko gutxienez bikote bat dagoela onartuko bagenu, 50 bikote inguruko balioa lortuko genuke. Hala ere, populazioaren tamaina nabarmen handiagoa izango da segur aski.

Kontserbazioa

Egonkorra Europan[24]. Euskadiko populazioaren joera ezezaguna da. Espeziearen mehatxu-faktore nagusia habitataren galera da, zuhaitzen mozketaren eta baso autoktonoa pinu edo eukalipto landaketekin ordezkatzearen ondorioz gertatutakoa. Hariztiak eta ibaiertzeko basoak kontserbatzea, baita parke eta lorategi handietako ale zaharrak ere, eta bertako espezie hostoerorkorrak landatzea udalerri mailan espeziea kontserbatzen lagunduko luketen neurriak dira.

Ecología y distribución

Ocupa preferentemente hábitats forestales de especies caducifolias[2]. En el caso de S. Sebastián se cita sobre todo en zonas de campiña al este y sur del municipio, además de Landarbaso, Oberan o Zubieta (Mapa 1). También se ha detectado en grandes parques, como Cristina Enea, Ametzagaina o Miramón, entre otros. Llama la atención la falta de citas de Ulia e Igeldo, posiblemente debido a un problema de detectabilidad más que a una ausencia real de la especie.

Población

El comparativamente escaso número de celdas en las que se detecta la especie impide hacer modelos sobre su abundancia. Si asumimos un mínimo de una pareja por celda, obtendríamos una estima que rondaría las 50 pp. Es muy probable que el tamaño de la población sea sensiblemente más alto.

Conservación

Estable en Europa[24]. La tendencia de la población en Euskadi es desconocida. El principal factor de amenaza para la especie es la pérdida de hábitat como consecuencia de la tala de arbolado y el reemplazamiento de bosque autóctono por plantaciones de pino o eucalipto. La conservación de robledales y bosque de ribera, de pies viejos en grandes parques y jardines y la plantación de especies caducifolias autóctonas son medidas que favorecerían su conservación a nivel local.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Okil beltza / Picamaderos negro

Dryocopus martius

Ekologia eta banaketa

Basoko espeziea; Gipuzkoaren kasuan, ia pagoetan soilik umatzen da[91], nahiz eta berriki haritz amerikarretan ere ikusi den. Donostian, okil handi hau udalerriaren hego-ekialdeko laukietan baino ez da aipatzen, Añarbeko urtegiaren inguruan dauden baso handietan (1. mapa). Gipuzkoan, pizido honen presentzia zatitu gabeko hostoerorkorren baso helduekin (pagadiak edo mistoak) eta pinu beltzaren landaketekin lotzen da. Aldi berean, badirudi intsinis pinuaren zuhaiztiak eta altuera txikiko zuhaitzak dituzten basoak saihesten dituela[91]. Hala ere, azken urteotan gero eta aipamen gehiago daude intsinis pinuetan.

Populazioa

Gutxienez lurralde bat dagoela esan genezake. Espeziea hedapen-prozesuan dago[92] eta, ondorioz, eremu berrien kolonizazioa gertatu daiteke Donostiako udalerrian ere. Prozesu honetan, gainera, beste espezie batzuetan habia egin duela ikusi izan da, intsinis pinuan edo eukaliptoan esaterako[93].

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera egonkorra da[24]; Euskadin, goranzkoa[91,92]. 'Bakan' gisa katagotatuta dago Euskadin. Bizitzeko zuhaitz zaharrak behar dituen espeziea da, zuhaitz horietan aurkitzen baitu bere elikagai-iturri nagusia (intsektu saproxilikoen larbak). Udalerri mailan, Urdaburu eta Landarbaso (neurri txikiagoan) inguruko mendi magaletan hazten diren pagadiak babestea garrantzitsua da espeziearen presentzia sustatzeko. Estatu mailan duen kontserbazio-egoera onak, gainera, udalerrian lurralde berriak sortzeko aukera errazten du.

Ecología y distribución

Especie forestal; en el caso de Gipuzkoa cría casi exclusivamente en pies de haya[91], aunque recientemente se ha visto que ocupa, también, roble americano. En S. Sebastián, este gran pájaro carpintero se cita, exclusivamente, en celdas del sureste del municipio, en los grandes bosques que colindan con el entorno del embalse de Añarbe (Mapa 1). La presencia de este pícido se asocia en Gipuzkoa a bosques maduros y no fragmentados de caducifolios (haya o mixtos) y plantaciones de pino negral, al tiempo que parece que evita las masas de pino de Monterrey y los bosques con arbolado de poca altura[91]. No obstante, durante los últimos años se está incrementando el número de citas en pino de Monterrey.

Población

Al menos cabría citar la existencia de un territorio. La especie se encuentra en proceso de expansión[92] y, en consecuencia, la colonización de nuevas áreas forma parte de un fenómeno posible también para el municipio de S. Sebastián. En este proceso se observa, además, la nidificación en otras especies tales como el pino de Monterrey o el eucalipto[93].

Conservación

La tendencia de la población en Europa es estable[24]; al alza en Euskadi[91,92]. Catalogada como 'Rara' en Euskadi. Es una especie que depende de árboles viejos para subsistir, pues es en éstos donde halla su principal fuente de alimento (larvas de insectos saproxílicos). A nivel local, la protección de los hayedos que crecen en las laderas del ámbito de Urdaburu y, en menor grado, Landarbaso, es importante para promover la presencia de la especie. Su buen estado de conservación a escala nacional favorece, además, la posibilidad de creación de nuevos territorios en el municipio.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Okil berdea / Pito real ibérico

Picus sharpei

Ekologia eta banaketa

Hiriaren ingurabideko eta landa-eremuko landazabalei lotutako espeziea da. Ondo banatuta dago habitat hau oraindik adierazgarria den lekuetan, hala nola Igeldon, Ibaetan eta Añorgan, Aiete edo Martutene auzoen hegoaldean, Altza eta Ulian, Zubietan, Landarbason eta Urdaburun (1. mapa). Espeziea ez da hertsiki basokoa; zuhaitzak eta zelaiak dituzten paisaiak nahiago ditu, sarritan janaria lurrean bilatzen duelarik[2]. Eraikin asko dituzten eremuak saihesten ditu, eta, horregatik, lauki hiritarrenetan egoteko probabilitate txikiagoa du.

Populazioa

Datu gutxi izateak udalerriko populazioaren kalkulu fidagarria izatea eragozten du. Hau 430 hegazti inguruan kalkulatzen da, eta litekeena da benetako tamaina ehunka batzuetakoa izatea. Batez besteko dentsitatea 7,0 hegazti/km^2-koa da, baina berriz ere, ez da oso balio fidagarria, ziurgabetasun handia baitu. Konparazio gisa, kantauriar eskualdeko landazabaletarako espezie honen dentsitatea 1,4-8,0 hegazti/km^2-koa dela zenbatetsi zen[89,90].

Kontserbazioa

Iberiar penintsulako endemismo bat da. Espainiako populazioaren joera negatiboa da[94]; Euskadin, egonkorra (aldia: 1998-2019)[25]. Nekazaritza eta basogintzaren kudeaketa txarra kaltegarria izan daiteke pizido honentzat, izan ere, horrek umatzeko zuhaitz egokien edo elikatzeko eremuen kopurua murrizten du. Inurrientzako erabiltzen diren intsektizidek intoxikazioak eta heriotza eragin dezakete. Donostian, espeziea kontserbatzeko neurririk eraginkorrenak, zuhaiztiak babestea eta ingurumenaren eta ekologiaren jasangarritasunean oinarritutako nekazaritza-kudeaketa ereduak bultzatzea izango lirateke.

Ecología y distribución

Especie ligada a las campiñas del cinturón periurbano de la ciudad y de las zonas más rurales. Está bien distribuido allí donde este hábitat es todavía representativo, como ocurre en Igeldo, Ibaeta y Añorga, el sur de los barrios de Aiete o Martutene, Alza y Ulia, Zubieta, Landarbaso y Urdaburu (Mapa 1). No estrictamente forestal; prefiere paisajes con arbolado y prados, donde frecuentemente busca el alimento en el suelo[2]. Evita las zonas con muchas edificaciones, motivo por el que su presencia se rarifica en las celdas más urbanas.

Población

El escaso número de datos impide tener una estima fiable de su población en el municipio. Ésta se calcula en unas 430 aves y es muy probable que el tamaño real se sitúe en unos centenares de individuos. La densidad promedio es de 7,0 aves/km^2, aunque de nuevo es un valor poco fiable, sujeto a un alto margen de incertidumbre. A título comparativo, la densidad de esta especie para campiñas de la región cantábrica se estimó en 1,4 a 8,0 aves/km^2[89,90].

Conservación

Es un endemismo de la península ibérica. La tendencia de la población en España es negativa[94]; en Euskadi, estable (periodo: 1998-2019)[25]. Una mala gestión agraria y forestal puede resultar perjudicial para este pícido, ya que eso reduce la cantidad de arbolado adecuado para la cría o las zonas donde se alimenta. El empleo de insecticidas para hormigas puede producir intoxicaciones y mortalidad. En S. Sebastián las medidas más eficaces para su conservación serían la protección del arbolado así como el impulso de modelos de gestión agrícola basados en la sostenibilidad ambiental y ecológica.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Belatz gorria / Cernícalo vulgar

Falco tinnunculus

Ekologia eta banaketa

Harkaitz eta harrobietan egiten du habia, nahiz eta euskarri artifizialetara ondo egokitu den, eraikinetara esaterako. Korbidoen habia zaharrak ere erabil ditzake[32]. Donostian, harkaitzekin, harrobiekin eta eraikinekin lotzen da batez ere (adibidez, Ibaetako eraikin bateko lorontzietan habia egin duela egiaztatu da). Behaketa gehienak nekazaritza eta abeltzaintza eremuetan biltzen dira (landazabala), hau da, habitat irekietan eta baso-masak saihestuz, baina eremu urbanizatuetan ere umatzen da, hala nola Egia auzoan edo Ibaetan (1. mapa).

Populazioa

Eguneko beste harrapari batzuekin bezala, ezin izan da espeziearen zentso zehatzik egin. Belatzen erabilera-eremua 1 km^2-tik 25 km^2-ra bitartekoa da, eta lurraldea zenbat eta hiritarragoa izan, orduan eta handiagoa izan ohi da. Horrela, hirian ugaltzen diren hegaztiak hiriaren ingurabideko eremuetan ehizatzen dute eta, aldi baterako, bigarren eremu horietan ugaltzen diren belatzen lurraldea okupatu dezakete[95]. Lurraldearen batez besteko tamaina 10 km^2-koa bada, Donostiako belatz gorriaren populazioaren gutxieneko tamaina 2 bikotekoa baino handiagoa izango litzateke, baina litekeena da gutxietsitako balioa izatea. Gainera, askotan, belatzek koloniak edo sasi-koloniak osatzen dituzte eta espazio txiki samarretan zenbait bikote elkarrekin bizi daitezke.

Kontserbazioa

Gainbeheran dagoen espeziea, bai Europan[24], bai Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Espezie honentzat kontserbaziorako arazo bihur daitezkeen mehatxuen artean, habitataren suntsipena eta aldatzea, talkak eta ibilgailuen harrapatzeak eta ezkutuko ehiza aipatu daitezke.

Ecología y distribución

Nidifica en roquedos y canteras, aunque se ha adaptado bien a soportes artificiales, como edificios. También puede ocupar nidos viejos de córvidos[32]. En S. Sebastián se asocia, principalmente, a roquedos, canteras y edificios (p. e. se ha constatado su nidificación en jardineras en un edificio en Ibaeta). El grueso de citas se concentra en zonas de carácter agro-ganadero (campiña), en hábitats abiertos y evitando masas forestales, si bien también cría en zonas urbanizadas tales como el barrio de Egia o Ibaeta (Mapa 1).

Población

Al igual que con otras rapaces diurnas, no se ha podido llevar a cabo un censo detallado sobre la especie. El área de campeo en cernícalos varía entre menos de 1 km^2 a 25 km^2, siendo mayor cuanto más urbano sea el territorio. Así, las aves que crían en zonas urbanas salen a cazar a zonas periurbanas donde pueden ocupar, temporalmente, el territorio de los cernícalos que se reproducen en estas segundas zonas[95]. Si asumimos un tamaño promedio de territorio de 10 km^2, el tamaño mínimo de la población de cernícalo vulgar en S. Sebastián es estimaría en más de 2 pp., si bien es muy probable que éste sea un valor subestimado. Así, a menudo los cernícalos forman colonias o semi-colonias, de tal modo que varias parejas pueden convivir en espacios relativamente pequeños.

Conservación

Especie en declive, tanto a nivel de Europa[24], como en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. Entre las amenazas que pueden convertirse en un problema de conservación para esta especie cabe citar la destrucción y alteración del hábitat así como las colisiones y atropellos y la caza ilegal.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Zuhaitz-belatza / Alcotán europeo

Falco subbuteo

Ekologia eta banaketa

Basoko harraparia. Ia baso-mota guztietan umatzen da, eremu irekietatik gertu, eta bertan ehizatzen du[32]. Donostian, batez ere landazabalean aipatzen da (1. mapa), Lauhaizeta, Unanue, Zubieta-Lasarte eta Landarbaso bezalako hiri-inguruko eremuetan. Litekeena da zuhaitz-belatzaren banaketa-eremua behatutakoa baino handiagoa izatea.

Populazioa

Udalerrian aipatutako gainerako baso-harrapariekin gertatzen den bezala, Donostiako zuhaitz-belatzen populazioaren tamaina ezezaguna da, eta, beraz, beste eskualde batzuetarako kalkulatu diren erreferentzia-dentsitateak onartzea baino ezin da egin[33]. Aitzitik, kalkulu gutxi daude penintsula mailan ere (laginaren tamaina txikia dela eta). Batez besteko 0,3 bikote/10 km^2-ko balioa hartuz gero, gutxienez lurralde bat lortuko genuke Donostiarentzat, baina litekeena da balio hori gutxietsita egotea.

Kontserbazioa

Populazio egonkorrak Europan[24]. Euskadin joera ezezaguna da; Bizkaian, populazioak gora egin zuen 20 urte inguruko aldian (1980 eta 2000 bitarteko hamarkadak)[34]. Geroago, haren joera ez da aztertu. Espezie honi eragiten dioten mehatxuen artean, habitataren galera, bioziden erabilera (haien elikaduraren parte diren intsektuak akabatzen ditu), legez kanpoko ehiza edo elektrokuzioa aipatu behar dira. Donostiaren kasuan, landa-eremuaren desagerpena edo aldaketa da ziurrenik espeziarentzat mehatxurik larriena, honek dakarren landazabaleko paisaiaren desagertzearekin edo degradaziorekin.

Ecología y distribución

Rapaz forestal. Cría en prácticamente todo tipo de bosques en la cercanía de espacios abiertos, donde caza[32]. En S. Sebastián es una especie que se cita, principalmente, en la campiña (Mapa 1), en zonas periurbanas tales como Lauhaizeta, Unanue, Zubieta-Lasarte y Landarbaso. Es muy probable que el área de distribución del alcotán sea mayor que lo observado.

Población

Como ocurre con el resto de las rapaces forestales citadas en el municipio, el tamaño de la población de alcotanes en S. Sebastián es desconocido, por lo que no cabe más que asumir densidades de referencia dadas para otras regiones[33]. No obstante, las estimas son deficientes incluso también a escala peninsular (debido al reducido tamaño muestral). Si asumimos el valor medio de 0,3 pp./10 km^2, obtendríamos un mínimo de un territorio para S. Sebastián, si bien es muy probable que este valor esté subestimado.

Conservación

Poblaciones estables en Europa[24]. La tendencia en Euskadi, desconocida; en Bizkaia aumentó durante un periodo de ca. 20 años (década de 1980 a 2000)[34]. Posteriormente, su tendencia no ha sido inferida. Entre las amenazas que afectan a esta especie cabe citar la pérdida de hábitat, el uso de biocidas (que acaban con los insectos que forman parte de su alimentación), la caza ilegal o la electrocución. En el caso de S. Sebastián, la desaparición o los cambios del medio rural, con lo que implica en cuanto a desaparición o degradación del paisaje de campiña son, posiblemente, las amenazas más serias para la especie en el municipio.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Belatz handia / Halcón peregrino

Falco peregrinus

Ekologia eta banaketa

Harkaitzetako harraparia, harkaitzei eta harrobiei lotua, eta garaiera handiko eraikinetan ugaltzeko ere ondo egokitua dagoena. Azken ezaugarri hau mundu mailako hirien kolonizazioa bultzatzen ari da[96]. Donostian, Igeldo eta Uliako itsaslabarretan umatzen da, eta duela urte gutxi, hiriaren erdigunean ere bai (1. mapa). Habia egiteko puntuez gain, udalerriko ia edozein lekutan espeziea ehizatzen ikus daiteke.

Populazioa

Donostian gutxienez 3 lurralde daudela baieztatu da, hurrenez hurren, Igeldon, Ulian eta hiriaren erdigunean (Artzain Ona). Artzain Onarena da orain arte Gipuzkoako eraikin baterako ezagutzen den umatze bakarra[97].

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera goranzkoa da[24]. Euskadin 'Bakan' gisa katalogatuta dago. Gipuzkoan, populazioa egonkorra da[97]. Espeziea kaltetzen duten mehatxuen artean habien espoliazioa eta legez kanpoko ehiza daude (arazo larria udalerri mailan). Donostiaren kasuan, azken urteetan hainbat ale hil dira uso-hazleen eta isileko ehiztarien (Ulian, adibidez) tiroen ondorioz. Bestalde, hegaztiez elikatzen denez, izurriteak kontrolatzeko aliatu ona da, etxe-usoaren kasurako adibidez.

Ecología y distribución

Rapaz rupícola, asociada a roquedos y canteras y bien adaptada, también, a la cría en edificios de gran altura. Esto último está impulsando la colonización de ciudades a escala global[96]. En S. Sebastián cría en acantilados en Igeldo y Ulia y, desde hace pocos años, en el centro de la ciudad (Mapa 1). Al margen de los puntos de nidificación, la especie puede verse cazando en casi cualquier zona del municipio.

Población

En S. Sebastián se confirma la existencia de un mínimo de 3 territorios, presentes, respectivamente, en Igeldo, Ulia y el centro de la ciudad (Buen Pastor). La nidificación en el Buen Pastor es la única conocida hasta la fecha en edificio para todo Gipuzkoa[97].

Conservación

La tendencia de la población en Europa es al alza[24]. En Euskadi está catalogado como "Rara". En Gipuzkoa, la población es estable[97]. Entre las amenazas que penden sobre la especie están el expolio de nidos y la caza ilegal (un problema serio a nivel local). En el caso de S. Sebastián, durante los últimos años existe constancia de la muerte de varios ejemplares por los disparos de furtivos (p. e. en Ulia) y criadores de palomas. Por otro lado, al alimentarse de aves, es un buen aliado para el control de plagas, como es el caso de la paloma cimarrona.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Antzandobi arrunta / Alcaudón dorsirrojo

Lanius collurio

Ekologia eta banaketa

Heskaietan egiten du habia, batez ere sasietan, belardi eta larreen ertzeetan[98,99]. Ondo kontserbatutako landazabal tradizionalaren ikurtzat har daiteke. Zelaietan abereak egoteak antzandobiak agertzea errazten du. Udalerrian banaketa mugatua duen espeziea da. Igeldoko hiru laukitan, Martuteneko bitan eta Landarbasoko batean baino ez da aipatu.

Populazioa

Populazioaren tamaina gutxienez 5 bikotekoa dela kalkulatzen da. Ez da baztertu behar beste bikoteren bat egotea aztertzeko zailak diren eremuetan, Igeldon adibidez. Hala ere, litekeena da udalerri osoko populazioa 10-20 bikotera ez iristea.

Kontserbazioa

Beheranzko joera Europan[24]. Euskadin, egonkorra (aldia: 1998-2019)[25], nahiz eta kostaldean gero eta arraroagoa den. Udalerri mailan kuantifikatu ez den arren, azken urteetan gainbehera nabarmena izan duen espeziea da. Garai batean, hegazti arrunta zen Donostia osoko landazabal-pasaieko eremuetan. Beherakada hau eskualde kantauriarreko beste leku batzuetan ere behatu da[100]. Landa-eremua uztea eta landa-ingurunean pestizidak erabiltzea populazioaren gainbehera eragiten duten faktoreak dira. Larre eta belardien ertzean heskai-lerroak eta sastrakadiak kontserbatzea garrantzitsua da espeziearentzat. Europako ugalketa-eremuetan gerta daitezkeen arazoez gain, migrazio eta negualdiko guneetan (Afrika hego-ekialdean) ematen den hilkortasuna gehitu behar da[101].

Ecología y distribución

Nidifica en setos, sobre todo zarza, en lindes de prados y pastizales[98,99]. Puede considerarse como un símbolo de la campiña tradicional, bien conservada. La presencia de ganado en los campos favorece la presencia de alcaudones. Especie de distribución limitada en el municipio. Se ha citado en tan solo tres celdas en Igeldo, dos más en Martutene y otra en Landarbaso.

Población

Se estima un tamaño poblacional mínimo de 5 pp. No debe descartarse la existencia de alguna pareja más en las zonas más complicadas de prospectar, como Igeldo, aunque es muy probable que, aun así, la población no llegue a 10-20 pp. en todo el municipio.

Conservación

Tendencia negativa en Europa[24]. En Euskadi, estable (periodo: 1998-2019)[25], si bien en la franja costera parece ser cada vez más raro. Aunque no se ha cuantificado a nivel local, es una especie que ha experimentado un notable declive durante los últimos años. Antaño era un ave común en zonas con paisaje de campiña en todo S. Sebastián. Este descenso ha sido registrado, también, en otras zonas de la región cantábrica[100]. El abandono del campo así como el uso de plaguicidas en el medio rural son factores que contribuyen al declive de su población. La conservación de líneas de seto y zarzales al borde de campos y pastizales es importante para la especie. A los problemas que puedan darse en áreas de cría en Europa hay que sumar la mortalidad en la migración y en el área de invernada (África sudoriental)[101].

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada

Posiblea
Posible

Probablea / Segurua
Probable / Seguro





Eskinosoa / Arrendajo euroasiático

Garrulus glandarius

Ekologia eta banaketa

Basoko hegaztia da nagusiki, eta mota guztietako basoetan bizi da, baita parke eta lorategietan ere[102]. Oso espezie arrunta da, baso, zuhaizti eta parke handietan agertzen dena. Donostian ondo banatuta dago udalerri osoan, kostaldetik barrualderaino (1. mapa). Positiboki erlazionatzen da baso gehien duten laukiekin; horregatik, modelizatutako mapak agerpen-probabilitate handiagoa aurreikusten du Ulian, Igeldon eta udalerriaren hegoaldean, Zubieta, Landarbaso eta Oberan barne (2. mapa).

Populazioa

Populazioa 470 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 180-1.300). Batez besteko dentsitatea 7,5 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 3,0-22,0); hiriko parkeetan lortzen ditu baliorik altuenak (Taula).

Kontserbazioa

Goranzko joera Europan[24]; zalantzazkoa Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Donostian ez da identifikatu egungo kontserbazio-egoera ona arriskuan jar dezakeen mehatxurik. Udazkenean, ezkurrak eta fruituak lurperatzen ditu negurako jaki-gordailu bat edukitzeko, eta, horrela, basoa birsortzen laguntzen du.

Ecología y distribución

Ave eminentemente forestal, ocupa todo tipo de bosques, también parques y jardines[102] Es una especie muy común, presente en bosques, bosquetes y grandes parques. En S. Sebastián está bien distribuido en todo el municipio, desde la costa hasta el interior (Mapa 1). Se asocia de manera positiva a las celdas más forestales, motivo por el que el mapa modelizado prevé una mayor probabilidad de presencia en Ulia, Igeldo y el sur del municipio, incluidos Zubieta, Landarbaso y Oberan (Mapa 2).

Población

La población se estima en 470 aves (rango: 180-1.300). La densidad promedio es de 7,5 aves/km^2 (rango: 3,0-22,0); alcanza valores máximos en parques urbanos (Tabla).

Conservación

Tendencia al alza en Europa[24]; incierta en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. En S. Sebastián no se identifican amenazas que pudieran comprometer su actual buen estado de conservación. En otoño, entierra bellotas y frutos con el fin de disponer una despensa para el invierno y con ello favorece la regeneración del bosque.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km^2) Media (aves/km^2)	Tartea (hegazti/km^2) Rango (aves/km^2)
Landazabala / Campiña	8,0	(2,0-23,5)
Basoa / Forestal	7,5	(0,0-25,0)
Hiriko parkea / Parque urbano	19,5	(5,0-57,0)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	0,0	(0,0-0,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	0,5	(0,0-3,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Mika / Urraca común

Pica pica

Ekologia eta banaketa

Ia mota guztietako habitatetan umatzen da, baso oso itxietan eta goi-mendietan izan ezik[102]. Donostian, hiri-inguruko ingurabideari lotuta dago (landa-ingurunea), baina eremu urbanizatuenetan ere agertzen da, betiere gutxieneko zuhaitz-kopuru bat badago (1. mapa). Testuinguru honetan, azken urteotan gero eta eremu urbanizatuagoak arrakastaz kolonizatzen joan den espeziea da, Europa osoko hiri askotan jada ezaguna den prozesua[103,104]. Modelizatutako mapak espeziearen agerpen-probabilitate handiagoa aurreikusten du eraikin eta lorategien presentzia konbinatzen den eremuetan (2. mapa). Beraz, eremu hiritarrenak eta baso gehien duten eremuak saihesten dituen espeziea da.

Populazioa

Populazioa 290 hegaztikoa dela kalkulatu da, baina ziurgabetasun-tarte handia dago. Nolanahi ere, udalerrirako ehunka ale daudela onartzea egokia da. Batez besteko dentsitatea 5,0 hegazti/km^2-koa da, baina berriro, ziurgabetasun oso handia duen balioa da.

Kontserbazioa

Populazio egonkorra Europan[24] eta Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Udalerrian espeziearen kontserbazio-egoera hobetzen lagundu ahal izan duten faktoreak dira, besteak beste: Donostiako erdiguneko auzoetatik hurbilen dauden landa-eremuko populazioak berreskuratzea, gizakiarekiko hurbiltasunarekiko tolerantzia areagotzea[105], eta parke, kale eta plaza askotan bizi diren zuhaitzen adinak gora egitea[106]. Hala ere, legez kanpoko ehiza eta pozoien erabilera zaindu beharra dago.

Ecología y distribución

Cría en prácticamente todo tipo de hábitats, excepto en bosques muy cerrados así como en alta montaña[102]. En S. Sebastián está ligada al cinturón periurbano (medio rural), si bien también está presente en las áreas más urbanizadas, siempre y cuando exista cierta cantidad de arbolado (Mapa 1). En este contexto, es una especie que, durante los últimos años, ha ido colonizando con éxito zonas cada vez más urbanas, proceso ya conocido en muchas ciudades de toda Europa[103,104]. El mapa modelizado prevé una mayor probabilidad de ocurrencia en zonas donde se combina la presencia de edificios y jardines (Mapa 2). Es, en consecuencia, una especie que evita tanto las zonas más urbanas como las más boscosas.

Población

La población se estima en 290 aves, aunque con un muy alto margen de incertidumbre. Es correcto asumir, en todo caso, unos centenares de individuos para el municipio. La densidad promedio es de 5,0 aves/km^2, valor de nuevo sujeto a una incertidumbre muy alta.

Conservación

Población estable en Europa[24] y en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. La recuperación de las poblaciones del medio rural más cercano a los barrios más céntricos de S. Sebastián, el incremento de la tolerancia a la proximidad con el ser humano[105], así como el incremento de la edad de los árboles que pueblan muchos parques, calles y plazas[106] son factores que, entre otros, han podido contribuir a la mejora del estado de conservación de la especie en el municipio. Debe vigilarse, no obstante, la caza ilegal y el uso de venenos.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada

Posiblea
Posible

Probablea / Segurua
Probable / Seguro



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia

Min. / Mín.

Max. / Máx.





Belabeltza / Corneja negra

Corvus corone

Ekologia eta banaketa
Nahiago ditu paisaia irekiak, zuhaitzez, laborantzez, larreez eta abarrez osatutako mosaikoa dutenak[102]. Donostiaren kasuan, landazabalarekin oso lotuta dagoen hegaztia da, eta badirudi baso hertsia duten habitatak saihesten dituela (1. mapa). Ametzagaina edo Beloka bezalako parkeetan ere ikus daiteke.

Populazioa
Hautemandako hegazti-kopurua txikia denez, ezin da ereduen bidezko balioespenik egin. 10 hegazti/km^2-ko dentsitatea[4] eta behaketak eduki dituzten lauki-kopurua kontuan hartuta, 730 hegaztiko populazioa lortuko litzateke. Oso litekeena da kalkulu hau benetako tamainaren gainetik egotea, ale berdina hainbat laukitan zehar mugitu baitaiteke. Ondorioz, espeziearen populazioa udalerrian gutxienez ehunka ale batzuetakoa izango litzateke.

Kontserbazioa
Populazio egonkorra, bai Europan[24] bai Euskadin (aldia: 1998-2019)[25] Donostian ondo banatuta dago, nahiz eta hegazti urria izan. Antzina, hegazti honek jazarpena jasan zuen, ustez nekazaritzan eta ehizan galerak eragiten zituelako.

Ecología y distribución
Prefiere paisajes abiertos, con un mosaico de arbolado, cultivos, prados, etc.[102] En el caso de S. Sebastián se trata de un ave muy ligada a la campiña, que parece evitar los hábitats estrictamente forestales (Mapa 1). Puede observarse también en parques, como Ametzagaina o Beloka.

Población
El escaso número de aves detectadas impide llevar a cabo estimas mediante modelos. Teniendo en cuenta densidades de 10 aves/km^2[4] y el número de celdas en las que se observa, se obtendría una población de 730 aves. Es muy posible que este cálculo esté por encima del tamaño real, ya que un mismo individuo puede desplazarse a través de varias celdas. En consecuencia, la población de la especie en el municipio podría establecerse en al menos unos pocos centenares de individuos.

Conservación
Población estable, tanto a nivel de Europa[24] como en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. En S. Sebastián está bien distribuida, si bien es un ave más bien escasa. Antaño, esta ave fue objeto de persecución por ser acusada de causar pérdidas en agricultura y en la caza.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Erroia / Cuervo grande

Corvus corax

Ekologia eta banaketa

Mota guztietako habitatetan agertzen da, baina ugaltzeko haitz labarrak behar ditu. Hauek ez daudenean, zuhaitz handietan, eraikinetan edo elektrizitatedorreetan ere habia egin dezake[102]. Donostiaren kasuan, espezie honen presentzia batez ere kostaldeko itsaslabarrekin lotzen da. Donostian espezie urria da eta Ulia, Igeldo eta inguruko mendietan eta hiriko ingurabidearen ekialdean, batez ere Añorga eta Altza artean, aipatzen da (1. mapa).

Populazioa

Gaizki ezagutzen den populazioa. Udalerrian habia egiten duten bikoteen erabilera-eremua ezezaguna da. Behaketen mapa egiteko bildu diren datuak kontutan hartuta, gutxienez 5 lurralde daudela esan daiteke (Ulian: 1; Igeldo eta inguruko mendietan: 3; Martutene eta inguruetan: 1).

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera goranzkoa da[24] eta Euskadin, zalantzazkoa (aldia: 1998-2019)[25]. Hala ere, ospe txarra duenez, gaur egun oraindik pozoitu eta tirokatu egiten da. Ehiza garaia iristean, legez kanpo tiro egiten diote[27]. Donostian oso espezie urria da.

Ecología y distribución

Ocupa todo tipo de hábitats, pero necesita cortados donde criar. En ausencia de éstos, puede llegar a construir un nido en grandes árboles, edificios o torres de electricidad[102]. En el caso de S. Sebastián la presencia de esta especie se vincula, principalmente, a cantiles costeros. Especie escasa en S. Sebastián, se cita en Ulia, Igeldo y estribaciones y el sector más oriental del cinturón periurbano, sobre todo entre Añorga y Alza (Mapa 1).

Población

Mal conocida. Desconociendo el área de campeo de las parejas que nidifican en el municipio, y a la vista de las citas que se han recopilado para elaborar el mapa de observaciones, cabría establecer un mínimo de 5 territorios (Ulia: 1; Igeldo y estribaciones: 3; Martutene y alrededores: 1).

Conservación

La tendencia de la población en Europa es al alza[24] y en Euskadi, incierta (periodo: 1998-2019)[25]. No obstante, su mala reputación hace que a día de hoy todavía sea objeto de envenenamiento y disparos. Con la llegada del periodo de caza, es disparada de manera ilegal[27]. En S. Sebastián es una especie muy escasa.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Pinu-kaskabeltza / Carbonero garrapinos

Periparus ater

Ekologia eta banaketa

Basoko espeziea, ingurune hotzetako koniferoei lotua. Hostoerorkorreko basoetan, pinu-landaketetan eta gutxieneko tamaina duten hiri-parkeetan ere aipatzen da sekundarioki, non koniferoak bilatzen dituen. Donostian, intsinis pinuaren landaketetan edo konifero hau agertzen den parke handietan aipatzen da batik bat, hala nola Ulian edo Miramonen (1. mapa). Zubietan, Landarbason edo Obaranen dauden pinudietan ere agertzen da. Testuinguru honetan, ereduak oso ondo egiten du bat behaketen maparekin. Horrela, baso gehien duten laukietan, espeziea agertzeko probabilitate handiagoa aurreikusten du, eta, aldi berean, lauki hiritartuenetan ikaragarri bakantzen da (2. mapa).

Populazioa

Espezie honen oso ale gutxi zenbatu dira, eta, hortaz, udalerriko populazioaren tamainaren kalkuluak ziurgabetasun-maila handia du. 670 ale zenbatesten dira, baina oso ziurgabetasun handiari lotua dagoen balioa da. Nolanahi ere, populazioa ehunka ale batzuetakoa dela onartu daiteke. Batez besteko dentsitatea 11,0 hegazti/km^2-koa da, baina baso-inguruneetan 50 hegazti/km^2-koa izatera iristen da. Konparazio gisa, Kantauri aldeko basoetan 34-38 hegazti/km^2-ko dentsitateak kalkulatzen dira[4].

Kontserbazioa

Europan populazioa hazten ari da[24]. Euskadin egoera zalantzazkoa da (aldia: 1998-2019)[25]. Intsinis pinu-landaketek mesede egin diote bere kontserbazio-egoerari.

Ecología y distribución

Especie forestal, ligada a coníferas de ambientes fríos. También se cita, secundariamente, en bosques de caducifolios, plantaciones de pino e incluso parques urbanos de cierto tamaño, donde busca la presencia de coníferas. En S. Sebastián se cita, principalmente, en plantaciones de pino de Monterrey o grandes parques en los que esta conífera está presente, como es el caso de Ulia o Miramón (Mapa 1). Aparece, también, en los pinares que pueblan Zubieta, Landarbaso u Obaran. El modelo, en este contexto, casa muy bien con el mapa de observaciones. Predice, así, una probabilidad más alta de presencia en las celdas más boscosas, a la vez que se rarifica enormemente en las más urbanas (Mapa 2).

Población

Es una especie con un escaso número de individuos contados, por lo que la estima del tamaño de su población en el municipio tiene un grado de incertidumbre alto. Se calculan 670 individuos, si bien este valor está sujeto a una muy alta incertidumbre. Puede asumirse, en todo caso, un tamaño de varios centenares de individuos. La densidad promedio se estima en 11,0 aves/km^2, pero asciende a casi 50 aves/km^2 en medios forestales. A modo comparativo, en los bosques del área cantábrica se calculan densidades de 34 a 38 aves/km^2[4].

Conservación

Especie en aumento en Europa[24]. Situación incierta en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. Su estado de conservación ha sido favorecido por las plantaciones de pino de Monterrey.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia





Amilotx mottoduna / Herrerillo capuchino

Lophophanes cristatus

Ekologia eta banaketa

Pinudiak nahiago dituen arren, beste baso batzuetan ere aipatu izan da, baita parke eta lorategietan ere. Donostian, batez ere koniferoei lotuta agertzen da (intsinis pinua). Donostian bere banaketa ez da jarraitua, eta batik bat baso gehien duten laukietan agertzen da, hiriko parke handietan barne, Ametzagaina edo Urgullen esate baterako (1. mapa). Ereduaren arabera, bere banaketa landarediaren produktibitatea handiagoa den eremuei lotuta dago, ugalketa-garaian zein neguan (2. mapa).

Populazioa

Behaketa kopuru urriak bere ugaritasunaren kalkulua mugatzen du. 550 hegazti daudela zenbatesten da, baina ziurgabetasun-tarte handia duen balioa da. Populazioa, hala ere, ehunka ale batzuetakoa dela esan daiteke. Batez besteko dentsitatea 9,0 hegazti/km^2-koa da. Dena den, basoetan balio hau ia 40 hegazti/km^2-ra handitzen da, nahiz eta zuhurtziaz hartu beharreko kalkulua den. Konparazio gisa, Espainiako dentsitatea 12-25 hegazti/km^2-koa da, eremu biogeografikoen arabera[4]. Hala ere, Euskadiko pinudietan 26-40 hegazti/km^2-ko dentsitateak kalkulatu ziren[89,107].

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera beheranzkoa da[24]. Euskadin, egoera zalantzazkoa da (aldia: 1998-2019)[25]. Koniferoen landaketek mesede egin diote espezie honi. Banda marroiak eragindako pinudien galera (onddo batek pinuari hostoak galarazten dizkio, besteak beste)[108,109], kaltegarria izan daiteke hegazti honen kontserbaziorako udalerri mailan.

Ecología y distribución

Preferiblemente ligado a pinares, también se cita en otras masas forestales e incluso parques y jardines. En S. Sebastián aparece, principalmente, ligado a coníferas (pino de Monterrey). Su distribución en S. Sebastián es discontinua y se solapa, mayormente, con las celdas más boscosas, bien sean bosques o grandes parques urbanos, como el de Ametzagaina o Urgüll (Mapa 1). El modelo asocia su distribución a las zonas con una mayor productividad de la vegetación, tanto en época de cría como en invierno (Mapa 2).

Población

El escaso número de contactos limita el cálculo de su abundancia. Ésta se estima en 550 aves, pero es una cifra con un amplio margen de error. Su población, no obstante, debe situarse en un tamaño de unos centenares de individuos. La densidad promedio es de 9,0 aves/km^2, que en los bosques, no obstante, asciende a casi 40 aves/km^2, aunque es una estima que debe ser considerada con cautela. A modo comparativo, su densidad en España se estima en 12 a 25 aves/km^2, según zonas biogeográficas[4]. No obstante, en pinares de Euskadi se llegaron a calcular densidades de 26 a 40 aves/km^2[89,107].

Conservación

La tendencia de su población en Europa es a la baja[24]. Situación incierta en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. Es una especie que ha sido favorecida por la existencia de plantaciones de coníferas. La destrucción de los pinares por el hongo de la banda marrón (que defolia los pinos, entre otros efectos)[108,109], no obstante, podría resultar nociva para la conservación de este pájaro a nivel local.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia





Kaskabeltz txikia / Carbonero palustre

Poecile palustris

Ekologia eta banaketa

Basoko hegaztia, bertako baso hostoerorkorrei lotua. Donostian, batez ere hariztietan, pagadietan edo ibaiertzeko basoetan aurki dezakegu. Banaketa-eremu txikia duen espeziea da. Landarbaso, Oberan, Zubieta eta Ulia eta Igeldoko leku jakin batzuetan ikus dezakegu, edo ondo kontserbatutako harizti edo hostoerorkorren lursailetan, Añorgatik Altzaraino, Ametzagainako parkea barne (1. mapa). Espeziea hauteman den lauki-kopurua ez da nahikoa banaketa aurreikusten duen eredu bat garatu ahal izateko.

Populazioa

Datu gutxi daudenez gero, ezinezkoa da ugaritasuna ereduen bidez zenbatestea. Euskadin, baso hostogalkorretan, espezie honen dentsitatea 18-34 hegazti/km^2-koa zela kalkulatu zen[89,107]. Hortaz, behatua izan den lauki guztiak kontutan hartuta, gutxienez 140 hegazti egongo lirateke.

Kontserbazioa

Populazio egonkorra Europan[24]. Euskadiko populazioaren joera ez da ezagutzen. Bertako basoaren mozketa eta suntsipena mehatxu bat izan daiteke udalerri mailan[89].

Ecología y distribución

Ave forestal, ligada a bosques nativos de caducifolios. En S. Sebastián lo encontramos en parcelas de robledal, hayedo o bosque de ribera, principalmente. Es una especie con un área de distribución reducida. Lo observamos en determinados puntos de Ulia e Igeldo, Landarbaso, Oberan y Zubieta o en parcelas de robles o caducifolios bien conservados desde Añorga hasta Alza, incluido el Parque de Ametzagaina (Mapa 1). La cantidad de celdas en las que se detecta es insuficiente para desarrollar un modelo predictivo de distribución.

Población

El escaso número de datos imposibilita hacer estimas mediante modelos de su abundancia. La densidad de esta especie en Euskadi se calculó en 18 a 34 aves/km^2 en bosques de hoja caduca[89,107], lo que se traduciría en un mínimo de 140 aves para el conjunto de celdas donde se ha visto.

Conservación

Población estable en Europa[24]. La tendencia de la población en Euskadi se desconoce. La tala y destrucción de bosque nativo podría llegar a ser una amenaza a nivel local[89].

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Amilotx urdina / Herrerillo común

Cyanistes caeruleus

Ekologia eta banaketa

Habitatari dagokionez oso zorrotza ez den espeziea. Zuhaitzak behar ditu umatzeko, eta basoetan nahiz lorategi eta parkeetan ugaldu daiteke. Nahiago ditu hostoerorkorrak koniferoak baino. Espezie troglodita da, hau da, zuhaitzetako zuloetan eta habia-kutxetan umatzen da. Udalerri osoan ondo banatzen da, erdiguneko parke eta auzoak barne, baldin eta gutxieneko tamaina duten zuhaiztiak badaude (1. mapa). Mapa modelizatuaren arabera, espeziea agertzeko probabilitatea oso handia da baso gehien duten laukietan eta landarediaren produktibitate-indizea handiagoa den horietan, hala nola Ulia eta Igeldoko zati handi batean, Ibaetan, Añorgan, Altzako hegoaldean, Landarbason, Oberanen edo Zubietan (2. mapa).

Populazioa

Populazioa 1.500 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 860-2.400). Batez besteko dentsitatea 24,0 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 14,0-39,0) eta balio-rik altuenak baso-ingurunean eta hiriko parkeetan lortzen ditu (Taula).

Kontserbazioa

Goranzko joera Europan[24] eta Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Baso-azalera berreskuratzeak mesede egin dio espezie honi. Gaur egun, beroketa globala da espezieak izan dezakeen arazoetako bat[110]; izan ere, udaberria aurreratzeak errute-data eta beldarren agerpen-aldia bat ez etortzea eragin dezake, eta beldarrak dira bere elikagai nagusietako bat[111]. Hutsuneak dituzten zuhaitz zahar gutxi dauden eremuetan, habia-kutxak jarriz populazioen kolonizazioa edo kontserbazioa sustatu daiteke, lorategiak dituen habitat hiritarrean ikus daitekeen bezala.

Ecología y distribución

Especie poco exigente en cuanto a hábitat. Necesita arbolado para criar y lo hace tanto en zonas forestales como jardines y parques. Prefiere caducifolios a coníferas. Especie troglodita, esto es, cría en huecos de árboles y también en cajas-nido. Se distribuye bien todo el municipio, incluyendo los parques y barrios más céntricos, siempre y cuando exista arbolado de cierto tamaño (Mapa 1). El mapa modelizado indica una probabilidad muy alta de presencia en las celdas más forestales y en las que el índice de productividad de la vegetación es mayor, tales como buena parte de Ulia e Igeldo, Ibaeta, Añorga, el sur de Alza, Landarbaso, Oberan o Zubieta (Mapa 2).

Población

La población se estima en 1.500 aves (rango: 860-2.400). La densidad promedio es de 24,0 aves/km^2 (rango: 14,0-39,0); alcanza valores máximos tanto en el medio forestal como en parques urbanos (Tabla).

Conservación

Tendencia al alza en Europa[24] y en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. La recuperación de la superficie forestal caducifolia ha favorecido a esta especie. El calentamiento global se baraja como uno de los problemas a los que se enfrenta la especie hoy en día[110], ya que el adelanto de la primavera puede producir un desajuste entre la fecha de puesta y el periodo de aparición de orugas, uno de sus principales alimentos[111]. La colocación de cajas-nido puede impulsar la colonización o conservación de poblaciones en zonas con pocos árboles viejos con huecos, como se observa en el hábitat urbano ajardinado.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km^2) Media (aves/km^2)	Tartea (hegazti/km^2) Rango (aves/km^2)
Landazabala / Campiña	21,0	(9,0-39,0)
Basoa / Forestal	51,5	(21,0-94,0)
Hiriko parkea / Parque urbano	54,0	(30,5-89,5)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	0,0	(0,0-0,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	7,0	(1,5-15,5)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Kaskabeltz handia / Carbonero común

Parus major

Ekologia eta banaketa

Baso, parke eta lorategietan umatzen da. Neguan ohikoa da jantokietan ikustea. Espezie troglodita izanik, zuhaitzen zuloetan umatzen da, baita habia-kutxetan ere. Udalerriko espezie arruntenetako bat da. Aipatzen ez den lauki gutxi horietako batzuetan (1. mapa), benetan falta dela baino, gabezia detekzio arazoei egotzi dakieke. Hala, modelizatutako banaketa-mapak adierazten du espeziea agertzeko probabilitatea oso handia dela udalerri osoan (2. mapa). Lauki hiritarrenetan bakarrik bakantzen da, non landarediaren produktibitate-indizea baxua den.

Populazioa

Populazioa 3.000 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 2.000-4.400). Batez besteko dentsitatea 49,5 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 33,5-73,0); baliorik altuenak hiriko parkeetan ditu, baso-inguruneetan baino are gehiago (Taula). Beste parido batzuk ez bezala, habitat guztiz hiritarrean ere agertzen da, 3 hegazti/km^2 inguruko dentsitateak aurkeztuz (Taula).

Kontserbazioa

Goranzko joera Europan[24] eta Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Beroketa globalaren eraginez, txitak jaiotzen diren dataren eta basoan beldarren eskuragarritasunaren artean sortzen den desfaseak ondorio txarrak izan ditzake espeziearentzat[111]. Amilotx urdinarekin bezala, habia-kutxek kolonizazioa bultza dezakete eta ingurune hiritartuenetan duen presentzia sendotu.

Ecología y distribución

Cría en bosques, parques y jardines. En invierno es habitual en comederos. Especie troglodita, cría en huecos de árboles; también en cajas-nido. Es una de las especies más comunes del municipio. En varias de las pocas celdas donde no se cita (Mapa 1), su ausencia se debe, en realidad, a problemas de detección más que a su ausencia real. Así, el mapa de distribución modelizada indica una probabilidad muy alta de hallar la especie en todo el municipio (Mapa 2). Únicamente se rarifica en las celdas más urbanizadas en las que es índice de productividad de la vegetación es bajo.

Población

La población se estima en 3.000 aves (rango: 2.000-4.400). La densidad promedio es de 49,5 aves/km^2 (rango: 33,5-73,0); alcanza valores máximos en parques urbanos, más incluso que en medios forestales (Tabla). A diferencia de otros páridos, entra también en el hábitat urbano duro, con densidades de unas 3 aves/km^2 (Tabla).

Conservación

Tendencia al alza en Europa[24] y en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. El calentamiento global, con el desfase que provoca entre la fecha de puesta y nacimiento de los pollos con la disponibilidad de orugas en el bosque, puede tener malas consecuencias para la especie[111]. Como en el herrerillo común, las cajas-nido pueden impulsar la colonización y consolidar su presencia en los ambientes más urbanizados.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	47,5	(32,0-70,5)
Basoa / Forestal	73,5	(36,0-121,5)
Hiriko parkea / Parque urbano	93,0	(57,5-142,5)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	3,5	(0,0-9,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	8,0	(3,0-14,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Uhalde-enara / Avión zapador

Riparia riparia

Ekologia eta banaketa

Gipuzkoaren kasuan, substratu artifizialean soilik umatzen da, zehazki ibaiertzetako hormetako drainatze-hodietan[112]. Donostian enara honen ugalketa Oria ibaiko eremu batera mugatzen da, Zubieta auzoaren eta Lasarteren artean (1. mapa).

Populazioa

Donostiaren kasuan, habia bakarra aurkitu zen (2019) nagusiki Lasarten kokatzen den Oriaren ibaiertzeko kolonian. Oro har, koloniak 15 bikote inguru ditu. 2007-2008 aldian, Gipuzkoako populazioa 450 bikote ingurukoa zela kalkulatu zen[113], eta, beraz, Donostiak lurralde osoari egindako ekarpena ez litzateke populazioaren %5era iritsiko.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera zalantzazkoa da[24]; Euskadin, berriz, ezezaguna. 'Kaltebera' gisa katalogatuta dago Euskadin. Gipuzkoaren kasuan, hondar edo legarrezko ibai-ebaki hareatsuak ez egotea ez da kontserbaziorako arazo bat. Horrela, espezieak Gipuzkoa kolonizatu du berriki, bideratze-hormen hodietan umatzera egokitu baita[113]. Nolanahi ere, hodi horien desagerpenak (lohiez betetzea, obrak, etab.) arriskuan jar dezake espezieak udalerrian duen populazio urriaren kontserbazioa. Kolonia artifizialen eraikuntzak[114] espeziea egonkortzen lagun dezake.

Ecología y distribución

Es una especie que, en el caso de Gipuzkoa, cría exclusivamente en sustrato artificial, concretamente en tubos de drenaje en muros y escolleras fluviales[112]. La nidificación de este hirundínido en S. Sebastián se limita a una zona del Oria, entre el barrio de Zubieta y Lasarte (Mapa 1).

Población

En el caso de S. Sebastián se encontró un solo nido (2019) perteneciente a una colonia que, mayoritariamente, se sitúa en una orilla del Oria que pertenece a Lasarte. En su conjunto, el tamaño de la colonia es de unas 15 pp. Durante el periodo 2007-2008, la población de Gipuzkoa se estimó en unas 450 pp.[113], por lo que el aporte de S. Sebastián al conjunto del territorio no alcanzaría el 5% de la población de la provincia.

Conservación

La tendencia de su población en Europa es incierta[24]; en Euskadi, desconocida. Catalogada como 'Vulnerable' en Euskadi. En el caso de Gipuzkoa, la ausencia de cortados fluviales arenosos o de gravas no es un problema de conservación. Así, la especie ha colonizado Gipuzkoa recientemente, al adaptarse a criar en tubos de muros de encauzamiento[113]. En todo caso, la desaparición de estos tubos (colmataciones, obras, etc.) sí que es una amenaza que puede poner en riesgo la conservación de la exigua población de la especie en el municipio. La construcción de colonias artificiales[114] podría contribuir a la estabilización de la especie.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Enara arrunta / Golondrina común

Hirundo rustica

Ekologia eta banaketa

Landa-eremuari lotuta dago, ukuilu (batez ere behi-azienda), atari, patio edo terrazetan egiten du habia[115]. Eremu irekietako intsektuez elikatzen da, belardi, soro eta hezeguneen gainetik hegan eginez. Banaketa zatitua dauka udalerrian (1. mapa). Bere presentzia landazabala egoteari lotzen zaio. Ereduak udalerriko lauki landatarrenetan egoteko probabilitate handiagoa aurreikusten du, hala nola Altzako hegoaldea, Añorga, Igeldo eta Zubietako iparraldean (2. mapa). Baso gehien duten laukietan desagertzen da, hala nola Zubietako hegoaldean edo Oberanen.

Populazioa

Ezin da ugaritasun-kalkulu fidagarririk lortu, behaketa gutxi dituen espeziea baita. Populazioa 680 hegaztikoa dela kalkulatzen da (oso ziurgabetasun-maila handiarekin), eta dentsitateak 48 hegazti/km^2-ko balioetara iristen dira hiri-inguruko landazabaletan.

Kontserbazioa

Europan populazioa gainbeheran dago[24]. Euskadin, egonkorra da (aldia: 1998-2019)[25]. Landa-eremuan pestiziden erabilerak, eraikin berrietan umatzeko zailtasunak edo nekazaritza-jarduerak bertan behera uztearen eraginak kaltetutako espeziea da[116]. Donostian, gaur egun, hiri-inguruan bizirik irauten duen abeltzaintzari lotzen da gehienbat. Testuinguru honetan, lurraldearen kudeaketa bat egitearen garrantzia agerian geratzen da, landa-eremuaren irauteaz eta landazabaleko habitataren menpe dauden espezieen kontserbazioaz arduratuko dena.

Ecología y distribución

Se asocia al medio rural, donde nidifica en establos (ligado al ganado vacuno, principalmente), porches, patios o terrazas[115]. Se alimenta de insectos en espacios abiertos, sobrevolando prados, cultivos y humedales. Distribución parcheada en el municipio (Mapa 1). Su presencia se liga a la existencia de campiña. El modelo prevé una mayor probabilidad de presencia en las celdas más rurales del municipio, como el sur de Alza, Añorga, Igeldo y el norte de Zubieta (Mapa 2). Desaparece de las celdas más forestales, como el sur de Zubieta u Oberan.

Población

Es una especie con un número escaso de contactos para la cual, en consecuencia, no es posible obtener estimas fiables de abundancia. Ésta se calcula en 680 aves (con un muy alto margen de incertidumbre), con densidades que alcanzan las 48 aves/km^2 en las campiñas del cinturón periurbano.

Conservación

Población en declive en Europa[24]. En Euskadi, estable (periodo: 1998-2019)[25]. Especie afectada por el uso de plaguicidas en el medio rural, la dificultad de criar en nuevas edificaciones o el abandono de las actividades del campo[116]. En S. Sebastián, su presencia hoy en día se asocia, mayoritariamente, a las ganaderías que perviven en el cinturón periurbano. En este contexto se pone de manifiesto la importancia de llevar a cabo una gestión del territorio que vele por compatibilizar la subsistencia del medio rural con la conservación de las especies que dependen del hábitat de campiña.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada

Posiblea
Posible

Probablea / Segurua
Probable / Seguro





Enara azpizuria / Avión común

Delichon urbicum

Ekologia eta banaketa
Espezie antropofiloa; habiak buztinezkoak eta esferikoak dira eta teilatu-hegalen azpietan egiten ditu[115]. Banaketa sakabanatua eta agregatua dauka udalerrian. Hiru gunetan kontzentratuta dago, Amara Berri-Zorroaga-Loiola elkargunean, Altzan eta Antiguan (1. mapa).

Populazioa
Gaur egun, Donostiako enara azpizuriaren populazioa hiru ugalketa-gune ezagunetara mugatzen da, gutxienez 48 bikoterekin. Altza auzoko gunea da txikiena; 2 bikote baino ez ziren behatu 2019ko udan (Altza pasealekuan).

Kontserbazioa
Europan gainbeheran dagoen populazioa[24]. Euskadiko populazioaren joera, oro har, goranzkoa da (aldia: 1998-2019)[25], udalerri askotan desagertzen edo urritzen ari den arren. Donostian oso espezie urria da eta habiak suntsitzea da espezie honen kontserbaziorako mehatxu handienetariko bat. Antiguako zein Amara Berriko kolonietan suntsitutako habiak ikustea ez da arraroa. Testuinguru honetan, garrantzitsua da ingurumen-hezkuntza eta sentsibilizazio kanpainak egitea, eta, hala badagokio, bizilagunen komunitateetan sor daitezkeen eragozpenak arintzeko neurriak aplikatzea. Airean harrapaturiko intsektuez elikatzen den espeziea denez, intsektiziden erabilera edo kutsadura mehatxu-faktoreak dira.

Ecología y distribución
Especie antropófila; hace nidos de barro, esféricos, bajo aleros y tejados[115]. Distribución dispersa y agregada en el municipio. Aparece concentrada en tres núcleos, en la zona de confluencia de Amara Nuevo-Zorroaga-Loiola, en Alza y en el Antiguo (Mapa 1).

Población
En la actualidad la población de avión común en S. Sebastián se limita a tres puntos de cría conocidos, con un mínimo de 48 pp. El núcleo del barrio de Alza es el más pequeño con tan solo 2 pp. observadas en el verano de 2019 (Paseo de Altza).

Conservación
Población en declive en Europa[24]. La tendencia de la población en Euskadi es, globalmente, al alza (periodo: 1998-2019)[25], aunque está desapareciendo o se rarifica en muchos municipios. En S. Sebastián es una especie muy escasa, para la cual la destrucción de nidos se identifica como una de sus amenazas más importantes para su conservación. No es raro observar nidos destruidos tanto en las colonias del Antiguo como en Amara Nuevo. En este contexto, es importante llevar a cabo campañas de sensibilización y educación ambiental y promover, en su caso, la aplicación de medidas para mitigar las molestias que, potencialmente, puedan causar en comunidades de vecinos. Debido a que es una especie que se alimenta de insectos que son capturados en el aire, el empleo de insecticidas o la contaminación son, también, factores de amenaza.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Errekatxindorra / Cetia ruiseñor

Cettia cetti

Ekologia eta banaketa

Urarekin lotutako landaredi-eremu itxietan umatzen da, ibaietan, ubideetan, kanaletan, hezeguneetan etab.[117] Donostian landaredi nahasi ugari dagoen hezegune gehienetan ohikoa da, hala nola sastrakadietan, sahastietan... Ohikoagoa da ibilgu garrantzitsuenetatik hurbil: Oria (Zubieta), Urumea, Molinao eta Igara (1. mapa). Gainera, Igeldoko kostaldeko lerroan zehar zenbait puntutan ere ikusten da, seguruenik hezetasunmaila handiagoa duten haran txiki eta erreka-zuloei lotua.

Populazioa

Espezie urria da, oso datu kuantitatibo gutxirekin, eta, beraz, ugaritasuna ezin da kalkulatu zentsoetan oinarrituta. Eskualde kantauriarrean 27 hegazti/km^2-ko dentsitateak kalkulatzen dira[4]. Espeziea ikusten den lauki-kopuruan oinarrituz, gutxienez 360 hegaztiko populazioa lortuko litzateke.

Kontserbazioa

Populazioa egonkorra Europan[24] eta Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Udalerri mailan, bere habitatak askotan ibilguetan, ezpondetan eta areketan egiten diren garbiketa lanak jasaten ditu. Hau, gutxienez ugalketa-garaian, saihestu egin beharko litzateke. Espezie honen kontserbazioa bermatzeko funtsezkoa da ibaien ibilguen, erreken eta ubideen ondoko landaredi nahasi eta itxia kontserbatzea.

Ecología y distribución

Cría en zonas de densa vegetación asociada al agua, en ríos, acequias, canales, humedales, etc.[117] En S. Sebastián es común en casi todo tipo de zonas húmedas donde exista gran cantidad de vegetación enmarañada, como zarzales, saucedas… Tiende a ser más común cerca de los cauces más importantes: Oria (Zubieta), Urumea, Molinao e Igara (Mapa 1). Además, también se observa en varios puntos a lo largo de la línea de costa en Igeldo, posiblemente ligado a pequeños valles y vaguadas donde el nivel de humedad es mayor.

Población

Especie escasa, con muy pocos datos a nivel cuantitativo, lo cual impide calcular su abundancia a partir de censos. En la región cantábrica se calculan densidades de 27 aves/km^2[4]. Considerando el número de celdas en las que se observa la especie, se obtendría una población mínima de 360 aves.

Conservación

Población estable en Europa[24] y Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. A nivel local, su hábitat es a menudo objeto de limpieza de cauces, taludes y cunetas, lo cual debe evitarse al menos durante el periodo de cría. La conservación de la vegetación ribereña enmarañada y densa junto al cauce de ríos, regatas y canales es fundamental para garantizar la conservación de esta especie.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada

Posiblea
Posible

Probablea / Segurua
Probable / Seguro



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia

Min. / Mín.

Max. / Máx.





Buztanluzea / Mito común

Aegithalos caudatus

Ekologia eta banaketa

Basoko espeziea da, eta zuhaitzak behar ditu umatzeko. Baso hostoerorkorrak nahiago ditu, nahiz eta pinudietan ere agertzen den. Donostian, zuhaizti pixka bat dagoen ia edozein gunetan ugaltzen da, basoetatik hasi eta parke handi eta lorategietaraino (1. mapa). Ondo banatzen da udal-eremu osoan, baina mapa modelizatuak baso-espazioak nahiago dituela adierazten du, eta eremu urbanizatuenetan urriagoa da (espeziea ez da ageri Erdialdeko, Alde Zaharreko eta Amarako hainbat laukitan) (2. mapa).

Populazioa

Behaketa gutxi dituen espeziea denez, ezin da haren ugaritasuna zenbatetsi ziurgabetasun-maila oso handia onartu gabe. Populazioa 460 hegaztikoa dela kalkulatzen da (beraz, litekeena da benetako tamaina ehunka ale batzuetan ezartzea), 7,5 hegazti/km^2-ko batez besteko dentsitatearekin, baina baso-eremuetan 25 hegazti/km^2-tik gorakoa izango litzateke.

Kontserbazioa

Populazioa egonkorra Europan[24]. Joera zalantzazkoa Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Udalerri mailan, kale eta etorbideetan eta auzo urbanizatuenetan zuhaitzak landatzeak espezie honen presentzia areagotu dezake. Era berean, zuhaitzen azpiko geruzaren kontserbazioak (elorri zuri, arrosa-landare eta bestalako arantzadun espezieen presentziarekin) mesedea egin diezaioke espezie honi.

Ecología y distribución

Especie forestal que necesita arbolado para criar. Prefiere bosques caducifolios, si bien también aparece en pinares. En S. Sebastián cría en casi cualquier zona donde haya algo de arbolado, desde bosques hasta grandes parques y espacios ajardinados (Mapa 1). Se distribuye bien en todo el área municipal, pero el mapa modelizado indica preferencia por los espacios forestales, mientras que se rarifica en las zonas más urbanizadas (la especie está ausente en varias celdas de la zona Centro, Parte Vieja y Amara) (Mapa 2).

Población

Es una especie con un número escaso de contactos para la cual, en consecuencia, no es posible estimar su abundancia sin asumir una incertidumbre muy alta. La población se estima en 460 aves (por lo que es probable que el tamaño real se establezca en unos centenares de individuos), con una densidad promedio de 7,5 aves/km^2, pero que en los medios forestales se situaría en más de 25 aves/km^2.

Conservación

Población estable en Europa[24]. Tendencia incierta en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. A escala de municipio, la plantación de arbolado en calles y avenidas podría favorecer la presencia de esta especie incluso en los barrios más urbanizados. Asimismo, la conservación del estrato sub-arbóreo de especies como el majuelo, rosales y espinos puede, también, favorecer la presencia de la especie.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada

Posiblea
Posible

Probablea / Segurua
Probable / Seguro



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia

Min. / Mín.

Max. / Máx.





Txio arrunta/iberiarra / Mosquitero común/ibérico

Phylloscopus collybita/ibericus

Ekologia eta banaketa

Oso antzekoak diren bi espezie dira. Orain dela gutxi arte, txio iberiarra, txio arruntaren subespezie gisa onartzen zen[118]. Litekeena da Donostian ugaltzen diren txio gehienak iberikoak izatea, baina hau oraindik egiaztatu behar den zerbait da. Kantua bi espezieen artean nabarmen aldatzen bada ere, Gipuzkoa bien arteko hibridazio probabilitate handia duen eremuan kokatzen da[118]. Sarritan badira espezie batera edo bestera hain argi egokitzen ez diren aleak, eta beraz, espezie hauek bereizteko orduan nolabaiteko arduraz jokatu behar da. Horrela, lan honetan bi espezieen informazioa batera biltzea erabaki da. Biak basokoak dira, eta mota guztietako basoetan ugaltzen dira. Donostian, ia udalerri osoan daude, bai landa-eremuetan, bai hiriko parkeetan (1. mapa). Egia da, hala ere, eremu urbanizatuenetan urritzen direla (2. mapa).

Populazioa

Populazioa 2.100 hegaztikoa dela kalkukatzen da (balio-tartea: 1.100-3.900). Batez besteko dentsitatea 34,5 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 18,0-63,5); balio maximoak baso-eremuetan lortzen ditu (Taula).

Kontserbazioa

Europan, bi espezieen kontserbazio-egoera ona da[24]. Euskadin, goranzko joera du txio iberiarrak (arrunterako ez dago balioespenik; aldia: 1998-2019)[25]. Bere banaketa zabalak eta zuhaitzen ugaritasunak, espezie bikote honen kontserbazio-egoera ona iradokitzen dute udalerri mailan. Hala ere, komenigarria litzateke udalerrian bi espezieen egoera berrikusteko eta ebaluatzeko ikerketak egitea.

Ecología y distribución

Se trata de dos especies muy similares. Hasta hace poco, el mosquitero ibérico se incluía como una subespecie del mosquitero común[118]. Es muy probable que la mayor parte de los mosquiteros que se reproducen en S. Sebastián sean ibéricos, pero es algo que, todavía, debe comprobarse. Aunque el canto varía sensiblemente entre especies, Gipuzkoa se sitúa en una zona con una alta probabilidad de hibridación entre ambas especies[118] y con frecuencia hay individuos a los que no es tan obvio asignarlos a una u otra especie, lo cual obliga a cierta prudencia a la hora de distinguirlas. Así, en esta obra se ha decidido agrupar la información de las dos especies. Ambas, forestales, crían en todo tipo de bosques. En S. Sebastián se distribuyen en casi todo el municipio, tanto en zonas rurales como en parques urbanos (Mapa 1). Es cierto, no obstante, que se rarifican en las zonas más urbanizadas (Mapa 2).

Población

La población se estima en 2.100 aves (rango: 1.100-3.900). La densidad promedio es de 34,5 aves/km^2 (rango: 18,0-63,5); alcanza valores máximos en medios forestales (Tabla).

Conservación

En Europa, el estado de conservación de las dos especies es bueno[24]. En Euskadi, tendencia al alza para el mosquitero ibérico (para el común no se dispone de estimas; periodo: 1998-2019)[25]. Su amplia distribución y la abundancia de arbolado sugieren un buen estado de conservación de este complejo de especies a nivel local. No obstante, convendría llevar a cabo trabajos orientados a revisar y evaluar la situación de las dos especies en el municipio.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km^2) Media (aves/km^2)	Tartea (hegazti/km^2) Rango (aves/km^2)
Landazabala / Campiña	21,0	(7,5-43,5)
Basoa / Forestal	91,0	(35,5-183,0)
Hiriko parkea / Parque urbano	41,5	(16,5-83,0)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	0,0	(0,0-0,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	1,5	(0,0-5,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Lezkari arrunta / Carricero común

Acrocephalus scirpaceus

Ekologia eta banaketa

Egitura bertikala duen landaredi zingiratsuko habitatetan umatzen da, lezkadietan normalean[117]. Gaur egun, udalerriko habitat urrienetako bat denez, espezie honen presentzia Urumea ibaiaren (Loiola auzoa) eta Oriaren (Zubieta-Lasarte muga) lezkadi-lerro txiki jakin batzuetara mugatuta dago (1. mapa). Horregatik, udalerrian banaketa-eremu mugatuena duen espezieetako bat da.

Populazioa

Udalerriko populazioa ez da ondo ezagutzen, ez baita hura detektatzeko zentsorik burutu[119], baina litekeena da 10 lurraldetik beherako zifra izatea. Gainera, bere ugalketa ez da baieztatu; arrak kantari eta lurraldeak defendatzen baino ez ziren hauteman, beraz, "habiagile probablea" egoera egokitzen zaio, baina ez segurua.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera egonkorra da[24]. Euskadin 'Bakan' gisa katalogatuta dago eta bertako populazioaren joera zalantzazkoa da, agian gorabeheratsua[120]. Donostian oso hegazti arraroa da, eta ugaltzeko habitat gutxi izateak espeziea galzorian jartzen du udalerrian. Testuinguru honetan, funtsezkoa izango litzateke Urumeako eta Oriako ibaiertzetako lezkadiak lehengoratzea, baita beste hezegune-mota batzuk ere (zenbait urmael, putzu eta abar). Ibai-ibilguen bideratzeak, erreka bazterreko lezkadiak leheneratu gabe egiten denean, ez du espeziearen kontserbazio-egoera hobetzen laguntzen.

Ecología y distribución

Cría en hábitats de vegetación palustre de estructura vertical, normalmente en carrizales[117]. Actualmente, éste es uno de los hábitats más escasos del municipio por lo que la presencia de esta especie está limitada a pequeñas líneas de carrizal en determinados márgenes del río Urumea (barrio de Loiola) y Oria (límite Zubieta-Lasarte) (Mapa 1). Por ello, es una de las especies con un área de distribución más restringida del municipio.

Población

La población del municipio no se conoce bien, ya que no se han desarrollado censos orientados a su detección[119], pero se situaría, posiblemente, en una cifra por debajo de 10 territorios. Su reproducción, además, no ha sido confirmada; solo se detectaron machos cantando y defendiendo territorios, lo que hace que se le asigne el estado de reproductor probable, pero no seguro.

Conservación

La tendencia de la población en Europa es estable[24]. Está catalogada como 'Rara' en Euskadi y la tendencia de su población es incierta, tal vez fluctuante[120]. En S. Sebastián es un ave muy rara y la escasez de hábitat para su reproducción pone a la especie en peligro de extinción en el municipio. En este contexto, sería clave promover la restauración de carrizales en las márgenes del Urumea y Oria, así como en otro tipo de humedales (ciertas charcas, balsas, etc.). El encauzamiento de cursos fluviales no acompañado de la regeneración de márgenes de carrizal no contribuye a la mejora del estado de conservación de la especie.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada

Posiblea
Posible

Probablea / Segurua
Probable / Seguro





Sasi-txori arrunta / Zarcero políglota

Hippolais polyglotta

Ekologia eta banaketa
Zuhaixkaz osatutako habitatei, zuhaitz sakabanatuak dituzten toki zabalei eta baso-ertzei lotutako espeziea[117]. Donostian, Ulian edo Igeldon gelditzen diren ameztien gune txikiak edo zuhaitz solteak hartzen ditu, baita landa-eremuetako zein parkeetako mota guztietako eremu zabalak. Zuhaixkak edo gutxi garatutako zuhaiztiak dituzten zelaiguneetan ere agertzen da. Udalerri osoan oso ondo banatutako espeziea da, bai landa-eremuetan, bai hirian bertan (1. mapa). Hiriaren ingurabidean gertatzen den bezala, sastrakadiaren azalera handieneko laukietan espeziea egoteko probabilitatea maximoa da (2. mapa). Baso gehien duten laukietan urritzen da, Zubieta, Landarbaso edo Oberan gehienean.

Populazioa
Populazioa 1.300 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 650-2.600). Batez besteko dentsitatea 22,0 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 10,5-43,0); balio maximoak lortzen ditu hiriaren inguruko landazabaletan (Taula).

Kontserbazioa
Populazioaren joera goranzkoa da Europan[24] eta Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Ugaltzeko zuhaixkageruzen beharra duenez, sastrakadiak bezalako habitaten suntsipenak, lurzoruaren erabileraren aldaketek eta landazabalean biozida gehiegi erabiltzeak eragina izan dezake udalerri mailan. Testuinguru honetan, basoen eta parke handien "garbiketa" ekintzak saihestu edo murriztu beharko lirateke.

Ecología y distribución
Especie ligada a hábitats arbustivos, espacios semiabiertos con arbolado disperso así como bordes forestales[117]. En S. Sebastián ocupa zonas de landas donde quedan pies o manchas de melojar en Ulia o Igeldo, espacios semiabiertos de todo tipo tanto en zonas rurales como en parques. También se cita en descampados con arbustos o arbolado poco desarrollado. Es una especie muy bien distribuida en todo el municipio, tanto en zonas rurales como en la propia ciudad (Mapa 1). La probabilidad de presencia es máxima en las celdas con más superficie de matorral, como pasa en el cinturón periurbano (Mapa 2). Se rarifica en las zonas más boscosas, en buena parte de Zubieta, Landarbaso u Oberan.

Población
La población se estima en 1.300 aves (rango: 650-2.600). La densidad promedio es de 22,0 aves/km^2 (rango: 10,5-43,0); alcanza valores máximos en las campiñas del cinturón periurbano (Tabla).

Conservación
La tendencia de su población en Europa[24] y en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25] es al alza. Su asociación a estratos arbustivos para criar hace que pueda ser afectado a nivel local en caso de destrucción de hábitats como zarzales, así como por cambios en los usos del suelo y abuso de biocidas en la campiña. En este contexto, la "limpieza" de bosques y grandes parques es una práctica que debe evitarse o reducirse.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km^2) Media (aves/km^2)	Tartea (hegazti/km^2) Rango (aves/km^2)
Landazabala / Campiña	45,5	(21,0-90,5)
Basoa / Forestal	17,0	(0,0-48,0)
Hiriko parkea / Parque urbano	4,0	(0,0-11,5)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	0,0	(0,0-0,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	10,5	(3,0-24,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Benarriz nabarra / Buscarla pintoja

Locustella naevia

Ekologia eta banaketa

Habitat irekietan (belardiak) eta sastraketan egoten da[117]. Donostiaren kasuan, sastraka arantzatsuak (otea, elorri-triska) dituzten habitatetan eta sasi ugari dagoen eremuetan ohikoa da, hala nola Ulia mendiaren iparraldeko hegalean eta Igeldon, espeziea agertzen den eremu bakarrak izanik (1. mapa). Banaketa-eremuaren zati handi batera iristeko zailtasuna eta espeziearen detektagarritasun txikia dela eta, uste da hegazti hau atlasa egin den garaian behatu ez den zenbait eremutan ere ager daitekeela.

Populazioa

Kalkulatzen zaila da, espeziea ikusi den lauki-kopurua txikia delako. Euskadin 14-50 hegazti/km^2-ko dentsitateak kalkulatu ziren[89,90,121]. Dentsitate hauek onartuta, espeziea Donostian aipatzen den laukietarako, 35 eta 130 hegazti ugaltzaile arteko balioa kalkulatuko litzateke. Ondorioz, gutxienez 100 aleko populazioa onartu daiteke.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera goranzkoa da[24]; Euskadiren kasuan, ez da aztertu. Donostian espeziea kontserbatzeko habiak egiten dituen habitatak babestu behar dira (kostaldeko otalurrak, txilardiak eta otadiak). Testuinguru honetan, Ulian eta, batez ere, Igeldon izaten diren suteak oso larriak izan daitezke ugalketa-garaian gertatzen badira (apiriletik uztailera bitartean). Epe luzera duten eginkizuna eztabaidagarriagoa da, baso-birsorkuntza saihesten dutelako eta espeziearen habitatarentzat onuragarriak diren garapen-etapa batzuetan mantentzen baitute ekosistema.

Ecología y distribución

Ocupa hábitats abiertos (herbazales) y matorral[117]. En el caso de S. Sebastián es frecuente en hábitats con matorral espinoso (tojo, aulaga) y zonas con zarza abundante, como es el caso de la cara norte del monte Ulia e Igeldo, únicas zonas donde se cita (Mapa 1). La dificultad de acceso a una buena parte del área de distribución de la especie en el municipio y su baja detectabilidad, sugieren que esta ave podría aparecer en zonas donde no ha sido observada durante el periodo de elaboración de este atlas.

Población

Difícil de estimar, dado el escaso número de celdas donde se ha visto. En Euskadi se calcularon densidades de 14 a 50 aves/km^2[89,90,121]. Asumiendo esas densidades para aquellas celdas en las que la especie se cita en S. Sebastián, se estimaría un valor de 35 a 130 aves reproductoras en esas celdas. Podría asumirse, en consecuencia, un tamaño poblacional mínimo de unos 100 ejemplares.

Conservación

La tendencia de la población en Europa es al alza[24]; en el caso de Euskadi, no ha sido evaluada. Su conservación en S. Sebastián pasa por la protección de los hábitats donde nidifica (landas costeras, brezales y argomales). En este contexto, los incendios que suelen registrarse en Ulia y, fundamentalmente, Igeldo, pueden ser muy críticos si se producen en periodo de cría (entre los meses de abril a julio), aunque su papel a largo plazo es más controvertido por evitar la regeneración forestal y mantener el ecosistema en unas etapas de desarrollo que son favorables para el hábitat de la especie.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Ihi-txoria / Cistícola buitrón

Cisticola juncidis

Ekologia eta banaketa

Belardietako ohiko espeziea. Eremu zabalekin lotzen da, belar altuekin, non habia egiten duen eta elikagaia bilatzen duen[117]. Donostiaren kasuan, nahiko arrunta da, bai larreetan, bai belarrezko lorategi zabaletan eta landaretza belarkara ugari duten zelaietan. Donostian duen banaketa hiri-inguruko belardi eta gune ireki belartsuak dauden guneetara mugatzen da, Igeldon, Unanuen, Landarbason, Martuteneko zenbait tokitan edo Ulian gertatzen den bezala (1. mapa). Azken kasu honetan, kostaldera ematen duten mendi-hegaletako belardietan aipatzen da espeziea.

Populazioa

Espeziea aipatzen den lauki-kopurua txikia denez, ugaritasuna ezin da kalkulatu ereduen bidez. Espainia osoan, belardietan duen dentsitatea 35 hegazti/km^2 ingurukoa da[4], eta horrek Donostiarako 170 ale emango lituzke. Urdaibaiko landazabaletan, Galarzak[122] 20-50 hegazti/km^2-ko dentsitatea kalkulatu zuen, eta horrek 100 eta 240 hegazti arteko balioa emango luke Donostiarentzat. Beraz, udalerrian gutxienez 100-200 hegazti daudela onartu daiteke.

Kontserbazioa

Populazio egonkortua Europan[24]. Euskadin, gainbeheran (aldia: 1998-2019)[25]. Habitataren suntsipenari (basoberritzeak, urbanizazioak, azpiegiturak eraikitzea) eta pestizidak erabiltzeari sentikorra den espeziea. Donostian, mehatxurik garrantzitsuenak gune irekien urbanizazioa (batez ere larre eta belardietan), landazabala uztea eta bioziden gehiegizko erabilera izango lirateke. Ugalketa-garaian belarra mozteak kalte larriak eragin ditzake leku jakin batzuetan.

Ecología y distribución

Especie típica de herbazales. Se asocia a espacios abiertos, de hierba alta, donde anida y busca alimento[117]. En el caso de S. Sebastián es relativamente común tanto en prados como en jardines extensos de hierba y descampados con abundancia de vegetación herbácea. Su distribución en S. Sebastián se ajusta a zonas periurbanas donde existe buena representación de prados y espacios abiertos herbosos, como ocurre en Igeldo, Unanue, Landarbaso, ciertos lugares en Martutene, o Ulia (Mapa 1). En este último caso la especie se cita en herbazales situados en las laderas que dan hacia la costa.

Población

El comparativamente escaso número de celdas en las que se cita la especie impide estimar su abundancia a través de modelos. Para el conjunto de España, su densidad en herbazales se estima en unas 35 aves/km^2[4], lo cual daría para S. Sebastián 170 individuos. En campiñas de Urdaibai, Galarza[122] estimó densidades de 20 a 50 aves/km^2, lo que daría una estima de 100 a 240 aves para S. Sebastián. Así pues, podría asumirse un mínimo de 100 a 200 aves en el municipio.

Conservación

Población estabilizada en Europa[24]. En Euskadi, en declive (periodo: 1998-2019)[25]. Especie sensible a la alteración del hábitat por destrucción del mismo (reforestaciones, urbanizaciones, construcción de infraestructuras…) así como por el uso de plaguicidas. En S. Sebastián las amenazas más importantes vendrían a través de la urbanización de espacios abiertos (principalmente prados y herbazales), el abandono de la campiña y el abuso de biocidas. Los cortes de hierba en plena época de cría pueden ser críticos en determinadas zonas.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Txinbo kaskabeltza / Curruca capirotada

Sylvia atricapilla

Ekologia eta banaketa

Baso eta landaredi itxia duten parkeetako eremu ospeletan umatzen da[117], hala nola Urgull edo Ametzagainan, Aieteko eremu batzuetan edo hiriaren erdigunean bertan (Cristina Enean, adibidez). Altuera txikiko zuhaixka eta sastraketan egiten du habia. Udalerrian gehien zabalduta dagoen hegaztietako bat da. Lauki askotan agertzen da (1. mapa), eta litekeena da hainbat laukitako gabezia hautemateko arazoengatik izatea, benetako presentzia eza baino. Horrela, mapa modelizatuak oso banaketa zabala adierazten du, ia orokorra, lauki hiritarrenetan izan ezik (2. mapa).

Populazioa

Populazioa 4.600 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 3.100-6.800). Batez besteko dentsitatea 76,0 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 50,0-112,0); baliorik altuenak (160 hegazti/km^2-tik gora) baso-inguruneetan aurkezten ditu eta hiriko parkeetan ere oso balio altuak ditu (Taula).

Kontserbazioa

Populazioaren joera goranzkoa da Europan eta Euskadin (aldia: 1998-2019)[24,25]. Baso-azalera berres-kuratzeak mesede egin dio espezieari. Donostian oso espezie ugaria da, eta ez da haren kontserbazio-egoera arriskuan jar dezakeen mehatxurik identifikatu.

Ecología y distribución

Cría en bosques y parques de vegetación densa en zonas de umbría[117], como ocurre en Urgüll o Ametzagaina y en zonas de Aiete o el propio centro de la ciudad (como Cristina Enea). Anida en arbustos y zarzas a baja altura. Es una de las aves más extendidas en el municipio. Aparece en un gran número de celdas (Mapa 1), y es muy probable que su ausencia en varias se deba a problemas de detección, más que a una ausencia real. Así, el mapa modelizado indica una distribución muy amplia, casi generalizada, con la excepción de las celdas más urbanizadas (Mapa 2).

Población

La población se estima en 4.600 aves (rango: 3.100-6.800). La densidad promedio es de 76,0 aves/km^2 (rango: 50,0-112,0); alcanza valores máximos (de más de 160 aves/km^2) en medios forestales, así como muy altos, también, en parques urbanos (Tabla).

Conservación

La tendencia de su población en Europa y Euskadi (periodo: 1998-2019) es al alza[24,25]. La recuperación de la superficie forestal ha favorecido a la especie. En S. Sebastián es una especie muy abundante, para la cual no se identifican amenazas que pudieran comprometer su estado de conservación.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km^2) Media (aves/km^2)	Tartea (hegazti/km^2) Rango (aves/km^2)
Landazabala / Campiña	72,5	(48,5-107,0)
Basoa / Forestal	160,5	(104,0-240,5)
Hiriko parkea / Parque urbano	93,5	(44,0-160,0)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	4,0	(0,0-9,5)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	11,0	(3,0-22,5)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Baso-txinboa / Curruca mosquitera

Sylvia borin

Ekologia eta banaketa
Habitat fresko eta hezeetara loturiko basoko espeziea da[117]. Donostian oso hegazti urria da, Igeldo, Martutene, Añorga eta Obaraneko gune isolatuetan bakarrik aipatzen da (1. mapa), bertako baso hostoerorkorrei lotuta.

Populazioa
Behaketak dituzten lauki-kopuru eskasak, ugaritasun-eredua kalkulatzea eragozten digu. Kantauriar eskualdeko larre eta zuhaitzen paisaietan 15 hegazti/km^2-ko balioak zenbatesten dira[4]. Donostiara estrapolatuz, populazioa gutxienez 50 hegaztiz osatuko litzateke.

Kontserbazioa
Europako populazioaren joera zalantzazkoa da[24]; Euskadin, beheranzkoa (aldia: 1998-2019)[25]. Udalerri mailan urria da; ezinbestekoa da espeziearentzat egokiak diren baso-masak kontserbatzea udalerrian bere presentzia bermatzeko.

Ecología y distribución
Especie forestal, ligada a hábitats frescos y húmedos[117]. En S. Sebastián es un ave muy escasa, citada aisladamente en puntos de Igeldo, Martutene, Añorga y Obaran (Mapa 1), asociada a bosques caducifolios nativos.

Población
El escaso número de celdas con citas nos impide calcular modelos de abundancia. En paisajes de prados y arbolado de la región Cantábrica se estiman valores de 15 aves/km^2[4]. Extrapolándolo a S. Sebastián, la población se estimaría en un mínimo de 50 aves.

Conservación
La tendencia de la población en Europa es incierta[24]; en Euskadi, a la baja (periodo: 1998-2019)[25]. Escasa a nivel local; la conservación de masas forestales aptas para la especie es vital para poder garantizar su presencia en el municipio.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Etze-txinboa / Curruca rabilarga

Sylvia undata

Ekologia eta banaketa

Leku eguzkitsu eta lehorrenetako zuhaixka edo sastraketan umatzen den hegazti termofiloa da[117]. Txilardiak eta izaera arantzatsuko beste landaredi-mota batzuk nahiago ditu, otea esaterako. Donostian, Ulia eta Igeldon hainbat laukitan aipatzen da (1. mapa), kostaldetik gertu edo bertan dauden sastrakadun habitat irekiei lotuta. Hala ere, behaketa kopurua ez da nahikoa banaketa-ereduak egiteko.

Populazioa

Behaketa gutxi daudenez, Donostiako populazioaren tamaina zenbatesteko beste eremu batzuetan kalkulatutako dentsitateetan oinarritu gara. Espainia osorako datuak begiratuta, Kantauriar eskualdean 7 hegazti/km^2-ko balioa kalkulatzen bada ere[4], Bizkaian 20 hegazti/km^2-ko batez besteko balioak kalkulatu izan dira[90]. Beraz, Donostian espeziea hauteman zen lauki-kopurua kontuan hartuta, populazioaren tamaina ehun ale ingurukoa izan daiteke.

Kontserbazioa

Europan gainbeheran dagoen espeziea[24]. Euskadin, zalantzazkoa (aldia: 1998-2019)[25]. Udalerri mailan, bere habitata osatzen duten kostaldeko txilardi eta otadiak kontserbatzeko beharra azpimarratu behar da.

Ecología y distribución

Es un ave termófila que cría en arbustos o matorrales a escasa altura, en las zonas más soleadas y secas[117]. Prefiere brezales u otros tipos de vegetación de carácter espinoso, como el tojo. En S. Sebastián se cita en varias celdas de Ulia e Igeldo (Mapa 1), asociada a hábitats matorralizados abiertos situados en o cerca de la línea de costa. El escaso número de observaciones, no obstante, impide hacer modelos sobre su distribución.

Población

El bajo número de citas nos lleva a estimar un tamaño poblacional basado en densidades calculadas para otras zonas. Aunque para el conjunto de España se estima un valor de 7 aves/km^2 en la zona cantábrica[4], en Bizkaia se llegaron a calcular medias de 20 aves/km^2[90]. Así pues, teniendo en cuenta el número de celdas en las que la especie se observó en S. Sebastián, el tamaño de la población podría situarse en torno al centenar de ejemplares.

Conservación

Especie en declive en Europa[24]. Tendencia incierta en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. A escala de municipio, conviene resaltar la necesidad de conservar los brezales costeros y los aulagares que conforman su hábitat.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Txinbo burubeltza / Curruca cabecinegra

Sylvia melanocephala

Ekologia eta banaketa

Oso banaketa berezia duen espeziea, zuhaixkadun habitat termofiloetan (kostaldeko landa eta sastrakaditan) kontzentratzen da Ulian eta Igeldon (azken honetan, litekeena da banaketa-eremua lan honetan adierazitakoa baino zerbait zabalagoa izatea), baita Zubieta iparraldeko magal batean, Ametzagaina parkean eta Martutenen ere (1. mapa). Txinbo espezie honek 1980ko hamarkadan kolonizatu zuen kantauriar eskualdea, artadi orbanei edo habitat hau degradatzean ordezkatzen duten etapei lotuta (oro har, sastrakak)[123].

Populazioa

Banaketa-eremu txikia duenez, ez da honen populazioa ondo ezagutzen eta, ondorioz, maila kuantitatiboan egindako zentsoetan gutxi azaltzen da. Donostian duen dentsitatea ez dirudi eskualde mediterranearretan aipatzen direnak bezain altua denik, non 64 eta 145 hegazti/km^2 arteko dentsitateak kalkulatzen diren[4]. Espeziea behatua izan den laukien kopurua eta 64 hegazti/km^2-ko balioa kontuan hartuta, 190 hegazti izango genituzke gutxienez; hala ere, zenbaki hau benetako populazioarena baino handiagoa izan liteke.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera egonkorra da[24]; Euskadin, goranzkoa (aldia: 1998-2019)[25,123]. Gipuzkoako hegazti habiagileen atlasean, probintziako mendebaldean kokatutako lauki batean baino ez zen erregistratu espeziea[65]; beraz, Donostian behatzeak txinbo honen euskal kostaldeko hedatze-prozesua berresten du. Udalerri mailan, garrantzitsua da batez ere Ulian eta Igeldon sastrakadiak eta otalurrak dituzten espazioen kontserbazioa bermatzea.

Ecología y distribución

Especie con una distribución muy particular, concentrada en hábitats arbustivos termófilos (landas costeras y matorral) en Ulia e Igeldo (en este último es muy probable que el área de distribución sea sensiblemente más amplia que lo representado en esta obra), así como una ladera del sector septentrional de Zubieta, el Parque de Ametzagaina y Martutene (Mapa 1). El área cantábrica fue colonizada por esta curruca durante la década de 1980, ligada a manchas de encinar o las etapas que lo reemplazan (generalmente, matorrales) cuando el hábitat se degrada[123].

Población

Población mal conocida por su reducida área de distribución y, en consecuencia, poco representada en los censos que se llevaron a cabo a escala cuantitativa. No parece que las densidades en S. Sebastián sean tan elevadas como en la región mediterránea, donde se citan estimas entre 64 y 145 aves/km^2[4]. Teniendo en cuenta el número de celdas donde se ha visto la especie y valores de 64 aves/km^2, obtendríamos un mínimo de 190 aves, estima que podría situarse muy por encima del tamaño real.

Conservación

La tendencia de su población en Europa es estable[24]; en Euskadi, al alza (periodo: 1998-2019)[25,123]. En el atlas de aves nidificantes de Gipuzkoa solo se registró en una celda del sector más occidental de la provincia[65], por lo que su presencia en S. Sebastián confirma el proceso de expansión de esta curruca en la costa vasca. A nivel local, es importante garantizar la conservación de espacios con matorral y landas en Ulia e Igeldo, principalmente.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Erregetxo bekainzuria / Reyezuelo listado

Regulus ignicapilla

Ekologia eta banaketa

Basoko hegaztia; zuhaitz hostoerorkor zein koniferoz osatutako basoetan agertzen da[117]. Ondo egokitu da lorategi eta parkeetara. Donostian, ia udalerri osoan aipatzen da; beraz, oso espezie arrunta dela esan daiteke (1. mapa). Hiri-erdiguneko parkeetan ere agertzen da, hala nola Gipuzkoa Plazan. Ereduak lauki hiritarrenetan egoteko probabilitate txikiagoa aurreikusten du (2. mapa), baina, nolanahi ere, udalerri osoan banaketa zabala duen espeziea da.

Populazioa

Populazioa 5.400 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 2.900-10.100). Batez besteko dentsitatea 88,5 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 47,5-164,5); balio maximoak (200 hegazti/km^2 baino gehiago) hiriko parkeetan eta baso-inguruneetan lortzen ditu (Taula).

Kontserbazioa

Populazioen joera goranzkoa da Europan eta Euskadin (aldia: 1998-2019)[24,25]. Penintsula mailan ematen ari den baso-masaren berreskuratzea da goranzko joera hori sustatzen ari dena. Donostian, ondo garatutako zuhaitzak dituzten baso eta parkeen kontserbazioak espeziearen presentzia sustatzen du.

Ecología y distribución

Ave forestal; presente tanto en masas de caducifolios como de coníferas[117]. Se ha adaptado bien a jardines y parques. En S. Sebastián es una especie muy común que se cita en casi todo el municipio (Mapa 1). Aparece, incluso, en los parques más céntricos, como es la Plaza de Gipuzkoa. El modelo prevé una menor probabilidad de presencia en las celdas más urbanas (Mapa 2), si bien en todo caso es una especie con una amplia distribución en todo el municipio.

Población

La población se estima en 5.400 aves (rango: 2.900-10.100). La densidad promedio es de 88,5 aves/km^2 (rango: 47,5-164,5); alcanza valores máximos (de más de 200 aves/km^2) en los parques urbanos así como en medios forestales (Tabla).

Conservación

La tendencia de su población en Europa y en Euskadi (periodo: 1998-2019) es al alza[24,25]. La recuperación generalizada de la masa forestal a escala peninsular está promoviendo esta tendencia al alza. En S. Sebastián, la conservación de bosques y parques con arbolado bien desarrollado favorece su presencia.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km^2) Media (aves/km^2)	Tartea (hegazti/km^2) Rango (aves/km^2)
Landazabala / Campiña	45,5	(22,0-88,0)
Basoa / Forestal	174,5	(67,5-356,5)
Hiriko parkea / Parque urbano	216,0	(111,0-409,5)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	0,0	(0,0-0,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	29,5	(12,5-58,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Txepetxa / Chochín común

Troglodytes troglodytes

Ekologia eta banaketa

Mota guztietako habitatetan agertzen da, baldin eta landaredi baxu eta trinkoa badago, bertan kokatzen baitu habia. Donostian hedatuen dagoen espezieetariko bat da (1. mapa). Baso eta sastrakadun habitatetan ageri ohi da, baita parke eta lorategietan ere. Laukien %90ean espeziea agertzeko probabilitatea %80tik gorakoa da (2. mapa). Landarediaren produktibitate-indizearekin positiboki eta eraikinen dentsitatearekin negatiboki erlazionatzen den hegaztia da.

Populazioa

Populazioa 7.500 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 5.200-10.400); beraz, udalerriko espezie ugarienetarikoa da. Batez besteko dentsitatea 122,0 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 85,0-169,5); balio maximoak (250 hegazti/km^2 baino gehiago) baso eta hiriko parkeetan lortzen ditu (Taula).

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera egonkorra da[24], Euskadin, goranzkoa (aldia: 1998-2019)[25]. Hiriguneetan, sastraka, zuhaitz eta landaredi trinkodun eremuen suntsipenak arriskuan jar dezake espezie honen kontserbazioa. Testuinguru honetan, parke handietan lorategirik gabeko zenbait gune 'basati' uztea gomendagarria da litzake, baita heskaiak ugalketa-garaian (mar-txotik ekainera) kimatzea saihestea ere.

Ecología y distribución

Asociado a hábitats de todo tipo siempre y cuando exista vegetación baja y espesa, donde generalmente ubica el nido. Es una de las especies más ampliamente distribuida en S. Sebastián (Mapa 1). Presente en hábitats forestales y arbustivos, también en parques y jardines. La probabilidad de hallar la especie es superior al 80% en más del 90% de las celdas (Mapa 2). Es una especie que se asocia de manera positiva al índice de productividad de vegetación y negativa a la densidad de edificaciones.

Población

La población se estima en 7.500 aves (rango: 5.200-10.400), por lo que es una de las especies más abundantes del municipio. La densidad promedio es de 122,0 aves/km^2 (rango: 85,0-169,5); alcanza valores máximos (de más de 250 aves/km^2) en medios forestales y parques urbanos (Tabla).

Conservación

La tendencia de la población en Europa es estable[24] y, en Euskadi, al alza (periodo: 1998-2019)[25]. En núcleos urbanos, la destrucción de sotos y zonas de arbolado y vegetación densa puede ser una amenaza para su conservación. En este contexto, es recomendable dejar algunas zonas ‘salvajes’, no ajardinadas, al menos en grandes parques, así como evitar la poda de setos en época de reproducción (marzo a junio).

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km^2) Media (aves/km^2)	Tartea (hegazti/km^2) Rango (aves/km^2)
Landazabala / Campiña	79,5	(54,0-111,5)
Basoa / Forestal	259,0	(187,5-349,0)
Hiriko parkea / Parque urbano	199,0	(123,0-295,5)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	1,5	(0,0-5,5)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	28,5	(16,0-44,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Garrapoa / Trepador azul

Sitta europaea

Ekologia eta banaketa

Zuhaitz helduei loturiko basoko espeziea da. Baso hostoerorkorrak nahiago ditu, harizti eta erkameztiak batez ere, baina pagadi eta koniferoen basoak ere onartzen ditu. Donostian mota guztietako basoetan agertzen da eta hiriko parke handietara ere ondo egokitzen da, hala nola Urgull, Ametzagaina, Cristina Enea, Aiete edota Uliako lorategi inguruetan ere (1. mapa). Espeziearentzako egokiak diren zuhaitz helduen kopuru nahikoa dagoen bizitegi-guneetan ere aurkitzen da. Ereduak baso-masaren azalerarekin eta landarediaren produktibitate-indizearekin erlazio estua dagoela adierazten du, baita altitudearekin ere; ondorioz, agerpen-probabilitatea oso handia da baso gehien duten laukietan (Landarbaso, Oberan, Zubieta hegoaldea) (2. mapa). Eraikin eta sastraken azalerak eta ibaietara dagoen distantziak eragin negatiboa daukate.

Populazioa

Populazioa 800 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 350-1.900). Batez besteko dentsitatea 13,5 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 6,0-31,5); balio altuenak hiriko parkeetan ditu eta ondoren baso-inguruneetan (Taula).

Kontserbazioa

Europan goranzko joera du[24]. Euskadin, zalantzazkoa (aldia: 1998-2019)[25]. Udalerri mailan, zuhaitz helduak (zaharrak) gure parke eta lorategietan mantentzeko beharra nabarmendu behar da. Beste zuhaitz-mota batzuen ordez haritzak landatzea neurri egokia litzateke hiriko parkeetan espeziearen presentzia sustatzeko.

Ecología y distribución

Especie forestal, asociada a arbolado maduro. Prefiere caducifolios, principalmente robles y quejigos, pero tolera bien hayedos y bosques de coníferas. En S. Sebastián aparece en todo tipo de bosques y se adapta bien a parques urbanos grandes, como Urgüll, Ametzagaina, Cristina Enea o Aiete o la zona ajardinada de Ulia (Mapa 1). Está presente, también, en zonas residenciales donde, a menudo, existen árboles maduros en cantidad suficiente para la especie. El modelo indica una asociación muy alta con la superficie de masa forestal y el índice de productividad de vegetación, así como la altitud, motivo por el que la probabilidad de presencia es máxima en las celdas más forestales (Landarbaso, Oberan, el sur de Zubieta…) (Mapa 2). Existe un efecto negativo de factores como la superficie de edificaciones, matorral y distancia a ríos.

Población

La población se estima en 800 aves (rango: 350-1.900). La densidad promedio es de 13,5 aves/km^2 (rango: 6,0-31,5); los valores más altos son observados en parques urbanos, a los que le siguen los medios forestales (Tabla).

Conservación

Tendencia al alza en Europa[24]. En Euskadi, incierta (periodo: 1998-2019)[25]. A nivel local, hay que resaltar la necesidad de mantener arbolado maduro (viejo) en nuestros jardines y parques. La plantación de robles, frente a otro tipo de especies, es una medida que favorecerá la presencia de la especie en parques urbanos.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km^2) Media (aves/km^2)	Tartea (hegazti/km^2) Rango (aves/km^2)
Landazabala / Campiña	10,0	(2,0-26,0)
Basoa / Forestal	23,0	(0,0-63,5)
Hiriko parkea / Parque urbano	30,0	(11,0-73,5)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	0,0	(0,0-0,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	2,0	(0,0-7,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Gerri-txori arrunta / Agateador europeo

Certhia brachydactyla

Ekologia eta banaketa

Hostoerorkor zein koniferoen ondo garatutako zuhaiztiekin lotutako basoko espeziea. Baso eta parkeetara loturiko espezie oso arrunta da Donostian (1.mapa). Lauki askotan aipamenik ez egotea espeziearen detektagarritasun txikiaren ondorio da kasu askotan, benetako gabezia baino. Testuinguru honetan, mapa mo-delizatuak behatutakoa baino presentzia zabalagoa adierazten du (2. mapa). Agerpen-probabilitatea maximoa da baso-azalera gehien duten laukietan eta minimoa urbaniza-tuenetan, erdiguneko lauki askotan gertatzen den bezela.

Populazioa

Populazioa 2.300 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 1.400-3.800). Batez besteko dentsitatea 37,5 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 22,5-62,0); baliorik altuenak hiriko parkeetan ditu eta jarraian baso-inguruneetan (Taula).

Kontserbazioa

Goranzko joera Europan[24] eta Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Udalerri mailan, gure lorategi eta parkeetan zuhaitz helduak (zaharrak) mantentzeko beharra azpimarratu behar da.

Ecología y distribución

Especie forestal asociada a arbolado bien desarrollado, ya sean caducifolios o coníferas. En S. Sebastián es una especie muy común, ligada a bosques y parques (Mapa 1). La falta de citas para un buen número de celdas se debe, en muchas, a la baja detectabilidad de la especie, más que a su ausencia real. En este contexto, el mapa modelizado indica una presencia más amplia que la observada (Mapa 2). La probabilidad de presencia es máxima en las celdas más forestales, a la vez que es mínima en las zonas más urbanizadas, como ocurre en muchas de las celdas del Centro.

Población

La población se estima en 2.300 aves (rango: 1.400-3.800). La densidad promedio es de 37,5 aves/km^2 (rango: 22,5-62,0); los valores más altos son observados en parques urbanos, a los que le siguen los medios forestales (Tabla).

Conservación

Tendencia al alza en Europa[24] y en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. A nivel local, hay que resaltar la necesidad de mantener arbolado maduro (viejo) en nuestros jardines y parques.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	38,0	(19,5-66,5)
Basoa / Forestal	57,5	(23,0-109,5)
Hiriko parkea / Parque urbano	72,5	(40,5-124,0)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	0,0	(0,0-0,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	3,5	(0,0-9,5)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Arabazozo pikarta / Estornino pinto

Sturnus vulgaris

Ekologia eta banaketa

Landazabaletan zein hiri-parkeetan, habitat gizatiartuetara loturik agertzen da. Donostiaren kasuan, ordea, hiri-inguruko landazabalarekin erlazionatzen da (1. mapa), ugalketa-garaitik kanpo parke eta zuhaizti handietan zein hiriaren erdigunean ere ohikoa den arren. Ez da ezagutzen hirian neguan etzalekuak osatzen dituzten arabazozoen jatorria (populazio migratzaileetako hegaztiak izan daitezke). Ugaltzaile gisa, labore eta aberedun larre eta baserriez osatutako mosaikoetan agertzeko joera du Unanuen, Zubietan edo Martutenen.

Populazioa

Espeziearen populazioa kalkulatzea zaila da behatua izan den lauki-kopuru baxua dela eta. Bere banaketa urria, seguraski 100 ale baino gutxiagokoa, populazio urriaren adierazlea da.

Kontserbazioa

Europako populazioak joera negatiboa du[24]. Euskadin aldiz, egoera ezezaguna da. Udalerri mailan ugaltzaile gisa urria da, beste hiri batzuetan ez bezala, non arabazozoak hirietako parke eta lorategietan ohikoak diren[102]. Donostian, habiagile gisa, hiri-inguruko landa-eremuetan bakarrik ageri den espeziea da.

Ecología y distribución

Asociado a hábitats humanizados, tanto en zonas de campiña como en parques urbanos. En el caso de S. Sebastián, no obstante, es una especie que se asocia a la campiña del entorno periurbano (Mapa 1), aunque fuera de la época de cría es habitual en grandes parques y arboledas, incluso en el centro de la ciudad. El origen de los estorninos que forman dormideros invernales en la ciudad no se conoce (podría tratarse de aves de poblaciones migratorias). Como reproductor, tiende a ocupar mosaicos de caseríos con cultivos y prados con ganado en Unanue, Zubieta o Martutene.

Población

Dado el bajo número de celdas en las que se observa la especie, es difícil estimar su población. Su distribución, reducida, es reflejo de una población más bien escasa, posiblemente inferior al centenar de individuos.

Conservación

La tendencia de la población en Europa es negativa[24]. Situación desconocida en Euskadi. Escasa como reproductora a nivel local. A diferencia de otras ciudades donde los estorninos son habituales en parques urbanos y jardines[102], en el caso de S. Sebastián es, todavía, una especie que, como nidificante, solo está en al medio rural de la periferia.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Zozo arrunta / Mirlo común

Turdus merula

Ekologia eta banaketa

Zuhaizti planifolioak nahiago dituen arren[115], lorategi, parke eta basoetan ere ugaltzen da. Loreontzi zein burdin hesietan umatzera heldu daiteke, giza-presentzia ongi jasaten du eta. Espezie arruntenetariko bat da, ia udalerri osoan baitago (1. mapa). Modelizatutako mapak espeziea udalerri osoan egongo litzatekeela adierazten du (2. mapa).

Populazioa

Populazioa 10.200 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 7.700-13.800). Batez besteko dentsitatea 168,0 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 126,0-225,5); balio altuenak zuhaizti eta lorategien ehuneko handia duten hiriguneetan behatu izan dira. Hau horrela izanda, dentsitateak maximoak dira hiriko parkeetan (350 hegazti/km^2 baino gehiago), eta jarraian lorategiak dituen habitat hiritarrean lorategiekin (Taula).

Kontserbazioa

Populazioaren joera goranzkoa da Europan[24] eta Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Ez da kontserbaziorako mehatxurik antzematen. Hiriguneetan ordea, katuak[44,124] eta lotu gabeko txakurrak bezalako etxeko animaliek egindako harraparitza da espezie arentzako mehatxu garrantzitsuenetariko bat.

Ecología y distribución

Especie de medios arbolados, cría en jardines, parques y bosques, aunque prefiere planifolios[115]. Cría incluso en macetas y enrejados y tolera bien la presencia humana. Se distribuye en prácticamente todo el municipio (Mapa 1), siendo, así, una de las especies más comunes. El mapa modelizado indica que la especie estaría en todo el municipio (Mapa 2).

Población

La población se estima en 10.200 aves (rango: 7.700-13.800). La densidad promedio es de 168,0 aves/km^2 (rango: 126,0-225,5); los valores más altos son observados en zonas urbanas donde existe, no obstante, un alto porcentaje de arbolado y jardines. Así, las densidades son máximas en parques urbanos (con más de 350 aves/km^2), seguidos de urbano ajardinado (Tabla).

Conservación

La tendencia de la población en Europa[24] y en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25] es al alza. No se reconocen amenazas evidentes para su conservación. En núcleos urbanos, no obstante, una de las amenazas más significativas para la especie es la depredación, vinculada a mascotas, entre éstas, gatos[44,124] y perros no atados.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	147,5	(107,5-202,5)
Basoa / Forestal	97,0	(47,0-161,0)
Hiriko parkea / Parque urbano	350,5	(237,0-505,0)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	53,0	(28,5-84,5)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	190,0	(127,5-274,5)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Birigarro arrunta / Zorzal común

Turdus philomelos

Ekologia eta banaketa

Zozo arruntaren antzeko habitata du. Habia, zuhaitz eta horma zuloetan, heskaietan edo huntzetan egiten du, altuera baxuan sarritan. Espezie honek oso banaketa zabala du Donostian, ia udalerri osoan agertzen baita (1. mapa). Ereduak lauki gehienetan espeziea agertzeko oso probabilitate handia (> %90) adierazten du (2. mapa). Badirudi espeziea urriagoa dela kostaldetik gertu, bai Ulian, baita Igeldon ere. Ereduak, halaber, baso-masa trinkoak dauden eremuetan espeziea egoteko probabilitatea txikiagoa dela adierazten du, Zubietan edo Oberanen, adibidez.

Populazioa

Populazioa 2.800 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 2.000-3.800). Batez besteko dentsitatea 45,0 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 32,0-62,5); hiri-parkeetan ikusten dira balio altuenak eta jarraian landaza-baletan eta hiri-inguruko baso-eremuetan.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera goranzkoa da[24]. Euskadin, egonkorra (aldia: 1998-2019)[25]. Iraganean presio handia jasan zuen espezie zinegetikoa da. Malgutasun handiko espeziea denez, emankorra eta zorrotza ez izateaz gain (arrakastaz ugaltzen da hiri-guneetan), populazioa ondo berreskuratu da. Nolanahi ere, bere senidea den zozoa baino askoz urriagoa da.

Ecología y distribución

Presenta un hábitat similar al mirlo común. El nido, a menudo puesto a baja altura, se ubica en huecos de árboles y paredes, setos vivos o hiedra. Es una especie con una muy amplia distribución en S. Sebastián, al aparecer en casi todo el municipio (Mapa 1). El modelo indica una probabilidad muy alta (>90%) de presencia en la mayor parte de celdas (Mapa 2). Parece que la especie es más rara cerca de la costa, tanto en Ulia como Igeldo. El modelo también indica una probabilidad más baja de presencia en zonas con masas forestales densas, como Zubieta u Oberan.

Población

La población se estima en 2.800 aves (rango: 2.000-3.800). La densidad promedio es de 45,0 aves/km^2 (rango: 32,0-62,5); los valores más altos son observados en parques urbanos, seguidos de las campiñas y medios forestales del cinturón periférico.

Conservación

La tendencia de la población en Europa es al alza[24]. En Euskadi, estable (periodo: 1998-2019)[25]. Especie cinegética, que sufrió una gran presión en tiempos pasados. Al tratarse de una especie muy flexible, poco exigente (anida con éxito en núcleos urbanos) y prolífica, la población se ha recuperado bien. En todo caso, es un ave bastante más escasa que su pariente, el mirlo común.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km^2) Media (aves/km^2)	Tartea (hegazti/km^2) Rango (aves/km^2)
Landazabala / Campiña	40,5	(26,0-59,0)
Basoa / Forestal	32,0	(7,0-63,5)
Hiriko parkea / Parque urbano	117,0	(75,0-175,0)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	2,5	(0,0-6,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	23,0	(9,5-42,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Euli-txori grisa / Papamoscas gris

Muscicapa striata

Ekologia eta banaketa

Basoko espeziea. Ugaltzeko zuhaizti ez oso trinkoak dituzten espazioak nahiago ditu[99]. Hala ere, parke eta lorategietan umatu daiteke, baita eraikinetan ere. Horrela, Igeldo eta Uliako baso-eremuetan, Ametzagaina bezalako parke handietan edo Intxaurrondo bezalako auzoetako urbanizazioetan aipatzen da (1. mapa). Donostian duen banaketa zabala da, jarraia ez izan arren. Sakabanatze hau, detektatzeko zaila den espeziea izatearen ondorioa izan daiteke. Hau dela eta, modelizatutako mapak (2.mapa), aurrekoak baino presentzia zabalagoa adierazten du.

Populazioa

Zentsatutako hegaztien kopurua txikia denez, ezin da ugaritasunaren balioespen fidagarrik lortu. Hau 270 hegaz-tikoa dela kalkulatzen da, baina ziurgabetasun-maila handiarekin. Batez besteko dentsitatea 4,5 hegazti/km^2-koa da.

Kontserbazioa

Europan gainbeheran dagoen espeziea[24]. Euskadin, zalantzazko joera (aldia: 1998-2019)[25]. Litekeena da intsektiziden erabilera kaltegarria izatea espezie honentzat. Era berean, badirudi gainbehera honen arrazoietako bat biziraupenaren beherakada izan daitekeela ugalketa-garaitik kanpo, agian migrazioan edo negualdia igarotzean Saharaz hegoaldeko Afrikan[125]. Udalerri mailan, ez da hauen kontserbazio-egoera arriskuan jar dezakeen mehatxurik identifikatu.

Ecología y distribución

Ave forestal. Prefiere espacios con arbolado poco denso, donde cría[99]. Ocupa también parques y jardines y llega a criar en edificios. Así, se cita en espacios forestales de Igeldo o Ulía, grandes parques como Ametzagaina, o urbanizaciones como los adosados que hay en barrios como Intxaurrondo (Mapa 1). Su distribución en S. Sebastián es amplia, aunque discontinua. Parte de esta dispersión podría ser debida a que es una especie difícil de detectar. En este contexto, el mapa modelizado (Mapa 2) indica una presencia más amplia que el mapa anterior.

Población

El escaso número de aves censadas, dada su baja detectabilidad, impide llevar a cabo una estima muy fina de su abundancia. Ésta se calcula en 270 aves, aunque con una gran incertidumbre asociada. La densidad media se sitúa en 4,5 aves/km^2.

Conservación

Especie en declive en Europa[24]. Tendencia incierta en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. Es muy probable que el empleo de insecticidas le afecte negativamente. Asimismo, el descenso de la supervivencia fuera de la época de cría, tal vez durante el periodo de migración o en el área de invernada en África subsahariana, se baraja como una de las causas que pueden explicar este declive[125]. A nivel local, no se identifican amenazas que pudieran comprometer su estado de conservación.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada

Posiblea
Posible

Probablea / Segurua
Probable / Seguro



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia

Min. / Mín.

Max. / Máx.





Txantxangorria / Petirrojo europeo

Erithacus rubecula

Ekologia eta banaketa

Zuhaixka edo zuhaiztiei loturiko espeziea da, landa-eremu zein eremu hiritarrean, parke eta lorategiak barne[115]. Udalerriko espezie ohikoenetariko bat da (1. mapa). Hain da ohikoa, non lauki gehienetan presentzia segurua duen (2. mapa). Hau dela eta, ez da espezie honek udalerrian duen presentziarekin lotura estua duen aldagairik aurkitu.

Populazioa

Populazioa 10.600 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 7.700-14.400). Batez besteko dentsitatea 173,5 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 126,0-235,0); balio altuenak hiri-parkeetan (300 hegazti/km^2 baino gehiagorekin) eta jarraian baso-inguruneetan behatu dira (Taula).

Kontserbazioa

Europan[24] zein Euskadin (aldia: 1998-2019)[25] populazioaren joera goranzkoa da. Baso-masaren hazkundea onuragarria da espeziearen kontserbazio-egoerarentzat. Hiriguneetan, espeziearen mehatxurik handienetakoa maskotek (batez ere katuek) eragindako harrapakaritza da. Beirate eta ibilgailuen kontrako kolpeak ere mehatxuak dira.

Ecología y distribución

Se asocia a arbolado o arbustos, tanto en zonas rurales como urbanas, lo cual incluye parques y jardines[115]. Es una de las especies más comunes del municipio (Mapa 1). Es tan común que su presencia es segura en la mayoría de celdas (Mapa 2). Por este motivo no hallamos ninguna variable que esté bien relacionada con la presencia de esta especie en el municipio.

Población

La población se estima en 10.600 aves (rango: 7.700-14.400). La densidad promedio es de 173,5 aves/km^2 (rango: 126,0-235,0); los valores más altos son observados en parques urbanos (con más de 300 aves/km^2), seguidos de medios forestales (Tabla).

Conservación

La tendencia de la población en Europa[24] y en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25] es al alza. El incremento de masa forestal favorece el estado de conservación de la especie. En núcleos urbanos, una de las amenazas más significativas es la depredación, vinculada a mascotas, sobre todo gatos. Los impactos contra cristaleras y vehículos son también una amenaza.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	150,5	(107,0-205,5)
Basoa / Forestal	293,0	(207,0-399,5)
Hiriko parkea / Parque urbano	315,5	(212,5-440,5)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	5,5	(0,0-12,5)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	52,5	(29,0-81,5)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Buztangorri iluna / Colirrojo tizón

Phoenicurus ochruros

Ekologia eta banaketa

Habitat ireki eta harritsuei loturik agertzen da; harkaitzetan eta mendietan egiten du habia, baita herri eta hirietako eraikinetan ere, non espeziea oso ohikoa den[115]. Espeziea hiriguneetan aurkitzeaz gain, kostaldean ere aurkitu daiteke, bertako itsaslabarretan umatzen baita. Donostian, eraikinekin hain estuki lotuta dago (1. mapa), haren presentzia hobekien iragartzen duen faktoreetako bat urbanizatutako azalera dela. Modelizatutako mapak, biztanle gehien dituzten auzoetan (2. mapa) agerpen-probabilitatea handiagoa dela adierazten du, Erdigunea, Alde Zaharra, Gros, Intxaurrondo, Ibaeta, Amara edo Aiete barne. Baso-eremuetan, aldiz desagertu egiten da.

Populazioa

Populazioa 600 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 400-1.000). Batez besteko dentsitatea 10,0 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 6,5-17,0); balio altuenak landazabaletan ikusten dira, baita hirigunean ere, betiere zuhaizti eta lorategien gutxieneko kopuru bat baldin badago (Taula).

Kontserbazioa

Europan[24] zein Euskadin (aldia: 1998-2019)[25] populazioaren joera goranzkoa da. Donostian ez da espezie honen kontserbazio-egoera arriskuan jar dezakeen mehatxurik antzeman.

Ecología y distribución

Ligado a hábitats abiertos y rocosos; nidifica en roquedos y montañas y también en edificios de pueblos y ciudades, donde es común[115]. Presente tanto en áreas urbanizadas como a lo largo de la costa, donde cría en acantilados. En S. Sebastián se asocia estrechamente a edificaciones (Mapa 1), de tal modo que la superficie urbanizada es uno de los factores que mejor predicen su presencia. El mapa modelizado, en consecuencia, indica una probabilidad más alta de presencia en los barrios más poblados (Mapa 2), incluido el propio Centro, Parte Vieja, Gros, Intxaurrondo, Ibaeta, Amara o Aiete. Desaparece en medios forestales.

Población

La población se estima en 600 aves (rango: 400-1.000). La densidad promedio es de 10,0 aves/km^2 (rango: 6,5-17,0); los valores más altos son observados en las campiñas así como en la matriz urbana si ésta cuenta con una cierta cantidad de arbolado y jardines (Tabla).

Conservación

La tendencia de la población en Europa[24] y en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25] es al alza. En S. Sebastián, no se identifican amenazas que pudieran comprometer su estado de conservación.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	13,0	(6,5-23,5)
Basoa / Forestal	0,0	(0,0-0,0)
Hiriko parkea / Parque urbano	12,0	(3,5-25,5)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	9,5	(3,5-18,5)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	12,5	(5,5-24,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Pitxartxar burubeltza / Tarabilla europea

Saxicola rubicola

Ekologia eta banaketa

Sastrakadietan, kostaldeko otalurretan, belardietan edo zuhaixkak dituzten larreetan bizi da[115]. Donostian, kostaldean zein landazabaleko eremuetan, zuhaixka eta belardiak dituzten habitatekin erlazionatzen da. Ulia eta Igeldoko kostaldeko otadi eta txilardietan egongo da dentsitate altuenetarikoa ziurrenik (1. mapa). Hiri-inguruko landazabaletan, Zubieta eta Landarbaso barne, modu sakabanatuan agertzen da.

Populazioa

Behaketa gutxi izateak, espezie honen ugaritasunaren zenbatespen fina egitea eragozten du. Kantauri isuri-aldeko zuhaixkadun habitatetan pitxartxarren dentsitatea 45 hegazti/km^2 ingurukoa da[4]. Espeziea ikusten den lauki-kopurura estrapolatuz gero, Donostian gutxienez 400 hegazti daudela kalkulatzen da.

Kontserbazioa

Europan[24] eta Euskadin (aldia: 1998-2019)[25] populazioa gainbeheran dago. Donostiaren kasuan, landazabalen galera eta kostako otalur eta sastrakadien baso-eremuen basoberritze edo birsorkuntza, espezie honek udalerri mailan dituen mehatxu nagusienetako bi izan daitezke.

Ecología y distribución

Vive en zonas de matorral, landas costeras, prados o pastizales con arbustos[115]. En S. Sebastián se asocia a hábitats arbustivos y herbazales, tanto en la costa como en zonas de campiña. Una de las densidades más altas se alcanza, probablemente, en argomales y brezales costeros en Ulia e Igeldo (Mapa 1). Aparece, de manera dispersa, en las campiñas del cinturón periurbano, incluyendo Zubieta y Landarbaso.

Población

El escaso número de contactos impide llevar a cabo una estima muy fina de su abundancia. La densidad de tarabillas en hábitats arbustivos de la región cantábrica es de unas 45 aves/km^2[4]. Extrapolado al número de celdas en las que la especie se observa, su población en S. Sebastián se estima en un mínimo de 400 aves.

Conservación

Poblaciones en declive en Europa[24] y en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. En el caso de S. Sebastián, la pérdida de hábitat en campiñas y la reforestación o regeneración de la masa forestal de landas costeras y espacios matorralizados son posiblemente dos de los principales factores de amenazada para esta especie a nivel local.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Ur-zozoa / Mirlo-acuático europeo

Cinclus cinclus

Ekologia eta banaketa

Ondo oxigenatutako, sakonera txikiko eta substratu harritsuko ur-laster garbidun ibilguekin erlazionaturik dagoen espeziea da, bertan elikatzen baita. Kontserbazio-egoera onean dauden ibaiekiko duen menpekotasuna handia denez, espezie bioindikatzaile gisa erabili ohi da[126,127]. Horma harritsu, eraikin edo zubietako hutsuneetan umatzen da. Donostian mota hauetako ibaiak urriak direnez, espeziea urria da ere bai. Ibaetan (Añorga errekako El Infierno inguruan eta Igara errekan), Landarbason eta Zubietan aipatzen da (1. mapa).

Populazioa

Espeziea hautemateko zentso espezifikoak egin ez direnez, ez da espezie honen populazioa ondo ezagutzen. Zubieta, Landarbaso edo Oberan zeharkatzen dituzten ibilgu askotara iristeko zailtasunak direla eta, ezin izan ziren eremu hauetan laginketak behar bezala egin. Gutxienez 4 bikote egongo lirateke seguru, baina benetako tamaina 10-20 bikotekoa izan liteke.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera negatiboa da[24]; Euskadin, zalantzazkoa (aldia: 1998-2019)[25]. Baliteke azken urteotan Euskadiko ibaien kontserbazio-egoeraren hobekuntzak espeziearen populazioaren hazkuntza eragin izana. Edonola ere, (ustez) Donostian populazioaren tamaina txikia denez, litekeena da hau udalerri mailan mehatxu faktore bat izatea. Testuinguru honetan, udalerrian zehar dauden ibilguen eta ibaiertzeko landaretzaren kontserbazio-egoera ona bermatzea garrantzitsua da. Adi ibili beharra dago ibaira egindako isurketekin, baita ibaitik hurbil dauden basoeremuetan egiten diren mozketekin, ur-zozoaren elikagai diren ornogabe urtarretan eragina izan dezakete eta[128].

Ecología y distribución

Especie asociada a cursos de agua limpia, bien oxigenada, poco profundos y de sustrato rocoso donde busca su alimento. Debido a que es muy dependiente de ríos en buen estado de conservación, se utiliza como especie bioindicadora[126,127]. Cría en huecos en paredes rocosas, edificaciones o puentes. En S. Sebastián es escaso, debido a la también escasez de este tipo de ríos. Se cita en Ibaeta (en la regata de Añorga a la altura de El Infierno y en la regata de Igara), Landarbaso y Zubieta (Mapa 1).

Población

Población mal conocida por no haberse llevado a cabo censos específicos para su detección. La dificultad de acceso a muchos de los cauces que cruzan Zubieta, Landarbaso u Oberan impide cubrir adecuadamente el área de muestreo en todas estas zonas. Como mínimo habría 4 parejas seguras, pero el tamaño real podría situarse dentro de un rango de 10 a 20 parejas.

Conservación

La tendencia de la población en Europa es negativa[24]. En Euskadi, incierta (periodo: 1998-2019)[25]. La mejora del estado de conservación de ríos en Euskadi durante los últimos años podría haber traído como consecuencia un incremento de la población. En todo caso, el (presumiblemente) bajo tamaño de la población de la especie en S. Sebastián podría ser una amenaza a nivel local. Es importante, en este contexto, garantizar el buen estado de conservación tanto del cauce como de la vegetación de ribera de los cursos fluviales del municipio. Debe prestarse atención a los vertidos así como las talas en masas forestales próximas al río, que podrían tener impacto sobre la fauna invertebrada acuática de la cual se alimenta[128].

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Etxe-txolarrea / Gorrión común

Passer domesticus

Ekologia eta banaketa

Eraikinetako zuloetan, leiho-ertzetan, teilatu azpian eta zuhaitzen egiten du habia. Kale, plaza eta terrazetan elikagai bila ibili ohi da. Donostian ia udalerri osoan umatzen da; hala ere, jenderik gabeko eta baso ugaridun eremuetan urria da (1. mapa). Baso-azalera handia duten laukietan espeziea agertzeko probabilitatea txikiagoa dela aurreikusten du modelizatutako mapak (2. mapa), hala nola Uliako parte batean, Igeldo mendebaldean, Zubieta hegoaldean, Landarbason eta Oberanen.

Populazioa

Populazioa 27.800 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 20.400-37.700); beraz, udalerriko hegaztirik ugariena dela esan daiteke. Batez besteko dentsitatea 454,5 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 334,5-618,0); balio altuenak eremu urbanizatuenetan (700 hegazti/km^2 baino gehiagorekin), landazabaletan eta lorategiz hornitutako hiriguneetan behatu dira, hurrenez hurren (Taula).

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera negatiboa da[24]. Euskadin, egonkorra (aldia: 1998-2019)[25]. Munduko gainbehera orokorra azaltzen duten arrazoien artean honako hauek egongo lirateke: gaur egungo nekazaritza-politika eta pestiziden erabilera, soroak uzteak espeziarentzat dakarren habitat galera[129], eraikin berrietan umatzeko zuloen gabezia eta parke eta kaleen kudeaketak eta hauek gehiago garbitzeak eragindako elikagai-galera[130]. Donostian oso espezie arrunta da oraindik, espeziearen banaketa-eremua zabala izanik. Ez dakigu aurreko urteekin alderatuz populazioan murrizketarik eman den edo ez.

Ecología y distribución

Nidifica en huecos de edificios, alféizares, bajo tejados y árboles. Habitual en calles, plazas y terrazas, donde busca alimento. En S. Sebastián nidifica en casi todo el municipio, si bien se hace escaso o falta en zonas deshabitadas y de carácter eminentemente forestal (Mapa 1). El mapa modelizado prevé una menor probabilidad de presencia en las celdas con más bosque (Mapa 2), como es el caso de parte de Ulia, el oeste de Igeldo, el sur de Zubieta, Landarbaso y Oberan.

Población

La población se estima en 27.800 aves (rango: 20.400-37.700), por lo que es el ave más numerosa del municipio. La densidad promedio es de 454,5 aves/km^2 (rango: 334,5-618,0); los valores más altos son observados en las zonas más urbanizadas (con más de 700 aves/km^2), seguido de la campiña y el urbano ajardinado (Tabla).

Conservación

La tendencia de la población en Europa es negativa[24]. En Euskadi, estable (periodo: 1998-2019)[25]. Entre las causas que explican un declive mundial generalizado estaría la actual política agrícola y el uso de pesticidas, el abandono del campo con la consiguiente pérdida de hábitat para la especie[129], la ausencia de huecos para la cría en nuevas edificaciones y la pérdida de alimento debido al incremento de la limpieza y gestión de parques y calles[130]. En S. Sebastián es todavía una especie muy común con un área de distribución amplia. Desconocemos si la población se ha reducido respecto a años anteriores.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km^2) Media (aves/km^2)	Tartea (hegazti/km^2) Rango (aves/km^2)
Landazabala / Campiña	635,5	(381,5-972,0)
Basoa / Forestal	0,0	(0,0-0,0)
Hiriko parkea / Parque urbano	345,5	(107,0-665,0)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	719,0	(454,0-1066,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	527,0	(387,0-715,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Landa-txolarrea / Gorrión molinero

Passer montanus

Ekologia eta banaketa

Nekazaritza-paisaiak ditu gustuko, zuhaiztiekin, sastrakadiekin, ibar-basoekin edo otalurrekin tartekatzen diren zelaiak dituztenak. Parke eta baratzeetan ohikoa da, baita herri zein hirietan ere. Donostiaren kasuan, landa-eremuekin lotutako baratze batzuetara soilik mugatzen da. Hala, Igeldo, Zubieta iparraldea, Martutene eta Altzako hiri-inguruko gune zehatz batzuetan aurkitu da soilik (1. mapa), udalerriko espezie urrienetariko bat izanik.

Populazioa

Udalerriko populazio zehatza ezezaguna da, ziurrenik 50 hegazti baino gutxiagokoa izanik, baina etorkizunean berretsi beharko litzateke kalkulu hau. Bizkaiko landazabaletan 1,4 hegazti/km^2-ko dentsitateak kalkulatu ziren[89], Espainiako alde mediterraneoko fruta-arbolen zenbait laborantzatan zenbatetsitako 100 hegazti/km^2-ko dentsitatea baino askoz txikiagoa[4].

Kontserbazioa

Europan populazioa egonkorra da[24]; Euskadin, gainbeheran (aldia: 1998-2019)[25]. Donostian eta baita Euskadiko kantauriar isurialde osoan ere, espeziearen gainbehera nabarmena da. Litekeena da beherakada horren arrazoietako bat landa-ingurunean gertatzen ari diren aldaketa ezberdinen batura izatea, hala nola biozidden erabilera, zelaien sinplifikazioa eta landazabala uztea edo hondatzea.

Ecología y distribución

Prefiere paisajes agrarios, con campos que se intercalan con arbolado así como sotos, vegas o eriales. Es frecuente en parques, huertas e incluso en pueblos y ciudades. En el caso de S. Sebastián se asocia, casi exclusivamente, a algunos huertos ligados al medio rural. Así, se ha localizado en puntos muy concretos del área periurbana en Igeldo, el norte de Zubieta, Martutene y Alza (Mapa 1), por lo que es una de las especies más raras del municipio.

Población

La población del municipio se estima en un número incierto de individuos, posiblemente inferior a 50 aves, aunque es un cálculo que debería corroborarse en un futuro. En campiñas de Bizkaia es calcularon densidades de 1,4 aves/km^2[89], una cifra muy inferior a la estima de 100 individuos/km^2 para determinados cultivos de frutales de la España mediterránea[4].

Conservación

Población estable en Europa[24]; en declive en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. En el caso de S. Sebastián y, en general, toda la zona cantábrica de Euskadi, el declive de la especie es notable. Es probable que una de las causas de tal regresión sea el conjunto de cambios que se están dando en el medio rural, y que pasan por el uso de biocidas, la simplificación del campo así como el abandono o deterioro de la campiña.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Tuntun arrunta / Acentor común

Prunella modularis

Ekologia eta banaketa

Askotan mendietako eremu irekietako zuhaixkadun habitatekin erlazionatutako hegaztia. Donostian, sastrakadi eta oihanpe ugari duten baso gazte eta sakabanatutako zuhaiztiekin loturik agertzen da, Ulia eta Igeldon aurkitzen ditugun pinudi askotan esaterako. Espeziearen banaketa-eremua baso gehien duten guneetara mugatuta dago, bai kostaldean, bai barrualdean (1. mapa). Hiri barnean, Ametzagainako Parkean aipatzen da soilik; gainerako behaketak Ulia, Landarbaso, Oberan, Igeldo eta Zubietan egin dira.

Populazioa

Kantauri isurialdean 30-70 hegazti/km^2-ko dentsitateak kalkulatu dira (balio altuena sastrakadi eta zuhaitzdun zelaietan)[4]. Donostian, litekeena da tuntunen batez besteko dentsitatea 50 hegazti/km2 baino txikiagoa izatea. 30 hegazti/km^2-ko balioa erreferentziatzat hartuta, populazioa 230 hegaztikoa izango litzateke.

Kontserbazioa

Europan[24] zein Euskadin (aldia: 1998-2019)[25] joera egonkorra. Landa-eremuak uztean, labore-lurrak eta larreak sastrakez bete izanak espezieari mesede egin diola dirudi. Udalerri mailan, ez da haren kontserbazioa arriskuan jar dezakeen mehatxurik identifikatu.

Ecología y distribución

Ave ligada a hábitats arbustivos, a menudo en espacios abiertos en zonas de montaña. En S. Sebastián se asocia a bosques jóvenes y arbolado disperso con una gran cantidad de matorral y sotobosque. Es el caso de muchos de los pinares que hallamos en Ulia o Igeldo. Especie de distribución limitada a las zonas más forestales del municipio, tanto en la línea de costa como en el interior (Mapa 1). Dentro de la ciudad, solo se cita en el Parque de Ametzagaina; el resto de observaciones se distribuye en Ulia, Landarbaso, Oberan, Igeldo y Zubieta.

Población

En el Cantábrico se calculan densidades de 30 a casi 70 aves/km^2 (esto último en matorrales y pastizales con arbolado)[4]. La densidad de la población de acentores en S. Sebastián es, posiblemente, inferior al valor medio de 50 aves/km^2. Tomando como referencia el valor de 30 aves/km^2, la población se estimaría en 230 aves.

Conservación

Poblaciones estables tanto a nivel de Europa[24] como en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. El abandono del campo con la consiguiente 'matorralización' de antiguos cultivos y pastizales puede haber favorecido a la especie. A nivel local, no se identifican amenazas que pudieran comprometer su conservación.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada

Posiblea
Posible

Probablea / Segurua
Probable / Seguro





Buztanikara horia / Lavandera cascadeña

Motacilla cinerea

Ekologia eta banaketa
Harrizko horma, zubi edo ur-masen ondoan dauden beste eraikuntza-mota batzuetan egiten du habia. Donostian, udalerri osoko ibai eta erreketan aipatzen da, Urumean eta Orian, baita beste ibilgu batzuetan ere, hala nola Igarako eta Molinaoko ubideetan (1. mapa).

Populazioa
Espeziea nahiko urria da, beraz, ditugun datuekin ezin da ugaritasuna kalkulatzeko eredurik egin. Kantauri isurialderako 5 hegazti/km^2 inguruko dentsitateak kalkulatzen dira[4]. Dentsitate hori behaketen mapara estrapolatuz, udalerriko populazioa 30 hegaztikoa dela zenbatesten da.

Kontserbazioa
Europan[24] zein Euskadin (aldia: 1998-2019)[25] populazioaren joera zalantzazkoa da. Mehatxu garrantzitsuenen artean ur-ibilguen aldaketa egongo litzateke, hala nola kanalizazioak, ibaiertzeko landarediaren suntsipena eta kutsadura (isurketak, etab.).

Ecología y distribución
Nidifica en paredes rocosas, puentes u otro tipo de construcciones junto a masas de agua. En S. Sebastián es una especie que se cita en ríos y regatas de todo el término municipal, en el Urumea y Oria, así como en otros cursos tales como la regata de Igara y la de Molinao (Mapa 1).

Población
Especie comparativamente escasa, por lo que los datos que disponemos impiden realizar modelos para estimar su abundancia. Para el Cantábrico se calculan densidades próximas a 5 aves/km^2[4]. Extrapolando esta densidad al mapa de observaciones, la población en el municipio se estima en 30 aves.

Conservación
La tendencia de su población en Europa[24] y en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25] es incierta. Entre las amenazas más importantes estarían la alteración de cursos de agua en el caso de canalizaciones, destrucción de la vegetación de ribera y contaminación (vertidos, etc.).

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Buztanikara zuria / Lavandera blanca

Motacilla alba

Ekologia eta banaketa

Eremu irekiei loturiko hegaztia, askotan etxe, labore eta hezeguneetatik gertu. Donostian, baso itxia dagoen eremuetan izan ezik, ia udalerri osoan ikus daiteke. Honela, landazabaleko eremuetan zein hirian aipatzen da parke eta lorategietan ohikoa delarik (1. mapa). Biztanle-dentsitate altua dagoen lekuetan urriagoa da, Erdigunean zein Gros, Egia edo Ibaeta bezalako auzo gehienetan gertatzen den bezala. Ereduaren arabera, lorategi eta parkeak dituzten lauki hiritarretan lortzen da espeziea agertzeko probabilitaterik altuena (2. mapa). Gainera, ibaietatik gertuen dauden eremuetan agertzeko joera du: agerpen-probabilitate handia duten lauki batzuk Urumea edo Oria ibaiaren arroan (Zubieta) eta Altzan (Molinao eta Pasaia) daude.

Populazioa

Populazioa 500 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 260-1.000). Batez besteko dentsitatea 8,5 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 4,5-16,5); balio maximoak hiri-inguruko landazabaletan lortzen ditu (Taula). Era berean, industria-guneetan ere dentsitate oso altua dagoela dirudi.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera zalantzazkoa da[24]; Euskadin, negatiboa (aldia: 1998-2019)[25]. Landa-eremuetan ematen den pestiziden eta agente kimikoen erabilerak, ingurune horietan bizi diren populazioengan eragin negatiboa eduki dezake.

Ecología y distribución

Ave asociada a espacios abiertos, a menudo cerca de casas, cultivos y humedales. En S. Sebastián puede verse en prácticamente todo el municipio, salvo en zonas densamente forestales. Así, se cita tanto en áreas de campiña como en la propia ciudad, donde es común en parques y jardines (Mapa 1). Se rarifica en las zonas más densamente pobladas, como ocurre en el Centro, o buena parte de barrios como Gros, Egia o Ibaeta. El modelo indica una probabilidad más alta de presencia en las celdas que combinan cierta densidad de urbanización con jardines/parques (Mapa 2). Además, tiende a aparecer en las zonas más cercanas a ríos: varias de las celdas con probabilidad más alta de presencia se sitúan en la cuenca del río Urumea o el Oria (Zubieta) y en Alza (Molinao y Pasajes).

Población

La población se estima en 500 aves (rango: 260-1.000). La densidad promedio es de 8,5 aves/km^2 (rango: 4,5-16,5); alcanza valores máximos en las campiñas del cinturón periurbano (Tabla). Asimismo, puede alcanzar también una densidad muy alta en polígonos industriales.

Conservación

La tendencia de su población en Europa es incierta[24]; en Euskadi (periodo: 1998-2019), negativa[25]. En las zonas rurales puede que el empleo de plaguicidas y agentes químicos afecten negativamente a las poblaciones que viven en estos ambientes.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	14,5	(6,5-29,5)
Basoa / Forestal	0,0	(0,0-0,0)
Hiriko parkea / Parque urbano	4,5	(0,0-12,5)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	1,0	(0,0-4,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	6,5	(1,0-16,5)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Uda-txirta / Bisbita arbóreo

Anthus trivialis

Ekologia eta banaketa

Lurrean egiten du habia, landazabalak, sastrakak eta zuhaitz sakabanatuak dauden eremuetan. Horrela, garapen bidean dauden landaketetan eta baso gazteetan oso ohikoa den hegaztia da. Donostian, ez da espezie ugarienetakoa, baina ezta oso urria ere. Hiriko inguru-bidean, Uliako baso-eremuetan eta gune erdi-irekietan, San Markos gotorleku eta inguruetan, Landarbason, Igeldon edo Zubietako zenbait tokitan aipatzen da nagusiki (1. mapa). Litekeena da espezie hau ugaltzen deneko azalera handiagoa izatea behaketak dituzten laukiek hartzen duten azalera baino.

Populazioa

Oso ohikoa ez den hegaztia denez, ezin izan da ereduen bidez ugaritasuna balioetsi. Horrela, espeziea behatzen den laukien kopurua (1. mapa) eta 10 hegazti/km^2-ko dentsitate-balioa kontuan hartuz[4], 80 hegaztiko populazioa lortuko litzateke.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera negatiboa da[24]; Euskadin, egonkorra (aldia: 1998-2019)[25]. Plagiziden erabilera, urbanizazioa eta habitataren galeraz gain, ez da mehatxu zehatzik ezagutzen. Baso-masen handipenak espazio erdi-irekien kaltetan, espeziearentzat eskuragarri dagoen habitata murriztu dezake, eta, ondorioz, populazioaren gainbehera eragin udalerri mailan.

Ecología y distribución

Nidifica en el suelo en zonas de campiña, matorral y arbolado disperso. Es, así, un ave muy típica de plantaciones en desarrollo y bosques jóvenes. En S. Sebastián es una especie que, no siendo de las más abundantes, tampoco es rara. Se cita principalmente en el cinturón periurbano, en espacios boscosos y semiabiertos en Ulia, el fuerte de S. Marcos y alrededores, Landarbaso, Igeldo o algunos lugares de Zubieta (Mapa 1). La relación de celdas donde se ha visto la especie es, posiblemente, inferior a la superficie total donde esta especie cría.

Población

Al tratarse de un ave no muy común, su abundancia no se ha podido estimar mediante modelos. Así, si consideramos el número de celdas en las que la especie se observa (Mapa 1) y un valor de densidad de 10 aves/km^2[4], se obtendría una población de 80 aves.

Conservación

La tendencia de su población en Europa es negativa[24]; en Euskadi, estable (periodo: 1998-2019)[25]. No se conoce la existencia de amenazas claras, más allá del empleo de plaguicidas, la urbanización y la pérdida de hábitat. El incremento de masa forestal en detrimento de espacios semiabiertos podría reducir el hábitat disponible para la especie y generar, en consecuencia, un declive de su población a nivel local.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Txonta arrunta / Pinzón vulgar

Fringilla coelebs

Ekologia eta banaketa

Basoko hegaztia; ia zuhaitz-mota guztietan ugaltzen da, baso handietatik hasi eta parke eta lorategi-etaraino[102]. Oso espezie arrunta da Donostian ere, udalerri osoan ondo banatua dagoena (1. mapa). Lorategi eta parke oso hiritarretan ere umatzen da, Pio XII edo Gernikako arbolaren pasealekuan aurkitzen ditugun zuhaitzetan, esaterako. Ereduaren arabera, agerpen-probabilitatea oso handia da (%100etik gertu) ia udalerri osoan (2. mapa), eta hiriaren erdiguneko lauki hiritarretan bakarrik urritzen da.

Populazioa

Populazioa 2.600 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 1.700-3.900). Batez besteko dentsitatea 42,5 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 27,5-64,5); balio maximoak hiri-parkeetan (125 hegazti/km^2 baino gehiago), eta baso-inguruneetan (dentsitate baxuagoekin, 75 hegazti/km^2) lortzen ditu (Taula).

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera egonkorra da[24]; Euskadin, goranzkoa (aldia: 1998-2019)[25]. Hirian espezie honen ugalketa sustatzeko, parke eta pasealekuetan zuhaitz handiak egon behar dira.

Ecología y distribución

Ave forestal; cría en casi todo tipo de arbolado, desde grandes bosques hasta parques y jardines[102]. En S. Sebastián es, también, una especie muy común, bien distribuida en todo el municipio (Mapa 1). Cría, incluso, en jardines y parques muy urbanos, como es el caso de los árboles que encontramos en Pío XII o a lo largo del paseo del árbol de Gernika. El modelo indica una probabilidad muy alta de presencia (cercana al 100%) en casi todo el municipio (Mapa 2), rarificándose solo en las celdas más urbanas del centro de la ciudad.

Población

La población se estima en 2.600 aves (rango: 1.700-3.900). La densidad promedio es de 42,5 aves/km^2 (rango: 27,5-64,5); alcanza valores máximos en parques urbanos (de más de 125 aves/km^2), a los que le siguen los medios forestales (con densidades más bajas, de 75 aves/km^2) (Tabla).

Conservación

La tendencia de su población en Europa es estable[24]; en Euskadi, en aumento (periodo: 1998-2019)[25]. Para impulsar su nidificación en la ciudad se requiere de la existencia de árboles grandes en parques y paseos.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	29,5	(14,5-51,0)
Basoa / Forestal	75,5	(36,0-128,5)
Hiriko parkea / Parque urbano	125,0	(82,5-186,0)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	0,0	(0,0-0,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	16,5	(4,5-35,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Gailupa / Camachuelo común

Pyrrhula pyrrhula

Ekologia eta banaketa

Baso hezeei lotua, bertako basoak dauden eremuetan nahiz baso-ertzetan agertzen da, baita landazabal-paisaiako zuhaixketan ere[102]. Hiriko parke handietan ere azaltzen da, Ametzagainan adibidez, non hainbat bikote umatzen diren. Udalerri osoan ondo banatuta dago (1. mapa); ondo garatutako zuhaitz hostoerorkorrak eta oihanpeak dauden eremu guztietan agertzen da. Ereduaren arabera, baso eta sastrakadien azalerak eragin positiboa du agerpen-probabilitatean, eta eraikin eta lorategien azalerak, berriz, negatiboa (2. mapa). Modu honetan, mapa modelizatuak espeziea agertzeko probabilitate handiagoa aurreikusten du gutxiago urbanizatutako eremuetan.

Populazioa

Behaketa gutxi dituen espeziea da, eta, beraz, ezin da honen ugaritasuna zehaztasunez balioetsi. 630 hegazti daudela kalkulatzen da, baina ziurgabetasun-maila handia duen balioa da. Populazioaren benetako tamaina gutxienez ehunka ale batzuetakoa izango litzateke. Dentsitatea 10 hegazti/km^2-koa dela kalkulatzen da.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera egonkorra da[24]; Euskadin, goranzkoa (aldia: 1998-2019)[25]. Nahiz eta basoko espeziea izan, oso espezie sentikorra da baso-landaketekiko, desagertu egiten baita bertako baso hostoerorkorra landaketa jakin batzuekin ordezkatzen denean, eukaliptadiekin adibidez[89]. Gainera, basoen "garbiketak" era negatiboan eragiten dio, zuhaixketan umatzen baita.

Ecología y distribución

Ligado a bosques húmedos, tanto en zonas de bosque nativo como en márgenes de bosque y arbustos en paisaje de campiña[102]. Ocupa, también, grandes parques urbanos, como el de Ametzagaina, donde crían algunas parejas. Bien distribuido en todo el municipio (Mapa 1); está presente en todas aquellas zonas en las que el arbolado caducifolio bien desarrollado esté acompañado de sotobosque. El modelo indica un efecto positivo de la superficie de bosque y matorral, y negativo de la de edificaciones y jardines, en su probabilidad de presencia (Mapa 2). Así, el mapa modelizado prevé una mayor probabilidad de presencia en las zonas con menor grado de urbanización.

Población

Es una especie con un escaso número de contactos, para la cual, en consecuencia, no es posible estimar su abundancia con precisión. Ésta se estima en 630 aves, aunque con un margen alto de incertidumbre. El tamaño real de la población se estimaría en al menos unos pocos centenares de individuos. La densidad se estima en 10 aves/km^2.

Conservación

La tendencia de su población en Europa es estable[24]; en Euskadi, al alza (periodo: 1998-2019)[25]. Aunque forestal, es una especie muy sensible a plantaciones forestales, pues desaparece cuando el bosque caducifolio nativo es sustituido por determinadas plantaciones, como los eucaliptales[89]. Además, la "limpieza" de bosques le afecta negativamente, pues cría en arbustos.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia





Txorru arrunta / Verderón común

Chloris chloris

Ekologia eta banaketa

Habitat erdi-irekiak nahiago ditu, zuhaitz sakabanatuekin, baso ertzetan, lorategietan, baratzeetan edo parkeetan[102]. Donostian landa-eremuetan, parke eta lorategietan ikus daiteke (1. mapa). Modelizatutako maparen arabera, lorategi eta eraikin gehien dituzten laukiak nahiago ditu (2. mapa). Baso gehien duten eremuetan urritzen da. Horrela, espeziea agertzeko probabilitatea maximoa da lorategi gehien duten auzoetan, hala nola Aiete, Zorroaga, Loiolako gune batzuk, Intxaurrondo, Altza edo Urgull edo Cristina Enea bezalako parkeetan.

Populazioa

Populazioa 900 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 500-1.400). Batez besteko dentsitatea 14,0 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 8,0-23,5); baliorik altuenak zuhaiztiak eta lorategiak dituzten hiriko guneetan lortzen dira, bai lorategiak dituen habitat hiritarrean, bai hiriko parkeetan (Taula). Habitat guztiz hiritarrean ere agertzen da.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera egonkorra da[24]; Euskadin, goranzkoa (aldia: 1998-2019)[25]. Donostia bezalako hirietan eremu urbanizatuenak kolonizatzen ari den espeziea da, lorategi txiki eta zuhaitz multzoetan umatzen delarik.

Ecología y distribución

Prefiere hábitats semiabiertos, con arbolado disperso, en bordes de bosque, jardines, huertos o parques[102]. En S. Sebastián puede verse en zonas rurales, parques y jardines (Mapa 1). El mapa modelizado indica una preferencia muy clara por las celdas con más jardines y edificios (Mapa 2). Se rarifica en las zonas más forestales. Así, la probabilidad de presencia es máxima en los barrios más ajardinados, como Aiete, Zorroaga, sectores de Loiola, Intxaurrondo o Alza o parques como Urgüll o Cristina Enea.

Población

La población se estima en 900 aves (rango: 500-1.400). La densidad promedio es de 14,0 aves/km^2 (rango: 8,0-23,5); alcanza valores máximos en zonas urbanas donde existe arbolado y jardines, tanto en zonas de urbano ajardinado como parques urbanos (Tabla). Llega a adentrarse, también, en el urbano duro.

Conservación

La tendencia de su población en Europa es estable[24]; en Euskadi, en aumento (periodo: 1998-2019)[25]. En ciudades como S. Sebastián es una especie que está colonizando las zonas más urbanizadas, donde llega a criar en manchas de arbolado en pequeños jardines y medianas.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	14,0	(5,5-27,0)
Basoa / Forestal	16,5	(4,0-34,0)
Hiriko parkea / Parque urbano	23,5	(2,5-63,0)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	1,5	(0,0-5,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	24,0	(11,0-43,5)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Txoka arrunta / Pardillo común

Linaria cannabina

Ekologia eta banaketa

Gune irekietan agertzen den hegaztia da, bai kostaldean, baita mendietan ere. Sastrakadi baxuetan umatzen da, landazabaletan eta zuhaixkadun habitatetan, baso itxiko eremuak saihestuz[102]. Donostian ugaltzaile gisa oso urria da; Igeldoko mendebaldean eta Añorga eta Altza arteko landazabalean aipatu da, baita Landarbason ere (1. mapa).

Populazioa

Espeziea leku gutxi batzuetan baino ez denez behatu, populazioa zenbatestea zaila da. Espainiako hegazti habiagileen atlasean 50-700 hegazti/km^2-ko dentsitate ekologiko maximoak kalkulatu ziren[131]; horren arabera, 20 eta 230 hegazti artean egongo lirateke Donostian. Euskadiko kostaldeko landazabaletan, ordea, dentsitate askoz baxuagoak kalkulatu ziren (ia 10 hegazti/km^2)[89], eta horrek 5 hegazti baino gutxiagoko balioa ematen du espeziea ikusi den lauki guztietarako. Hau, atlas honetarako bildu diren datuak ikusita, ez da oso zentzuzkoa. Udalerri osorako 50 eta 200 ale bitarteko kopurua zentzuzkoa izango litzateke.

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera negatiboa da[24]; Euskadin, egonkorra (aldia: 1998-2019)[25]. Beste leku batzuetan, txoken beherakada landa-inguruneko pestiziden eta herbiziden erabilerarekin lotu da. Donostiaren kasuan, sastrakak dituzten eremu zabaletan baso-masa handitzeak, udalerriko populazioaren gainbehera eragin dezake.

Ecología y distribución

Es un ave que se asocia a espacios abiertos, tanto en la costa como en montañas. Cría en matorrales, a escasa altura, en campiñas y hábitats arbustivos, evitando zonas boscosas densas[102]. En S. Sebastián es raro como reproductor, citado en el sector occidental de Igeldo y en determinadas campiñas del cinturón rural que hay entre Añorga y Alza, así como en Landarbaso (Mapa 1).

Población

Difícil de estimar, dado el bajo número de zonas donde se ha observado. En el atlas de aves nidificantes de España se calcularon densidades ecológicas máximas de 50 a casi 700 aves/km^2[131], lo que arrojaría una estima de 20 a 230 aves para S. Sebastián. En campiñas costeras de Euskadi, no obstante, se estimó una densidad muy inferior (apenas casi 10 aves/km^2)[89], lo cual arroja una estima por debajo de 5 aves para el conjunto de celdas donde se ha visto la especie, lo cual es poco razonable a la vista de los datos que se han recopilado para este atlas. Una estima de 50 a 200 individuos para todo el municipio es razonable.

Conservación

La tendencia de su población en Europa es negativa[24]; en Euskadi, estable (periodo: 1998-2019)[25]. En otras zonas, el descenso de pardillos se ha asociado al el uso de plaguicidas y herbicidas en el medio rural. En el caso de S. Sebastián, el crecimiento de masa forestal en espacios matorralizados semiabiertos podría contribuir al declive de la población en el municipio.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Karnaba / Jilguero europeo

Carduelis carduelis

Ekologia eta banaketa

Baso-ertz, ibar-baso eta nekazaritza-guneetako zuhaitzetan umatzen da; baita parke eta lorategietan ere[102]. Belardietan eta toki irekietan elikatzen da. Donostian, zuhaitzen bat duen ia edozein lekutan umatzen da, kale eta etorbideetako erdibitzaile eta espaloiak barne (1. mapa). Modelizatutako mapak espeziea agertzeko probabilitate handia adierazten du udalerri osoan, hegazti ohikoenetariko bat izanik (2. mapa). Baso gehien dagoen guneetan bakarrik urritzen da, Oberanen esaterako. Leku orotan agertzen denez, ez dago udalerrian bere presentzia aurreikusten lagun dezakeen faktorerik. Hala ere, sastraken eta lorategien azalerak nolabaiteko eragin positiboa du espeziearen agerpenean, eta eraikinen azalerak negatiboa.

Populazioa

Populazioa 1.900 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 1.300-2.800). Batez besteko dentsitatea 31,0 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 20,5-45,5); baliorik altuenak lorategiak dituen habitat hiritarrean lortzen dira, eta jarraian landazabal eta hiriko parkeetako balioak. Dentsitate aipagarriak aurkezten ditu guztiz hiritarra den habitatean (Taula).

Kontserbazioa

Populazioaren joera egonkorra da bai Europan bai Euskadin (aldia: 1998-2019)[24,25]. Bere kontserbaziorako mehatxu bat izan daiteke landa-ingurunean biozidak eta kimikoak erabiltzea. Bestalde, badirudi espeziea lehen ez zegoen lekuetan agertzen dela, hiriko auzo urbanizatuenen kolonizazioa duela gutxikoa izanik.

Ecología y distribución

Cría en árboles en lindes de bosque, sotos y zonas agrícolas; también en parques y jardines[102]. Se alimenta en herbazales y espacios abiertos. En S. Sebastián se reproduce en casi cualquier zona con algo de arbolado, incluido las medianas y aceras de calles y avenidas (Mapa 1). El mapa modelizado señala una probabilidad muy alta de presencia en todo el municipio, siendo así una de las aves más comunes (Mapa 2). Únicamente se rarifica en las zonas más forestales, como es el caso de Oberan. Dada su ubicuidad, no hay factores que permitan claramente predecir su presencia en el municipio. Existe, no obstante, cierto efecto positivo de la superficie de matorral y jardines y negativo de la de edificios.

Población

La población se estima en 1.900 aves (rango: 1.300-2.800). La densidad promedio es de 31,0 aves/km^2 (rango: 20,5-45,5); alcanza valores máximos en el urbano ajardinado, al que le siguen las campiñas así como los parques urbanos. Mantiene densidades reseñables en el urbano duro (Tabla).

Conservación

La tendencia de su población en Europa y en Euskadi (periodo: 1998-2019) es estable[24,25]. El empleo de biocidas y químicos en el medio rural puede ser una amenaza para su conservación. En contrapartida, parece ser que la especie aparece en zonas donde antes no estaba, de tal modo que la colonización de los barrios más urbanizados de la ciudad es reciente.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	39,0	(23,5-61,0)
Basoa / Forestal	20,0	(0,0-46,5)
Hiriko parkea / Parque urbano	32,0	(13,0-59,0)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	6,5	(0,0-20,5)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	45,5	(23,5-77,5)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Txirriskil arrunta / Serín verdecillo

Serinus serinus

Ekologia eta banaketa

Zuhaitz sakabanatuak dauden eremuetan ugaltzen da, bai eta hiriko parke, baratze eta lorategietan ere[102]. Donostiaren kasuan, oso ondo banatutako espeziea da, bai landa-eremuetan, baita parke eta lorategietan ere (1. mapa). Eremu urbanizatuenetan bakarrik desagertzen da, hau da, Erdiguneko hainbat eremutan, Gros edo Ibaetan. Ereduak ez du lotura argirik adierazten inongo aldagairekin, baina mapa modelizatuak itsasotik hurbilen dauden guneetan eta baso gehien dagoen eremuetan (Oberanen, adibidez) urriagoa dela adierazten du (2. mapa).

Populazioa

Populazioa 1.500 hegaztikoa dela kalkulatzen da (balio-tartea: 800-2.500). Batez besteko dentsitatea 24,0 hegazti/km^2-koa da (balio-tartea: 13,5-41,0); balio maximoak landazabalean eta hiriko parkeetan lortzen ditu (Taula).

Kontserbazioa

Europako populazioaren joera negatiboa da[24]. Euskadin, egonkorra (aldia: 1998-2019)[25]. Pestiziden eta herbiziden gehiegizko erabilera eta berezko landaredi belarkararen maneiu jarraituak elikagaien eskuragarritasuna murriztu dezake. Hau bere kontserbaziorako arazo bihur daiteke udalerri mailan. Testu-inguru honetan, komenigarria litzateke parke eta lorategien kudeaketan aldaketak egitea; adibidez moztu gabeko belar-eremuak uztea.

Ecología y distribución

Cría en zonas de arbolado disperso, sin descartar los parques urbanos, huertas y jardines[102]. En el caso de S. Sebastián es una especie muy bien distribuida en el municipio, tanto en zonas rurales como en parques y jardines (Mapa 1). Solo desaparece en las zonas más urbanizadas, como son partes del Centro, Gros o Ibaeta. El modelo no indica una asociación muy clara con ninguna variable en particular, si bien el mapa modelizado muestra que la especie es más escasa (se rarifica) en las zonas más cercanas al mar así como en las más forestales (como Oberan) (Mapa 2).

Población

La población se estima en 1.500 aves (rango: 800-2.500). La densidad promedio es de 24,0 aves/km^2 (rango: 13,5-41,0); alcanza valores máximos en las campiñas así como en parques urbanos (Tabla).

Conservación

La tendencia de su población en Europa es negativa [24]. En Euskadi, estable (periodo: 1998-2019)[25]. El abuso de plaguicidas y herbicidas, así como el manejo continuado de la vegetación herbácea natural podría reducir la disponibilidad de alimento y constituirse, así, en un problema para su conservación a nivel local. En este contexto, convendría llevar a cabo políticas de gestión en parques y jardines orientadas a dejar áreas de hierba no cortada.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Agerpen-eredua / Modelo de ocurrencia



Habitata Habitat	Batezbestekoa (hegazti/km²) Media (aves/km²)	Tartea (hegazti/km²) Rango (aves/km²)
Landazabala / Campiña	29,0	(11,0-60,0)
Basoa / Forestal	18,0	(0,0-60,5)
Hiriko parkea / Parque urbano	28,0	(11,0-55,0)
Guztiz hiritarra / Urbano duro	3,5	(0,0-10,0)
Hiritarra lorategiekin / Urbano ajardinado	13,5	(2,0-32,0)

Taula: Batez besteko dentsitateak (tartea: %95eko errore-marjina) udalerriko habitat adierazgarrienetan.
Tabla: Densidades medias (rango: margen de error al 95%) en los hábitats más representativos del municipio.



Berdantza horia / Escribano cerillo

Emberiza citrinella

Ekologia eta banaketa

Udalerrian hautemandako beste bi berdantza-espezieak bezala, gune erdi-irekietan behatu daiteke, sakabanatutako zuhaiztiak eta sastrakak agertzen diren lekuetan[132]. Espeziea Igeldo iparraldeko eta hegoaldeko magaletan dauden zuhaixka-eremuei lotuta agertzen da bereziki (1. mapa), bertan bilduko litzatekeelarik udalerriko populazioaren zatirik handiena.

Populazioa

Espeziea lauki gutxitan behatu denez, zaila da populazioa zenbatestea. Espainia osorako, batez besteko dentsitatea 30 hegazti/km^2 baino altuagoa zela kalkulatu zen, 750 m-tik gora dauden eta zuhaitzak dituzten larreetan, eta 10 hegazti/km^2-ko batez besteko dentsitatea ibaiertzeko baso-habitatetan[4]. Lehenengo balio hau hartuko bagenu espeziea Donostian hautematen den lauki guztietarako, gutxienez 80 hegazti ugaltzaileko populazioa edukiko genuke.

Kontserbazioa

Gainbeheran dagoen espeziea, bai estatu mailan[24] zein Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Novalek[49] 1960ko hamarkadan adierazi zuen espeziea Gipuzkoan asko urritu zela. 2003ko atlasean, Aierbe *et al.*-en arabera[65],espezie hau ondo banatuta zegoen probintzia osoan, ugaritasuna aztertu ez zuten arren. Udalerri mailan nahiko espezie urria da, eta, ondorioz, bere egungo kontserbazio-egoera ezezaguna da. Litekeena da azken hamarkadetan bere banaketa-eremua eta ugaritasuna murriztu izana. Komenigarria litzateke xehetasunez aztertzea, gehien erabiltzen dituen habitatak zehazteko eta, ondoren, hala badagokio, maila lokalean izan ditzakeen mehatxuak identifikatzeko.

Ecología y distribución

Como las otras dos especies de escribanos detectadas en el municipio, se observa en espacios semiabiertos con arbolado disperso y matorral[132]. Particularmente, es una especie que se asocia a zonas arbustivas tanto en la cara norte como sur de Igeldo (Mapa 1), donde se concentraría la mayor parte de su población en el municipio.

Población

Dado el reducido número de celdas en las que la especie se observa es difícil estimar su población. Para el conjunto de España se calcularon densidades medias de más de 30 aves/km^2 en pastos arbolados a altitudes de más de 750 m y de 10 aves/km^2 en hábitats forestales riparios[4]. Asumiendo el primer valor para todas las celdas en que la especie se detecta en S. Sebastián, se estimaría un tamaño poblacional mínimo de 80 aves reproductoras.

Conservación

Especie en declive, tanto a nivel comunitario[24] como en Euskadi (periodo: 1998-2019)[25]. En la década de 1960 Noval[49] indicó que era una especie que había disminuido mucho en Gipuzkoa. En el atlas de 2003, Aierbe *et al.*[65] la describen como una especie que está bien distribuida en toda la provincia, si bien no analizan su abundancia. A nivel local es una especie más bien escasa, por lo que se desconoce su estado de conservación actual. Es muy probable que su área de distribución y abundancia hayan disminuido durante las últimas décadas. Convendría estudiarlo en detalle para definir qué hábitats son los que usa preferentemente y, posteriormente, identificar, si cabe, las amenazas que pueda tener a nivel local.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Mendi-berdantza / Escribano montesino

Emberiza cia

Ekologia eta banaketa

Mendiko habitat irekiei lotutako espeziea, non zuhaitz sakabanatuak eta sastrakadiak egon daitezkeen[133]. Donostian, batik bat malda handiko eremuetan agertzen da, pinu-landaketen ertzetan. Espezie urria da, bi laukitan baino ez da aipatu: Ulian eta Zubietan, erraustegi berritik gertu (1. mapa).

Populazioa

Udalerri mailan urria izanik, zaila da bere populazioa kalkulatzea. Espainia osorako, 55 eta 26 hegazti/km^2 arteko balioak zenbatesten dira, eskualde kantauriarreko sastrakadietan eta ibaiertzeko habitatetan, hurrenez hurren[4]. Lehenengo balioa hartuz gero espeziea hautematen den lauki guztietarako, populazioa gutxienez 30 hegaztikoa izango litzateke. Beste berdantzen kasuan bezala, litekeena da espezie honen banaketa eta ugaritasuna gutxietsi izana, detektagarritasun arazoak direla eta.

Kontserbazioa

Europan populazioa hazten ari da[24]. Euskadin joera ezezaguna da. Udalerri mailan oso hegazti urria da, bere habitataren eskasia dela eta. Testuinguru honetan, Donostian ez da identifikatu bere kontserbazioa arriskuan jar dezakeen mehatxurik.

Ecología y distribución

Especie ligada a hábitats montanos abiertos, donde puede haber arbolado disperso y matorral[133]. En S. Sebastián se asocia, fundamentalmente, a márgenes de plantaciones de pino en zonas de pendiente. Especie escasa, citada en tan solo dos celdas, en Ulia y, en Zubieta, cerca de la nueva incineradora (Mapa 1).

Población

Dada su rareza a nivel local, es difícil estimar su población. Para el conjunto de España se estiman valores que oscilan entre 55 aves/km^2 en matorrales de la región cantábrica y 26 aves/km^2 en hábitats ripariosl[4]. Asumiendo el primer valor para todas las celdas en que la especie se detecta, el tamaño poblacional mínimo se establecería en 30 aves. Al igual que en los otros escribanos, es muy probable que la distribución y abundancia de esta especie haya sido subestimada, debido a problemas de detectabilidad.

Conservación

Población en aumento en Europa[24]. Tendencia desconocida en Euskadi. A nivel local es un ave muy rara, debido a la escasez de su hábitat. En este contexto, no se identifican amenazas que pudieran comprometer su conservación en S. Sebastián.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada





Hesi-berdantza / Escribano soteño

Emberiza cirlus

Ekologia eta banaketa

Zuhaiztiak edo sastrakak dituzten leku erdi-irekietan egoteko joera du[132], hiri-inguruko landazabaleko paisaian gertatzen den bezala. Gutxieneko tamaina duten parkeetan ere aipatzen da, Ametzagainan, esaterako. Udalerrian aipamen gutxi dituen espeziea da (1. mapa), baina litekeena da bere banaketa-eremua gutxietsi izana.

Populazioa

Leku gutxitan behatu denez, zaila da populazioaren tamaina balioztatzea. Espainia osorako, batez besteko dentsitateak ia 50 hegazti/km^2-koak zirela kalkulatu zen zurezko laborantzen kasuan (mahastiak) eta 20 hegazti/km^2 inguru ibaiertzeko basoetan eta sastrakadietan[4]. Azken balio hori hartzen badugu Donostian espeziea hautematen den lauki guztietarako, populazioa gutxienez 30 hegaztiz osatuta egongo litzake.

Kontserbazioa

Populazioaren joera egonkorra da, bai Europan[24], bai Euskadin (aldia: 1998-2019)[25]. Ez da oso espezie zorrotza habitatari dagokionez[134] eta honek mesede egiten dio kontserbazioaren ikuspegitik. Dirudienez, Donostian espezie urria da, gutxi ezagutzen dena, eta, ondorioz, zaila da honen kontserbazio-egoera ebaluatzea. Komenigarria litzateke xehetasunez aztertzea, gehien erabiltzen dituen habitatak zehazteko eta, ondoren, hala badagokio, maila lokalean izan ditzakeen mehatxuak identifikatzeko.

Ecología y distribución

Tiende a ocupar espacios semiabiertos con arbolado o matorral[132], como ocurre en el paisaje de campiña de la zona periurbana; también se cita en parques de cierto tamaño, como el de Ametzagaina. Es una especie con pocas citas en el municipio (Mapa 1), aunque podría ser que su área de distribución haya sido subestimada.

Población

Dada la escasez de zonas donde se ha detectado su presencia, es difícil estimar su población. Para el conjunto de España se calcularon densidades medias de casi 50 aves/km^2 en cultivos de carácter leñoso (viñedos) a unas 20 aves/km^2 en bosque de ribera y matorral[4]. Asumiendo este último valor para todas las celdas en que la especie se detecta en S. Sebastián, se estimaría un tamaño poblacional mínimo de 30 aves.

Conservación

Poblaciones estables, tanto a nivel de Europa[24] como en Euskadi (periodo 1998-2019)[25]. Es una especie que no es muy estricta en cuanto a hábitat[134], lo cual le favorece desde el punto de vista de su conservación. Especie aparentemente escasa en S. Sebastián, poco conocida, para la cual resulta difícil evaluar su estado de conservación. Convendría estudiarlo en detalle para definir qué hábitats son los que usa preferentemente y, posteriormente, identificar, si cabe, las amenazas que pueda tener a nivel local.

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada

Posiblea
Posible

Probablea / Segurua
Probable / Seguro





Japoniako urretxindorra / Leiotrix piquirrojo

Leiothrix lutea

Ekologia eta banaketa
Asiar jatorria duen basoko espeziea[135], espezie exotiko inbaditzailetzat jotzen dena (Espainiako Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoa). Zabaltzea lortzen duen lekuetan sedentarioa da[1], nahiz eta nolabaiteko dispertsioa gertatzen den umatze-garaiaren ondoren[136]. Lehenago ere zenbait behaketa jasoak ziren, udazken eta negukoak, Ametzagainan, Miramonen edo Cristina Enea parkean, esaterako. Atlaseko zentsoetan bikote bat ikusi zen Landarbason, eta haren portaerak habia zeukatela iradokitzen zuen (1. mapa). Horrela, espeziearen ugalketa probableko kasu bat izango litzateke eta, beraz, espezieak udalerrian habia egin duen lehenengo aldia.

Populazioa
Zalantzazkoa. Gutxienez bikote bat, ugalketa probablea duena, baina baieztatu gabea.

Kontserbazioa
Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan sartuta dagoen espeziea da eta honek espezie hau bertatik desagerraraztera behartzen du. Gipuzkoarako egin diren aipamenak ikusita, badirudi Frantzia hegoaldetik iritsitako aleen bitartez ari dela espeziea eskualdea kolonizatzen[136]. Maila ekologikoan sortzen dituen arazoetako bat bertako espezieekiko lehia da[137].

Ecología y distribución
Especie forestal de origen asiático[135], considerado especie exótica invasora (Catálogo Español de Especies Exóticas Invasoras). Allí donde logra establecerse es sedentario[1], si bien existe cierta dispersión tras el periodo de cría[136]. Ya se conocían algunas citas previas tanto durante el otoño como en invierno, en el parque de Cristina Enea, Ametzagaina o Miramón. Durante los censos del atlas se avistó una pareja cuyo comportamiento sugeriría la presencia de un nido en Landarbaso (Mapa 1). Se trataría, así, de un caso de reproducción probable de la especie y primera cita de nidificación para el municipio.

Población
Incierta. Como mínimo una pareja, de reproducción probable, pero no confirmada.

Conservación
Especie incluida en el Catálogo Español de Especies Exóticas Invasoras, el cual obliga a erradicar su presencia. A la vista de las citas que se reportan para Gipuzkoa, parece ser que esta especie está colonizando la región a partir de individuos llegados del sur de Francia[136]. Entre los impactos que genera a nivel ecológico está la competencia con las especies autóctonas[137].

Behaketen banaketa-mapa / Mapa de distribución observada



Ugalketa zalantzazkoa duten espezieak

Haitz-enara
Ptyonoprogne rupestris

Harkaitzei eta eraikuntzei lotutako espeziea (zubiak eta eraikinak). Donostian Intxaurrondo auzoaren hegoaldean aipatu da ugalketa-garaian, baina ez da bere ugalketa egiaztatu. Ondoko udalerrietan aipatu da[65]. Horrela, Lasarteko N-1 errepideko zubi batean ugaltzen da, Oria ibaiaren ibilguaren gainean, Donostiarekin muga egiten duen eremu batean. Beraz, badirudi herri mugakideetan ugaltzen diren hegaztiek Donostiako udalerria dutela haien erabilera-eremuaren barnean.

Txio lepazuria
Phylloscopus bonelli

Gipuzkoako zati handi batean ugaltzaile gisa aipatzen da[65]. Donostian, behaketa guztiak apirilekoak eta maiatzekoak dira (baten bat martxoan) eta normalean kantuan ari ziren arrak izaten dira. Behaketa hauek ugalketa aurreko migrazio-aldian gertatzen dira eta, ez denez hegazti habiagilerik inoiz ikusi, zalantza dago ea udaberriko behaketak hegazti migratzaileenak diren eta ez ugaltzaileenak.

Sasi-txinboa
Sylvia communis

Gipuzkoako zati handi batean ugaltzaile gisa aipatzen da[65]. Donostian, behaketa guztiak migrazio-garaikoak dira. Ondorioz, zalantza dago ea udaberriko behaketak hegazti migratzaileenak diren eta ez ugaltzaileenak.

Arabazozo beltza
Sturnus unicolor

Mediterraneo aldean ondo banatzen den espeziea da, baina Kantauri isurialdean urritu egiten da[138]. Gipuzkoako barnealdean ugaltzaile gisa aipatua[65]. Atlas honetarako egin ziren zentsoetan ale bat ikusi zen 2018ko ekainean, Unanue eremuaren hegoaldean (Belartza-Errekalde gunea).

Harkaitz-zozo urdina
Monticola solitarius

Harkaitzei lotutako espeziea. Donostian, iraganean, Igeldon aipatu zen, Tximistarri inguruan. Horrela, kostaldeko itsaslabarrekin lotzen da[65]. Nolanahi ere, oso espezie urria da, eta bere presentzia ez da egiaztatu atlas hau egin den garaian.

Especies de reproducción dudosa

Avión roquero
Ptyonoprogne rupestris

Especie ligada a roquedos y construcciones (desde puentes hasta edificios). En S. Sebastián se cita en época de cría en la zona sur del barrio de Intxaurrondo, pero su reproducción no ha sido constatada. Sí se ha citado en municipios próximos[65]. Así, cría en un puente de la N-1 en Lasarte sobre el cauce del río Oria, en una zona que linda con S. Sebastián. Sí parece, en consecuencia, que aves que crían en zonas limítrofes usan el municipio de S. Sebastián como área de campeo.

Mosquitero papialbo
Phylloscopus bonelli

En Gipuzkoa se cita como reproductor en buen parte de la provincia[65]. En S. Sebastián, todas las citas son de abril y mayo (excepcionalmente, marzo), generalmente de machos cantando, coincidiendo con el periodo de paso migratorio prenupcial. No existe constancia de aves nidificantes y existe la duda, razonable, de que las observaciones de primavera estén asociadas a aves en paso, no reproductoras.

Curruca zarcera
Sylvia communis

En Gipuzkoa se cita como reproductor en buena parte de la provincia[65]. En S. Sebastián, todas las citas se producen en periodo de paso migratorio. En consecuencia, existe la duda, razonable, de que las observaciones de primavera estén asociadas a aves en paso, no reproductoras.

Estornino negro
Sturnus unicolor

Es una especie que se distribuye bien en la región mediterránea, pero se rarifica en la cantábrica[138]. Citada como reproductora en el interior de Gipuzkoa[65].Durante el desarrollo de los censos que se llevaron a cabo para este atlas se avistó un ejemplar en junio de 2018 en la zona sur del área de Unanue (zona Belartza-Errekalde).

Roquero solitario
Monticola solitarius

Especie ligada a roquedos. En S. Sebastián se citó en el pasado en Igeldo, en la zona de Tximistarri. Aparece, así, asociado a acantilados en la línea de costa[65]. Es, en todo caso, una especie muy escasa, cuya presencia no ha sido constatada durante el periodo de elaboración de este atlas.

Hegaztien aniztasunaren banaketa-ereduak eta kontserbaziorako lehentasunezko eremuak

Atlas baten helburu garrantzitsuenetako bat espezieak kontserbatzeko informazio erabilgarria ematea da. Atal honek nahi horri erantzuten dio, eta espezie bakoitzaren fitxetan xehetasunez deskribatu diren emaitzen laburpena da.

Hegaztien aniztasunaren banaketa-ereduak

Donostiako udalerri osoan 91 hegazti-espezie habiagile hauteman ditugu. Nabarmentzeko moduko kopurua da, kontutan hartuta Gipuzkoan biztanle gehien dituen eremuetako bat dela. Konparazio gisa, probintzia osoko 1980 km^2-tan 125 espezie habiagile inguru erregistratu ziren[65] eta hurbil dagoen Txingudiko hezegunean gehienez 250 espezie ikusi daitezke urte osoan zehar[2]. Bartzelonako atlasean 83 espezie hauteman zituzten[1]. Donostiako aberastasun handi hori, batez ere hurrengo bi faktoreen ondorio da: azalera handiko udalerria da (60 km^2 inguru) eta, gainera, habitat ugari ditu (besteak beste, Gipuzkoako itsaslabar garrantzitsuenak itsasoko hegaztientzat, parke handiak, landazabalak, otalurrak, basoak, ibai-guneak eta hezeguneak). Habitaten heterogeneotasun horrek hegaztien aberastasuna handiagoa izatea ahalbidetzen du[139,140] eta litekeena da faktore erabakigarria izatea Donostian aurkitutako espezie habiagileen kopuru handia azaltzeko garaian.

1. mapan, behaketen datuetan oinarritua, batez beste 30,8 espezie erregistratzen dira 1×1 km-ko lauki bakoitzerako. Behatutako espezie-kopurua maximoa da Ulia mendiko eremuetan, Igeldon, Martutenetik Altza edo Landarbasorantz zabaltzen diren landazabaletan, baita hiriko parke handiekin bat datozen hainbat laukitan ere, hala nola Cristina Enea, Aiete, Miramon edo Ametzagainan. Azken eremu horretan dago behatutako hegazti gehien dituen udalerriko laukia (61 espezie). Parke honek ia 0,4 km^2-ko azalera du, hegaztientzat habitat heterogeneoak eskainiz, hala nola nahiko ondo kontserbatutako



1. mapa. Donostian behatutako hegazti espezie habiagileen aberastasuna, 1×1 km-ko laukietan. Kontuan izan behar da behatutako espezieak direla; beraz, laginketa-ahaleginean egon diren desberdintasunengatik, litekeena da alborapena egotea.

baso-eremuak, gune irekiak eta lorategiak. Bestalde, mapa honek espezie-kopuru txikiagoa erakusten du iristeko zailak diren eta baso gehien duten lau-kietako batzuetan (Oberanen adibidez).

Hiriko parkeetan erregistratutako espezie-kopuru handiak agerian uzten du berdeguneek populazio handiko guneetan hegazti-fauna kontserbatzeko duten eginkizuna. Parke hauek biodibertsitatearen gordailuak dira eta hegazti-populazioen konektibitatea ahalbidetzen dute eremu guztiz hiritarrean zehar. Egoera honetan, agerian geratzen da berdeguneak sortu eta berreskuratzeak aukera ematen duela biodibertsitatearen kontserbazioa gehiago errespetatzen duten hiriguneak sortzeko[141]. Gainera, horrelako lekuak egoteak eta bertan bizi diren espezieek berebiziko garrantzia dute klima-aldaketaren aurrean erresilienteak diren hiriak sortzerako orduan[142-145]. Bestalde, berdegune horiek herritarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute, beste edozein eremuk baino gehiago[146-148]. Halaber, duela urte batzuetatik hona frogatu da hirietan biodibertsitatearen kontserbazioa ez dela mugatu behar hirian zehar uharte gisako parkeak sortzera. Horiekin batera, garrantzitsua da ahalik eta konektibitate ekologiko handiena lortzea, azpiegitura berde izenekoak sortuz (adibidez, kale eta plazetan zuhaitzak eta korridore berdeak landatuz). Oro har, berdegune-habitata sortzea, lehengoratzea, kontserbatzea eta kudeatzea Río+20 Biltzarrean ezarritako Garapen Jasangarrirako Helburuetako (GJH) bat da, 2015-2030 aldirako.

Azpimarratzekoa da hiriko lauki batzuetan espezie gehiago daudela hiri-inguruko beste batzuetan baino, azken hauetan habitat nagusia landazabala izanik ere. Behatutako espezieen kopuruan, hala ere, zerikusi handia dauka laginketa-ahaleginak. Sarbide errazak dituzten eremuetan edo behatzaileek espezie-aberastasun handia espero duten lekuetan ahalegina handiagoa izan ohi da[149]. 1. mapak udalerrian hegazti-espezie gehien dituzten eremuak erakusten ditu modu orokorrean, baina oraindik ere gutxietsita egongo litzateke espezie horien kopurua laginketa-ahalegina txikiagoa izan den lekuetan. Hori izango litzateke sarbide zaila duten udalerriko toki jakin batzuen kasua (Landarbaso, Oberan, Ulia edo Igeldoko mendi-hegal batzuk, esate baterako), eremua ez delako ibiltzeko aproposa edo sartzea ezinezkoa den lursail pribatuak daudelako. Horrela, muga horiek ondo irudikatzen dituen muturreko kasu bat Oberan litzateke. Inguru horretan, udalerrian hobekien kontserbatutako basoetako bat dago, zabalenetakoa ere badena, eta, horregatik, hasiera batean, espezieen aberastasun handia espero daiteke bertan (nahiz eta baso batzuetan hegaztien

Espeziea	AEEZ	I Eranskina	Kontserbaziorako lehentasuna
Miru gorria	GA	Bai	Maximoa
Ubarroi mottoduna	KA		Altua
Txirritxo txikia	KA		Altua
Uhalde-enara	KA		Altua
Txilinporta txikia	BA		Ertain-altua
Zapelatz liztorjalea	BA	Bai	Ertain-altua
Arrano txikia	BA	Bai	Ertain-altua
Okil beltza	BA	Bai	Ertain-altua
Zuhaitz-belatza	BA		Ertain-altua
Belatz handia	BA	Bai	Ertain-altua
Lezkari arrunta	BA		Ertain-altua
Miru beltza		Bai	Ertain-baxua
Zata arrunta		Bai	Ertain-baxua
Antzandobi arrunta		Bai	Ertain-baxua
Etze-txinboa		Bai	Ertain-baxua

1. taula. Kontserbaziorako lehentasuna duten Donostiako hegazti habiagileen espezieak, mehatxu-mailaren arabera sailkatuta. Lehentasuna indize batekin ezarri da, Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan (AEEZ) eta Hegaztien Zuzentarauko I Eranskinean oinarrituta kalkulatu dena. AEEZko kategoriak: GA, Galzorian; KA, Kaltebera; BA, Bakana.

aberastasuna txikia izan). Oberango baso-masaren zati handi bat pagadia da, eta jakina da pagadiek espezie gutxiago edukitzen dituztela bertako baso hostoerorkor batzuek baino (hariztiak, adibidez)[107,150]. Hala ere, Oberango espezieen kopurua espero daitekeen balioaren azpitik dago, baita pagadi batentzako ere[151]. Etorkizunean, inguru horretan egin daitezkeen azterketek nabarmen hobetu dezakete eremu horretako hegazti-faunaren inbentarioa. Hegazti-komunitateak, beharbada, Artikutzako lursailean erregistratutakoaren antza izango luke[152]. Testuinguru honetan, interesgarria litzateke izaera eurosiberiarreko habitat menditarretan ohikoak diren espezie batzuen presentzia egiaztatzea, mendi-erregetxoa (*Regulus regulus*) edo basoetako gerri-txoria (*Certhia familiaris*), esate baterako.

Espezie mehatxatuen banaketa eta kontserbaziorako lehentasunezko eremuen identifikazioa.

Eremu batek hegaztientzat duen garrantzia zehazteko, ohiko irizpide bat izaten da bertan dauden espezieen mehatxu-mailari begiratzea. Zenbat eta altuagoa izan espezie mehatxatuen kopurua eta horien mehatxu-maila, orduan eta garrantzitsuagoa izango da eremu hori hegazti-biodibertsitatearen kontserbaziorako. Irizpide hau kontuan hartu da Donostiako hegazti habiagileen kontserbaziorako eremurik garrantzitsuenak identifikatzeko. 1. taulan agertzen diren irizpideen arabera, kontserbaziorako lehentasunezko 15 espezie daude Donostian, hurrengo lehentasun-mailekin: maximoa (espezie 1), altua (3 espezie), ertain-altua (7 espezie) eta ertain-baxua (4 espezie). Espezie guzti hauetatik, 11 AEEZn (Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda) agertzen dira, eta 9 Hegaztien Zuzentarauaren I Eranskinean (1. taula). Udalerrian duten banaketa begiratuta, kontserbaziorako lehentasun gorena duten hiru eremu lortu ditugu (2. mapa): Ametzagainako parkea eta udalerriaren ekialdean dauden landazabalen bi eremu, bereziki A8aren hegoaldean geratzen direnak, Antondegitik San Markora. Hau, neurri handi batean, miru gorria eta eguneko beste basoko harrapari batzuk, zata eta antzandobi arrunta bezalako espezieak egotearen ondorio da. Hiri-ingurabideko zenbait puntuk ere kontserbazio-indize altuak aurkezten dituzte (adibidez, Igeldo, Unanue, Landarbaso…). Honek agerian jartzen du



2. mapa. Donostiako hegazti habiagileen kontserbazio-indizea 1×1 km-ko laukietarako. Indize hau lauki bakoitzean behatutako espezieen kontserbazio-balioa (1. taula) gehitzetik dator. Indizea 0 eta 100 bitarteko eskalan normalizatu da.

landazabala dela udalerriko hegaztiak kontserbatzeko ingurune garrantzitsuenetako bat. Urumearen ibilguarekin bat egiten duten hainbat lauki ere garrantzitsuak dira, txirritxo txikia eta lezkari arrunta bezalako espezieak agertzen baitira. Deigarria da Urumearen ibilguarekin eta Basozabalgo Golfarekin bat egiten duen laukiaren balio altua; hau, txilinporta txikia egoteari egotzi behar zaio. Oria ibaiarekin bat egiten duten laukiek ere balio altuak dituzte, batez ere uhalde-enararen agerpenarekin loturikoak. Azkenik, nabarmendu nahiko genuke Igeldo ekialdeko eta Uliako zati handi bateko itsaslabarren garrantzia; izan ere, bertan ubarroi mottoduna eta belatz handia agertzen dira, besteak beste, eta horrek bi eremu horiek ere kontserbaziorako lehentasunezkoak izatea dakar.

1. taulan ikus daitekeenez, hainbat eguneko baso-harrapari daude mehatxaturik. Horietako askoren banaketa gutxietsi egin da, ez baita detektagarritasuna hobetzeko diseinaturiko laginketa espezifikorik egin. Hortaz, ezin da baztertu hainbat laukitan lortutako kontserbazio-indizea altuagoa izatea, batik bat landazabalen berezkoa den baso, zelai eta larreen mosaikoa duten laukietan (esate baterako, Zubietan, Landarbason, Oberanen eta Igeldotik udalerriaren ekialdera zabaltzen diren landazabaletan). Eremu guzti horietan, nekazaritza-eredu jasangarria ezartzeak (landazabaleko espezieen eta habitaten kontserbazioan eta ingurumena errespetatzen duen nekazaritza-jardueran oinarrituta), etorkizunean berebiziko garrantzia izango du udalerrian ugaltzen diren espezie askoren kontserbaziorako. Bestalde, hegazti urtarren edo urarekin lotura duten hegaztien habitat-mota batzuk leheneratu edo berreskuratuz gero, Urumea eta Oriako ibilguek hegazti-mota hauen kontserbaziorako duten balioa bermatu edo hobetu ahalko litzateke. Horren adibide litzateke ibaiertzetan eta paduretan gaur egun desagertuta dauden lezkadiak berreskuratzea. Azkenik, agerian jartzen da Ulian zehar hedatzen diren itsaslabarrek duten garrantzi handia (ES2120014 Kontserbazio Bereziko Eremu izendapenaren bidez partzialki babestuta); bada, eremu horietan erabilerek eragindako presioa aztertu beharko litzateke. Igeldo ekialdeko itsaslabarrek ere garrantzi handia dute eta, hala ere, ez dute inolako babes-izendapenik.

Patrones de distribución de la diversidad de aves y zonas prioritarios para la conservación

Uno de los objetivos más importantes de un atlas es proporcionar información útil para la conservación de especies. Este capítulo responde a ese fin y es un compendio de los resultados que se han descrito pormenorizadamente en las fichas de cada una de las especies.

Patrones de distribución de la diversidad de aves

Detectamos 91 especies de aves nidificantes para todo el municipio de S. Sebastián. Es una cifra muy destacable para uno de los entornos más densamente poblados de Gipuzkoa. A título comparativo, en los 1980 km^2 de toda la provincia se registran en torno a 125 especies nidificantes[65] y en el cercano humedal de Txingudi se observan hasta un total de 250 especies a lo largo de todo el ciclo anual[2]. En el atlas de Barcelona detectaron 83 especies[1]. Esta elevada riqueza en S. Sebastián obedece, principalmente, a los siguientes dos factores: es un municipio con una gran superficie (unos 60 km^2) que, además, cuenta con una gran variedad de hábitats, entre ellos los acantilados más importantes de Gipuzkoa para las aves marinas, grandes parques, campiñas, landas, bosques, tramos fluviales y humedales. Dicha heterogeneidad de hábitats posibilita contener una riqueza más alta de aves[139,140] y es posiblemente un factor decisivo a la hora de explicar el alto número de especies nidificantes halladas en S. Sebastián.

En el Mapa 1, obtenido a partir de datos observados, se registra un promedio de 30,8 especies para cada una de las celdas de 1×1 km. El número de especies observadas es máximo en determinadas zonas del monte zonas del monte Ulia, Igeldo, las campiñas que se extienden desde Martutene hacia Alza o Landarbaso, así como en varias celdas coincidentes con grandes parques urbanos, como Cristina Enea, Aiete, Miramón o Ametzagaina. En esta última zona se ubica la celda con más aves observadas en todo el municipio (61 es-



Mapa 1. Riqueza de especies de aves nidificantes en S. Sebastián observadas en cada una de las celdas de 1×1 km. Nótese que son especies observadas, por lo que es posible que exista sesgo debido a un esfuerzo de muestreo desigual.

pecies). Con un área de casi 0,4 km^2, este parque cuenta con una heterogeneidad de hábitats destacable, desde zonas forestales razonablemente bien conservadas hasta espacios abiertos y ajardinados. Por el contrario, este mapa indica un número inferior de especies en algunas de las celdas más forestales e inaccesibles, como es el caso de Oberan.

El alto número de especies registrado en parques urbanos refleja el papel que las zonas verdes juegan para la conservación de la avifauna en entornos densamente poblados. Estos parques se constituyen en reservorios de biodiversidad y, a modo de cuentas en un rosario, permiten la conectividad de poblaciones de aves a través de la densa trama urbana. En este escenario, se pone de manifiesto cómo la creación y restauración de espacios verdes permite generar núcleos urbanos más respetuosos con la conservación de la biodiversidad[141]. Además, la existencia de este tipo de espacios, y la vegetación que los conforman, juega un papel primordial en la creación de ciudades resilientes frente al cambio climático[142-145]. Por otro lado, estas zonas verdes contribuyen como ningún otro espacio a mejorar la calidad de vida de la ciudadanía[146-148]. Asimismo, se viene demostrando desde hace ya unos años que la conservación de la biodiversidad en ciudades no debe limitarse a la creación de parques a modo de islas en la trama urbana. Junto a éstos, es importante tratar de lograr la máxima conectividad ecológica, mediante la creación de las llamadas infraestructuras verdes. Por ejemplo, a través de la plantación de arbolado y pasillos verdes en calles y plazas. En conjunto, la creación, restauración, conservación y gestión del hábitat de zonas verdes forma parte de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) establecidos en la Conferencia Río+20, para el periodo 2015-2030.

Cabe destacar cómo varias celdas urbanas llegan a alcanzar un número de especies superior al registrado en otras donde domina el paisaje de campiña en el cinturón periurbano. Esta relación de especies observadas, no obstante, está muy influida por el esfuerzo de muestreo. Éste tiende a concentrarse en las zonas más accesibles o en las que los observadores esperan una elevada riqueza local de especies[149]. Aunque el Mapa 1 sí revela en términos globales qué zonas del término municipal cuentan con un alto número de especies de aves, todavía se estaría subestimando el número de ellas en determinadas zonas donde el esfuerzo de muestreo ha sido más bajo. Sería éste el caso de determinados puntos del municipio con acceso complicado, como ocurre en algunas laderas de Landarbaso, Oberan,

Especie	CVEA	Anexo I	Prioridad conservación
Milano real	PE	Sí	Máxima
Cormorán moñudo	VU		Alta
Chorlitejo chico	VU		Alta
Avión zapador	VU		Alta
Zampullín común	RA		Media-alta
Abejero europeo	RA	Sí	Media-alta
Águila calzada	RA	Sí	Media-alta
Picamaderos negro	RA	Sí	Media-alta
Alcotán europeo	RA		Media-alta
Halcón peregrino	RA	Sí	Media-alta
Carricero común	RA		Media-alta
Milano negro		Sí	Media-baja
Chotacabras europeo		Sí	Media-baja
Alcaudón dorsirrojo		Sí	Media-baja
Curruca rabilarga		Sí	Media-baja

Tabla 1. Especies de aves nidificantes en S. Sebastián prioritarias para la conservación, categorizadas según su nivel de amenaza. La prioridad se deriva de calcular un índice a partir del Catálogo Vasco de Especies Amenazadas (CVEA) y el Anexo I de la Directiva Aves. Categorías para el CVEA: PE, En Peligro; VU, Vulnerable; RA, Rara.

o incluso Ulia o Igeldo, debido a la dificultad del terreno así como a la existencia de fincas privadas a las que no se pudo acceder. Así, un caso extremo que ilustra bien tales limitaciones sería Oberan. Esta zona contiene una de las masas forestales mejor conservadas y más extensas del municipio, donde a priori se podría esperar una riqueza alta de especies (aunque en determinados bosques la riqueza de aves es baja). Una buena parte de la masa forestal de Oberan es hayedo, y es sabido que los hayedos son más pobres en especies que otras masas forestales de caducifolios autóctonos, como el roble[107-150]. Aun así, el número de especies observadas en Oberan está claramente por debajo del valor que podría esperarse, incluso en un hayedo[151]. Futuras prospecciones en este entorno podrían mejorar significativamente el inventario de la avifauna de esta zona. La comunidad de aves se asemejaría, tal vez, a la registrada en la finca de Artikutza[152]. En este contexto, tendría interés comprobar la presencia de algunas especies típicas de hábitats montanos de carácter eurosiberiano, como el reyezuelo sencillo (*Regulus regulus*) y el agateador euroasiático (*Certhia familiaris*).

Distribución de especies amenazadas e identificación de espacios prioritarios para la conservación.

Un criterio comúnmente aplicado para determinar la importancia de una zona para las aves es el de atender al grado de amenaza de las especies que allí se encuentran. Cuanto más alto sea el número de especies amenazadas y el nivel de amenaza de esas especies, más importante será esa zona para la conservación de la biodiversidad aviar. Este criterio ha sido tenido en cuenta con el fin de identificar las zonas más importantes para la conservación de aves nidificantes en S. Sebastián. Según los criterios que se muestran en la Tabla 1, en S. Sebastián están presentes hasta 15 especies prioritarias para la conservación, con los siguientes grados de prioridad: máxima (1 especie), alta (3 especies), media-alta (7 especies) y media-baja (4 especies). De todas estas especies, 11 aparecen en el CVEA (Catálogo Vasco de Especies Amenazadas) y 9 en el Anexo I de la Directiva Aves (Tabla 1).



Mapa 2. Índice de conservación de aves nidificantes en S. Sebastián para celdas de 1×1 km. Este índice proviene de sumar para cada celda el valor de conservación (Tabla 1) de las especies observadas. El índice se ha normalizado a una escala que va de 0 a 100.

Atendiendo a su distribución en el municipio, obtenemos tres celdas con una prioridad máxima de conservación (Mapa 2): el parque de Ametzagaina y las dos celdas que ocupan las campiñas del este del municipio, muy particularmente las que quedan al sur de la A8, desde Antondegi hacia San Marcos. Esto se debe en buena parte a la presencia de especies como el milano real y otras rapaces forestales diurnas, chotacabras y alcaudón dorsirrojo. Varios puntos a lo largo de todo el cinturón periurbano presentan también índices elevados de conservación (e.g. en Igeldo, Unanue, Landarbaso…). Esto pone de manifiesto que la campiña es uno de los medios más importantes para la conservación de las aves del municipio. Varias de las celdas que coinciden con el cauce del Urumea son, también, importantes. Esto es debido a la presencia de especies como el chorlitejo chico y el carricero común. Llama la atención el alto valor de la celda que coincide con un tramo del cauce del Urumea así como con el Golf de Basozabal, y que es debido a la ocurrencia del zampullín común. Las celdas que coinciden con el Oria también tienen valores altos, sobre todo la que solapa con la presencia de avión zapador. Finalmente, cabe destacar la relevancia de los acantilados del sector más oriental de Igeldo y de buena parte de Ulia, donde tanto la presencia de cormorán moñudo como halcón peregrino, entre otras especies, hacen que ambas zonas sean, también, prioritarias para la conservación.

En la Tabla 1 puede verse que hay varias especies de rapaces forestales diurnas amenazadas. La distribución de muchas de ellas ha sido subestimada, ya que no se han desarrollado muestreos específicos orientados a optimizar su detectabilidad. En consecuencia, no debe descartarse que el índice de conservación obtenido para varias celdas pueda ser mayor, especialmente en las que cubren el mosaico de bosques, prados y pastizales propio de las campiñas que se extienden desde Igeldo hasta el este del municipio, así como en Zubieta, Landarbaso y Oberan. En todas estas zonas, la aplicación de un modelo agrícola sostenible y rentable, basado en la conservación de las especies y hábitats que conforman el paisaje de campiña y el mantenimiento de actividad agrícola respetuosa con el medioambiente, jugará un papel clave en el futuro de la conservación de buena parte de las especies que nidifican en el municipio. Por otro lado, la regeneración o restauración de cierto tipo de hábitats para aves acuáticas o asociadas al agua, permitiría consolidar o incluso mejorar el valor del cauce del Urumea y el Oria para la conservación de este tipo de aves. Sería claramente el caso de la regeneración de carrizales a lo largo de orillas y marismas ya desaparecidas hoy en día. Finalmente, se pone de manifiesto la gran importancia de los acantilados que se extienden a lo largo de Ulia (parcialmente protegidos bajo la figura de la Zona Especial de Conservación ES2120014), para los que habría que evaluar la presión asociada a los usos del área. Igualmente importantes son los acantilados del sector más oriental de Igeldo, carentes de figura de protección alguna.

Bibliografia / Bibliografía

1. Anton, M., Herrando, S., Garcia, D., Ferrer, X., Cebrian, R., 2017. Atlas dels ocells nidificants de Barcelona. Ayuntament de Barcelona/ ICO/ UB/ Zoo. Barcelona, Barcelona.
2. Cramp, S., 1985. Handbook of the Birds of Europe, the Middle East and North Africa. Vol. 4. Oxford University Press, Oxford.
3. Knaus, P., Antoniazza, S., Wechsler, S., Guélat, J., Kéry, M., Strebel, N., Sattler, T., Chardonnens, M., 2018. Atlas des oiseaux nicheurs de Suisse 2013-2016. Distribution et évolution des effectifs des oiseaux en Suisse et au Liechtenstein. Vogelwarte Sempach, Sempach.
4. Carrascal, L.M., Palomino, D., 2008. Las aves comunes reproductoras en España. Población en 2004-2006. SEO/BirdLife, Madrid.
5. Arizaga, J., Laso, M., Aranguren, I., Goikoetxea, J., Jauregi, J.I., Martínez, J., Sánchez, J.M., 2019. Testing for the effect of meteorological conditions on transient dynamics of a reed warbler *Acrocephalus scirpaceus* population breeding in northern Iberia. J. Ornithol. 161, 351–357.
6. Arizaga, J., Mendiburu, A., Alonso, D., 2010. Non-breeding reed warblers *Acrocephalus scirpaceus* (Hermann, 1804) in June in southern Europe: local or still migrating birds? Belg. J. Zool. 140, 74-76.
7. Alonso, D., Arizaga, J., 2013. The impact of vagrants on apparent survival estimation in a po-pulation of Common Crossbills (*Loxia curvi- rostra*). J. Ornithol. 154, 209-217.
8. Griffith, S.C., Owens, I. P. F., Thuman, K. A., 2002. Extra pair paternity in birds: a review of interspecific variation and adaptive function. Molecular Ecology 11, 2195-2212.
9. Brouwer, L., Griffith, S.C., 2019. Extrapair pate-nity in birds. Mol. Ecol. 28, 4864-4882.
10. Johnsen, A., Andersen, V., Sunding, C., Lifjeld, J.T., 2000. Female bluethroats enhance offspring immunocompetence through extra-pair copulations. Nature 406, 296-299.
11. Arizaga, J., Andueza, M., Tamayo, I., 2013. Spatial behavior and habitat use of first-year Bluethroats *Luscinia svecica* stopping over at coastal marshes during the autumn migration period. Acta Ornithol. 48, 17-28.
12. Andueza, M., Arizaga, J., Barba, E., Tamayo-Uria, I., 2014. Spatial distribution and habitat use of reed warblers *Acrocephalus scirpaceus* during the autumn migration period. Behaviour 151, 799-817.
13. Boulinier, T., Nichols, J.D., Sauer, J.R., Hines, J. E., Pollock, K.H., 1998. Estimating species richness: the importance of heterogeneity in species detectability. Ecology 79, 1018-1028.
14. Margalef, R., 1998. Ecología. Omega, Barcelona.
15. Gedeon, K., Grüneberg, C., Mitschke, A., Sudfeldt, C., Eickhorst, W., Fischer, S., Flade, M., Frick, S., Geiersberger, I., Koop, B., Kramer, M., Krüger, T., Roth, N., Ryslavy, T., Stübing, S., Sudmann, S. R., Steffens, R., Vökler, F., Witt, K., 2015. Atlas Deutscher Brutvogelarten. Dachverband Deutscher Avifaunisten, Berlin.
16. Issa, N., Muller, Y., 2015. Atlas des oiseaux de France métropolitaine. Nidification et présence hivernale. LPO / SEOF / MNHN, Paris.
17. Guisan, A., Zimmermann, N.E., 2000. Predictive habitat distribution models in ecology. Ecol. Model. 135, 147-186.
18. Buckland, S.T., Anderson, D.R., Burnham, K.P., Laake, J.L., Borchers, D.L., Thomas, L., 2007. Advanced distance sampling. Oxford University Press, New York.
19. Miller, D.L., 2016. Package 'Distance'. Version 0.9.6.
20. Miller, D.L., 2016. Package 'mrds'. Version 2.1. 17.
21. Davison, A.C., Hinkley, D.V., 1997. Bootstrap methods and their application. Cambridge University Press, Cambridge.
22. Rouco, M., Copete, J.L., De Juana, E., Gil-Velasco, M., Lorenzo, J.A., Martín, M., Milá, B., Molina, B., Santos, D.M., 2019. Lista de las aves de España. SEO/BirdLife, Madrid.
23. Cramp, S., Simmons, K.E.L., 1978. Handbook of the Birds of Europe, the Middle East and North Africa. Vol. 1. Oxford University Press, Oxford.
24. Staneva, A., Burfield, I., 2017. European birds of conservation concern: populations, trends and national responsibilities. BirdLife International, Cambridge.
25. Escandell, V., Escudero, E., Del Moral, J.C., 2019. Obtención de indicadores del estado de la biodiversidad en el País Vasco a través del programa de aves comunes reproductoras de SEO/BirdLife, temporada 2019. SEO/BirdLife, Inédito.
26. HAZI, 2017. Censos de aves acuáticas nidificantes en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Gobierno Vasco, Inédito.
27. Arizaga, J., Laso, M., 2015. A quantification of illegal hunting of birds in Gipuzkoa (north of Spain). Eur. J. Wildl. Res. 61, 795-799.
28. Alfonso, M. C. (Coor.), 2019. Censo de cormorán moñudo en Gipuzkoa, 2019. Itsas Enara Ornitologi Elkartea, Inédito.

29. Álvarez, D., Velando, A. 2007. El cormorán moñudo en España. Población en 2006-2007 y método de censo. SEO/BirdLife, Madrid.

30. Del Moral, J. C., Oliveira, N. 2019. El cormorán moñudo en la península ibérica. Población reproductora en 2017 y método de censo. SEO/BirdLife, Madrid.

31. Madroño, A., González, C., Atienza, J. C. 2004. Libro Rojo de las Aves de España. DGB-SEO/BirdLife, Madrid.

32. Cramp, S., Simmons, K. E. L. 1980. Handbook of the Birds of Europe, the Middle East and North Africa. Vol. 2. Oxford University Press, Oxford.

33. Palomino, D., Valls, J. 2011. Las rapaces forestales en España. Población reproductra en 2009-2010 y método de censo. SEO/BirdLife, Madrid.

34. Zuberogoitia, I., Martínez, J. E. 2011. Ecology and conservation of European forest-dwelling raptors. Diputación Foral de Bizkaia, Bilbao.

35. López-López, P., de La Puente, J., Mellone, U., Bermejo, A., Urios, V. 2016. Spatial ecology and habitat use of adult Booted Eagles (*Aquila pennata*) during the breeding season: implications for conservation. J. Ornithol. 157: 981-993.

36. Carter, I. 2007. The Red Kite. Arlequin Press Monographs.

